

ENERGIA-ERAGINKORTASUNA, BERRIZTAGARRIEN BIDEZ

Energiaren Euskal Erakundeak Debagoieneko udalen
ahalegina aitortu du Oñatiko zentral hidroelektrikoan / 3

Debagoieneko udaletako
ordezkariak, Oñatiko Olateko
zentral hidroelektrikoan.

IMANOL SORIANO

Denak ados Isaias Carrasco omentzeko

Arrasateko udalbatzako bost talde politikoek –baita EH Bildu ere– batera omenduko dute, lehenengoz, ETak eraildako zinegotzi ohia, 24an / 2

puntuak

Euskaraldiaren
gaineko
erreportajea

Ritxar Bacete
antropologoari
elkarriketa

SINADURAK

XABIER MUGARTZA / 8	ANDRES OSA "SAKONA" / 25
MARXE RUIZ DE AUSTRI / 13	JOSUNE ODRIOZOLA / 36
MARIA IZAGA / 17	ANDER ETXEBERRIA / 48



gama altuko
2 mó progresibo
erreflexuen aurkako lenteekin

229€

www.multiópticasgipuzkoa.com

Beasain • Donostia • Elbar • Errenteria
Irun • Lasarte-Oria • Tolosa • Ordizia

Kontsultatu itzazu zure optikan kanpainaren esanugarriak.
Ezango da beste eskaintza batzuetan erabili.

Otalora Lizentziaduna, 18 • Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIÓPTICAS

lehena zerbitzu optikoetan



Igor Urizar (Baleike), Anuska Ezkurra (EAJ), Blanca Roncal (PSE-EE), Maria Ubarretxena (EAJ), Eneko Barberena (EH Bildu) eta Juan Luis Merino (Irabazi). JOKIN BEREZIARTUA

Jokin Etxebarria DEBAGOIENA

2016an Arrasateko Udalak Memoriaren eta Bizikidetzaren Mahaia martxan jarri zuenetik, aurrerapausoak ematen ibili dira arlo horretan. Sukalde lan handi baten ondoren, aurreneko, udalbatza sortzen duten alderdi politiko guztiek Isaias Carrascoren omenaldian parte hartuko dutela adierazi zuten, atzo, azaroak 8, udaletxeko osoko bilkuren aretoan egin zuten agerraldi bateratu batean.

Bizikidetzaren ibilbidean aurrera egin ahal izateko dokumentu bateratu bat ere plazaratu zuten. Idatzi horretan, Arrasateko edo Arrasaterekin lotura duten biktimei egingo zaizkien aitortzak antolatzeke orduan erabiliko diren irizpideak azaltzen dituzte. Mahaiak hitzartutako irizpide hauek lau oinarri izango dituzte: elkarlana, bai talde politiko guztien artekoa eta baita biktimia eta hauen familiarekin, hauek behar duten laguntza asetzeko; adostasuna; diskriminaziorik eza eta sufri-menduak ez parekatzea.

Idatzi horrek aipatzen du egia- ren bila erakundetik eman beharreko bultzada bat badagoela, bai behar bezala itxi gabe dauden kasuak ikertzeke orduan, eta baita argitzeke dauden beste hainbat kasutan ere: "Kasu horiek, sarritan, bertsio ofizial bat badaukate, baina baita bertsio ofizial horiek zalantzan jarriko lituzketen elementu nahikoak ere".

Bizikidetzaren alde pausoak ematen

Arrasateko udalbatzako talde politiko guztiek, aurreneko, Isaias Carrascoren aldeko omenaldian parte hartuko dute. Izan ere, azaroaren 10ean, Memoriaren Egunean, egingo zela zabaldu bazen ere, omenaldia azaroaren 24an egingo dute

Bizikidetzan aurrera egin nahi da eta emango den lehen pausoa Isaias Carrascori egingo zaion aitortza izango da. Aurrez, erre azaroaren 10ean egingo zela zabaldu zen, eta gerora gezurtatu. Azkenean, baina, azaroaren 24an egingo da omenaldia. Horren ondoren, Iñaki Etxaberi eta German Agirreri egingo zaien aitortza etorriko da. Bestalde, dispertsio politikak sortu duen sufrimendua aintzat hartzeko, urte amaiera baino lehen eza-gutzeria emango den proposamen konkretu bat lantzen ari dira. Eta 2019an, berriz, tortura izan-

IDATZIAK LAU OINARRI DITU: LANKIDETZA, ADOSTASUNA ETA DISKRIMINAZIOARIK ETA PAREKATZERIK EZA

go da Memoriaren eta Bizikidetzaren Mahaiak landuko duen gai nagusia.

Justiziak abandonatuta

Alde batetik, azaroaren 6an egin zen osoko bilkuran, Arrasateko udalbatzak Udaleko talde politiko guztiek adostutako adierazpen instituzionala irakurri zuen. "Arrasateko Udalak gogora ekarri gura ditu Iñaki Etxabe Oro-bengoaren hilketa bidegabea, Batallon Vasco Españolek eginga 1975eko urriaren 5ean, eta German Agirre Irasuegiren hilketa bidegabea, eskuin muturrak eginga urte bereko urriaren 12an", zioen adierazpen honek.

Hala, Iñaki Etxaberen alaba Olatzek adierazi du pozik hartu dutela udal erakundeek aitortpen bat egin izana. Edozelan ere, aita terrorismoaren biktimia gisa aitortzeko daukaten borrokak bere

horretan jarraitzen du; izan ere, 1975eko urriaren 5eko gauean, Etxabe jabe zen Kanpazarko ostatuan hiru pertsona sartu ziren, burua estalirik, eta, "zuen bila gatoz" oihu eginda, Eco markako 18 tiro eman zizkioten.

Gogoratu behar da 1976 bukaeran, BVA (Batallon Vasco Español) talde armatuaren Baldarrain komandoak bere egin zuela Etxaberen hilketa, eta horrela ageri da Estatuko Segurtasun Idazkaritzaren 1998ko urriko idatzi batean. Kontuan hartzekoa da, baita ere, hilketa honen testigu izan zitekeen Ger-

COVITEK ETA AVT-K TERRORISMOAREN BIKTIMEN ZERRENDAN SARTUTA DAUKATE IÑAKI ETXABE

man Agirre arrasatear taxilaria buruan tiro bat zuela hilik agertu zela Legution urriaren 12an, bere autoaren barruan. Antonio Tejerok, Gasteizko Guardia Zibilaren buruak, esan zuen berak hartuko zuela ikerketaren ardura, baina kasua ez da argitu.

Horren harira, Estatuko justiziak, familiaren borrokak borroka, ez du datu objektiborik ikusten Etxaberen hilketa terrorismo ekintza izan zela esateko. Aipagarria da, hala ere, Covite eta AVT elkarteek terrorismoaren biktimen zerrendan daukatela Iñaki Etxabe, industriari gisa jota, eta biek jasotzen dutela hilketaren egilea eskuin muturreko talde terrorista bat izan zela.

Aranburu, 'Zapa' eta Larrea

Bestetik, 1978ko azaroaren 15ean, Arrasateko Munar auzoko biribilgunean Guardia Zibilak egin-dako tiroketa batean Roberto Aranburu, Jose Mari Iturriotz *Zapa* eta bere etxe ingurutik gertaera ikusten ari zen Emili Larrea hil ziren. Bertsio ofizialaren arabera, aurrez Aretxabaletako kuartelari tiro egin zioten hiru gazte hasi ziren tiroka biribilgunean, eta tiroketa hari erantzunez hil ziren hirurak.

40 urte pasatu dira ordutik hona, eta Arrasateko EH Bilduk justizia eskatuko du, benetan gertatu zena plazaratu eta be-launaldi berriek ezagutu dezaten. Azaroaren 15ean, ekitaldi xume batean, 18:00etan, Udala plazan, lore eskaintza eta aureskua egingo da, eta 19:00etan ekitaldi politikoa, Kultureteko Areto Nagusian.

Benito Reola eta Felix Alberdi

Atxorrotx Kultur Elkarteak, berriz, gaur, azaroak 9, egingo du Memoriaren Eguneko ospakizuna, arratsaldeko zazpitan, Eskoriatzako plazan. Bertan, Errepublikaren alde eta Eskoriatzako defentsan aritu zen Benito Reola agintaria omenduko dute. Baita haren laguntzaile izan zen Felix Alberdi aretxabaletarra ere. Santoñan eta Asturiasko Ipar frontean borrokan aritu ziren bi pertsona horien gorpuak 2013an aurkitu zituzten Leongo herri batean.

Bestalde, biharko, arazoak 10, Aretxabaletako Udalak elkarretaratzea deitu du, eguerdiko hamabietarako, Iturriar plazan, Memoriaren Eguna delaeta.



Debagoieneko udaletako ordezkariak, Energiaren Euskal Erakundearen ziurtagiriek. IMANOL SORIANO

Energia trantsizioan aitzindari da Debagoiena

Energia eraginkortasunean eta berriztagarriak bultzatzeko Debagoieneko udalek egin dituzten ekimenak aitortu ditu Energiaren Euskal Erakundeak (EEE), Oñatiko Olateko zentral hidroelektrikoan egindako ekitaldi batean

Jokin Etxebarría DEBAGOIENA

Pasa den ekaina ezker, Energiaren Euskal Erakundea, bailara desberdinetan, erakunde lokalak energia alorrean egiten ari diren esfortzua aintzakotzat hartzen ari da. Aste honetan, Debagoienari egin diote aitortza, eta, horretarako, Iñigo Ansolak, EEEko zuzendari nagusiak, Antzuola, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Elgeta, Eskoriatza, Leintz Gatzaga eta Mankomunitateko ordezkariak batu ditu Oñatiko Olateko zentral hidroelektrikoan.

Horietako bakoitzak jaso du trantsizio energetikoarekin inplikazioa duela erakusten duen ziurtagiria. Izan ere, Ansolak adierazi moduan, "Debagoienean mendeak dira ondare industrial eta kulturalak aurrera atera eta mantentzeko errekturso propioak sortzen direla".

120 urte energia ekoizten

Autokontsumoa betetzeko lain energia sortzea ez da batere

erraza. Batzuek euren etxeetako beharrei aurre egin eta elektrizitatea saltzeko beste energia sortzen dute eguzki-plaken bidez. Ez dira asko, eta gehienentzat horrelako gauza bat lortze hutsa utopikoa da ia-ia. Oñatik, baina, mende bat baino gehiago darma energia produzitu, kudeatu eta zabaltzen. Olate, Lamiategi, Tokillo, Arantzazu, Saratxo eta Zapatako ur-jauziek 15 milioi kilowatt sortzen dute, gutxi gorabehera, urtean, herriko etxebizitza ia guztiak hornitzeko beste energia.

Oñatiko Ur-Jauziak XIX. mendearen amaieran sortu zen, baina Udalak eskuratu zuen 1989an –aurrez, Union Cerrajeararena izan zen–, eta gaur egun %80an da haren jabe. %10 Energiaren Euskal Erakundearena da eta gainerako %10a energia berriztagarria sortzen duen Goiener kooperatibak eskuratu zuen pasa den uztailan, 445.000 euroko kapital-zabalkuntzarekin. Hala ere, 2000 ezker, Oñargi

SL erakunde publikoak dauka Ur-Jauziak sortzen duen energia hau banatzeko eskumena. Aipatu behar da, gainera, etekinak sortzen dituen enpresa dela Oñargi, eta Udalaren aurrekontua finantzatzen laguntzen duela, horrenbestez.

Zortzi udali aitortza

Olateko zentralaren elkartutako ordezkariak bisita teknikoak egin diete zentralaren *tripetan* zehar, eta bertan, Iñigo Ansolak azpimarratu nahi izan du "Oñatiko Udalak egiten duen lana eta apustua, agortu-ezina den iturri batetik, modu jasagarrian sortzea ahalbidetzen duten instalakuntza hauek mantentzeko eta zaintzeko.

OÑATIKO UR-JAUZIEK, URTEAN, IA HERRI OSOA HORNITZEKO BESTE ENERGIA SORTZEN DUTE

Ez da hau izan EEEk ibarreko udalei egin dien aitortza bakarra, herriz herri egin diren hainbat proiektu bereizi nahi izan baitute.

Elgetan, Antzuolan, Eskoriatzan, Leintz Gatzagan eta Aretxabaletan energia berriztagarrien alde egin den promozioa eta herri horietan jarri den argiteria publiko berria azpimarratu dituzte.

Bergararen kasuan, kiroldegian ezarritako eguzki-panel termiko eta fotovoltaiakoak, zenbait eraikinetan ezarritako klimatizazioa, barruko argiteria eta ingurutzailak eta aurreko kasuen moduan argiteria publikoaren berrikuntzan egindako ahalegiak goraipatu dituzte.

Arrasateri dagokionez, kontutan hartu dute musika eskolan instalatu den geotermia, eraikin batzuetan ezarri den klimatizazioa, energia berriztagarrien alde Udalak egiten ari den apustua eta argiteria publikoan egin diren aldaketak.

Oñatin ezin izan dute gainetik pasa udal ibilgailuentzat erositako furgoneta elektrikoa, hainbat eraikinetan jarri diren eguzki-panel termikoak, modulu fotovoltaiakoak eta klimatizazio bereziak. Horrez gainera, kontutan hartu dute herrian egiten ari diren energia berriztagarrien aldeko ahalegina, argiteria berriztatzeko lanak eta energia elektrikoa sortzen duten minizentral hidrauliko batzuen jabe izatea Udalak.

Diru-laguntza berria

Energiaren Euskal Erakundeak energia aurrezteko eta berriztagarrien alde egiteko aholkulari lanak egiten ditu beharra duen edo interesa azaltzen duen ororekin. Gainera, diru-laguntzak ere ematen ditu, eta ekitaldi honetarako 8 milioi euroko aurrekontua dauka horretarako. Trantsizio energetikoari aurre egiteko lanean toki-erakundeek hartzen duten papera ezinbestekoa dela jakinik, urteko aurrekontu horren barruan 800.000 euro Toki Administrazio Publikoek bideratuta egongo lirakeke.

Berritasun gisa, baina, aurtan, laguntza linea berri bat zabaldu nahi izan du, batez ere, industrialdeei begira. Enpresa zentroetan hobekuntza energetikoak egitea bultzatu nahi da, eta, horretarako, 1,5 milioi euro bideratuko dira.

Hitzarmena euskaraz sinatzea lortu du Elgetak

Diru laguntza baten harira Elgetako Udalaren eta Gipuzkoako Aldundiaren arteko liskarra amaitu da

J.E. DEBAGOIENA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuak, 2017ko uztailan, 13.003'97 euroko diru-laguntza iragarri zuen Elgetako kiroldegiko aldagelak berritzeko. Hitzarmenaren zirriborroko seigarren puntuan ipintzen zuen Elgetako Udalak bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatu beharko zuela diruz lagundutako jarduerako zerbitzuetan. Horrek, herriko hizkuntza politika aldatzera derrigortzen zuela-eta seigarren puntu hori moldatzea erabaki zuen Elgetako Udalak, hurrengo jarrita: "lagundutako jarduera eta programen inguruko adierazpenean euskara bermatzea, beti ere herritarren hizkuntza eskubideei kalterik egin gabe". Zirriborroa elebitan zegoen eta euskara hutsean bidali zuen Udalak.

Gerora, sare sozialetan piztu zen eztabaida. Iraitz Lazkano alkateak idatzitako txio bati erantzun zion Denis Itxasok, esanez, Elgetako Udalak zela hitzarmena sinatu nahi ez zuena eta Aldundiaren betebeharra zela hitzarmena elebitan egitea.

Uema eta Behatokia, Udalarekin

Bai UEMAK eta baita Hizkuntz Eskubideen Behatokiak ere Elgetako Udalak babestu dute Denis Itxaso oker dagoela adieraziz. Izan ere, euskarazko erabilpena arautzen duen 10/1982 Oinarrizko Legeak eta Aldundiko Foru Dekretuak arautzen dute euskara hutsean hitzarmenak eta komunikazioak egiteko aukera, eta betebeharra Udalak espresuki horrela eskatuko balu.

Gauzak horrela, azaroaren 5ean Denis Itxaso, Goizane Alvarez eta Iraitz Lazkano elkartu ziren eta hitzarmena euskara hutsean sinatu zuten eta Elgetako Udalak jaso du diru-laguntza dagoeneko.



Debagoieneko eta Debabarreneko hainbat talde feministatako ordezkariak, Arrasaten, astelehenean. MAIALEN REGUEIRO

Zaintza ardatz, greba feminista

Debagoieneko eta Debabarreneko hamabi talde feministatako ordezkariak Arrasaten elkartu dira, 2019ko Martxoaren 8ko greba antolatzeke helburuarekin; Arrasateko etxez etxeko lankide bat ere bileran izan da, grebaren oinarria zaintza izango da eta

Eneko Azurmendi DEBAGOIENA

2018ko Martxoaren 8ko greba inoizko jendetsuena eta eragin-korrena izan da, eta, hori aintzat hartuta, 2019koa prestatzen hasiak daude dagoeneko Debagoieneko eta Debabarreneko hainbat talde feminista. "2018koa antolatzeke denboraz estu ibili ginen, eta, 2019koari begira, erabaki dugu lehenbailehen biltzea, gure artean lehenengo kontaktua egiteko, talde batzuk ezagutzen ez genituelako. Bildu gara argitzeko eduki ditzakegun zalantzak eta kezak, eta ikusteko nondik hasi gaitezkeen greba antolatzen. Iaz grebak izan zuen erantzuna ikusita, herri bakoitzean egindako balorazioetatik, positibotzat hartu genituen gauzak mantentzeko, eta sentsazio gazi-gozo horiek edo, agian, gehiegi landu ez genituen gauzak berreskuratu eta hobetzen saiatzeko", azal-

du du Jasone Giral dok, Emakumeen Mundu Martxako kideak.

Irail hasieran Gasteizen egindako batzar batean abiatu zuten 2019ko Martxoaren 8ko greba antolatzeke bidea, eta orduan zehaztu zuten zaintza arloa izango dela grebaren ardatz nagusia, eta 24 orduko greba izango dela.

Hori kontuan hartuta, talde feminista ezberdinek herrian herriko egoerak aztertu, eta haien kezak, zalantzak eta proposamenak eraman dituzte aste honetako batzarrerara. Hala, ideia ezberdinak partekatu ahal izan dituzte taldeek.

GIPUZKOAKO ESKUALDEAK KOORDINATZEKO BILERA EGINGO DUTE BIHAR URRETXUN

Urretxu eta Donostia

Arrasaten elkarbanatutako ideiak eta ateratako ondorioak Urretxura eramango dituzte bihar, zapatua, egingo duten bilerara. Gipuzkoako eskualdeak koordinatzeko bilera izango da, eta 10:00etan emango zaio hasiera, Urola-Garaiko Emakumeen Etxean.

Ondoren, azaroaren 17an, Euskal Herri mailako batzar handi bat egingo dute Donostiako Emakumeen Etxean, *Euskal Herriko Mugimendu Feministako greba-asanblada* izeneko. 10:00etan izango da hori ere, eta arratsaldean, Euskal Herriko Jardunaldi Feministak antolatzeke batzarra egingo dute. "Helburuak ondo finkatuko dira, eta egun horretatik aurrera norabide hori jarraituko dugu. Herri bakoitzak bere izaera propioa dauka, baina saiatuko gara bailara honetan

indarrak batu, eta guztion artean aurrera eginen", dio Giral dok.

Horrez gain, 2019ko azaroaren 1eko zubirako jardunaldi batzuk antolatuko dituzte, eta abenduaren 1ean batzar irekia egingo dute, jardunaldi horiek zeren bueltan antolatuko diren erabakitzeke.

Zaintza, ardatz nagusia

Esan moduan, Gasteizen erabaki zuten zaintza arloan zentratuko dela greba, hori izango dela ardatz nagusia. "Ildo horretan, uste dugu oso garrantzitsua dela etxez etxeko zerbitzua eskaintzen duten langileen ikuspegia, Arrasaten lau hilabetez greban egon direnak, borroka handia eduki dutenak, eta esateko asko daukatenak. Euren barrutik bizi izan dutena guri ikusarazteko, guk ere hortik ikas dezagun. Beraz, uste dugu oso aberasgarria izango dela haiek ere parte hartzea", azaldu du Giral dok.

Hala ere, greba feminista ez da horretan bakarrik zentratuko. Izan ere, ahalik eta emakume guztiengana iristea izango da helburua. "Aurtengo Martxoaren 8ak apur bat estututa eta denbora gutxirekin harapatu gintuen, eta konturatu ginen emakume askorengana ez ginela heldu. Beraz, pentsatu genuen interesgarria izango zela herri bakoitzak batzar irekiak egitea eta talde feministetan parte hartzen ez duten emakume guzti horiek gonbidatzea euren ekarpenak egitea. Horrez gain, Martxoaren 8ra begirako antolaketan ere parte har dezaten nahiko genuke, konpromiso barik eta bakoitzak ahal duen heinean. Uste dugu emakume asko daudela esateko asko dutenak, eta, akaso, ikusten ez direnak. Beraz, landu beharko dugu modu bat emakume horiek aldarrikapenera batu, eta euren ahotsak gizarte guztiaren aurrean entzun daitezen".

Elkarlanaren garrantzia

Azken urteotan, feminismoa indarra hartzen ari da, eta horren gakoetako bat talde ezberdinen arteko elkarlana da. Gurean ere

igartzen da elkarlan hori. "Iaztik hona nabari da elkartuago gaudela, batuago", dio Giral dok. Asteleheneko batzarra da horren erakusleetako bat. "Debagoieneko talde feministak komunikatuta gaude, eta edozein gauzetarako elkarren laguntza daukagu. Zenbat eta gauza gehiago egin elkarrekin, orduan eta gehiago batzen gara, aberatsagoa da lana. Gauzak elkarrekin egin da, erronka berriak eta bateratuak finkatu ditzakegu, indar handiagoa daukagu eta egingo dugun lana eraginkorragoa da". Arrasaten etxez etxeko zerbitzua eskaintzen duten langileen aldeko atxikimendua jarri du adibidetzat Giral dok. "Deialdia zabaltzea genuen, eta, bi bailaretako talde feminista ezberdinen atxikimendu bateratu bat eskaintzeaz gain, manifestazioan ere guztiok egin ginen".

Azaroaren 25a

Indarkeria Matxistaren Kontra Nazioarteko Eguna, azaroaren 25a, ate joka den honetan, Debagoieneko talde feministak hainbat ekintza antolatzen ari dira. Herri bakoitzaren errealitatera egokitutako ekintzak izango dira. Hala ere, aldarrikapen bateratua izango da, "justizia patriarkalaren" aurkakoa. "Gaur egun dauden gaiak aintzat hartuta, justizia patriarkalari erantzukizuna eskatzeaz gain, haren aurkako aldarrikapenak plazaratuko ditugu".

Elkartu diren 12 taldeak

- Arrasateko EMMko plataforma.
- Pottogorriak.
- Aretxabaletako talde feminista.
- Bergarako Martxanarak.
- Eibarko Nalua talde feminista.
- Oñatiko Sare feminista.
- Oñatiko Pototak.
- Soraluzeko Korner morea taldea.
- Debako talde feminista.
- Ermuko Nüshu talde feminista.
- Elgetako emakume taldea.
- Arrasateko etxez etxeko langileak.

AZAROAREN 17AN, EUSKAL HERRI MAILAKO BATZAR HANDIA EGINGO DUTE DONOSTIAN

EUSKARALDIA, GERTU!

14
EGUN FALTA
DIRA

"Asko egin dugu, baina hau hasiera baino ez da"

KIKE AMONARRIZ SOZIOLINGUISTA

Amonarrizek dio Euskaraldiak asko egin duela dagoeneko, elkarlan ugari sortuz eta espektro zabala hartuz; hala ere, onartu du oraindik lan asko dagoela egiteko

Eneko Azurmendi ARRASATE

Zergatik Euskaraldia? Zergatik orain? hitzaldia eskaini du hizkuntzalari tolosarrak Kultura-teko Jokin Zaitegi gelan.

Zergatik Euskaraldia? Zergatik orain?

Fase aldaketa batean gaude, faktore asko direla medio. Hizkuntzen gaia mundu guztian da eztabaidagai, kezka iturri edo hausnarketagai. Maila soziopolitikoan ere fase aldaketa batean gaude. Gaur egun, 30 urtez azpikoen belaunaldian, ia guztiak B eta D ereduetan ikasitakoak dira eta suposatzen da euskaraz badakitela. Ezagutzari dagokionez, ez daukagu hobekuntzarako tarte handirik. Hobekuntza, etortzekotan, erabileratik etorriko da. Horregatik da orain garrantzitsua Euskaraldia.

Ze errealitate bizi du egun euskarak?

1985etik aurrera ditugun datuen arabera, ezagutza aurrera egin dugu nabarmen, erabileran joan gara aurreratzen, 2005. urtera arte, baina azken urte hauetan *impas* egoera moduko batean sartu gara. Hori azaldu da inkesta soziolinguistikokoan, bai kaleko erabileran eta beste hainbat lekutan. Horregatik da Euskaraldia horren garrantzitsua, erabileran dinamika berrindartza eramango gaituelako.

Zein izango da gakoa Euskaraldiak funtziona dezan?

Nire ustez, Euskaraldiak asko lortu du dagoeneko. Lortu du elkarlan bat sortzea gizarte eragileen eta instituzioen artean; lortu du elkarlan giro bat hiru administrazioetako instituzioen artean; lortu du herrietan aktibitatea aspaldian horrenbesteko indarrarekin aktibatu gabe zegoen mugimendu bat. Eta gakoa hori egon dira. Elkarlanean planteatu da, modu konkretu batean, modu ilusionagarri eta egingarri batean eta harrapatu du oso



Kike Amonarriz, eguazteneko hitzaldian. E.A.

"ILUSIOA SUMATZEN DUT. ARETOAK BETETA IKUSI DITUT SAIOETAN, ETA HORI EZ DA MAIZ GERTATZEN"

espektro zabala, euskaraz bizi den pertsona horretatik hasi, eta euskara ulertzea iritsi berria den pertsona horretaraino. Faktore guzti horiek herria animatu egin dute. Hau hasiera besterik ez da. Orain arte, *ahobizi*-engana iritsi gara errazen.

'Belarriprest'-ak erakartzea erronka zailagoa izan da, ezta?

Belarriprest-engana heltzeko, ondo azaldu behar da zertan datzan ekimena. Jende askorentzako hau oso berria da, beste galaxia bat. Herri honetan sozialki inoiz egin ez dugun ariketa bat izango da, eta, beraz, ondo azaldu beharreko gauza. Hasteko, ulertu egin behar du, gero onartu, gero egin, eta azkenik, ikusi ez dela ezer gertatzen, ez daukala albo-kalderik. Hori guztia kosta egingo da,

baina hori da landu behar dugun bidea, geruzak zabaltzea.

Debagoienera ezagutza eta erabileratu onak daude, beste bailara batzuekin alderatuta. Baina oraindik badago lana egiteko.

Bai, leku guztietan bezala. Arrasaten bertan egon da kezka berezi bat azken neurketak behar bada nabarmen bat izan delako. Azkoitian, adibidez, alderantzizkoa gertatu da. Erabileratuak zerra baten modukoak dira, gorabehera asko dituzte, eta epe luzeko ikuspuntu batetik begiratu behar dira. Baina asko dugu aurreratzeko. Beharbada orain dela 25 urte pentsa genezakeena baino mantsoago goaz, eta hori hausnarketarako bide izan behar da. Praktika berriak proposatu beharko ditugu, metodo berriak landu beharko ditugu, diskurtsoak egokitu beharko ditugu eta abar.

Euskaraldiari begira, ilusiorik sumatzen duzu herrietan?

Bai, nabarmena gainera. Hainbat eta hainbat hitzaldi egin ditut, eta sentsazioa ona da. Aretokak beteta ikusi ditut, eta hori ez da maiz gertatzen.



Urteurrena ospatzeko atera duten argazkia. AZK

AZK agentziak 30. urteurrena ospatu du aste honetan

Atzo, eguaztena, egin zuten ekitaldi nagusia; besteak beste, bezero, hornitzaile eta agintariak elkartu ziren

E.A. ARRASATE

Jose Angel Iturbek eta Daniel Miguelezek, biak ala biak Arte Ederretan lizentziatu berriak garai hartan, 1987an ekin zioten abentura honi Arrasateko ganbara batean. Startup teknologiko baten eran jaiozkeak "indarra" eman zion agentziari, hasierahasieratik. "Ikusi besterik ez dago harrezkero eginiko ibilbide luze eta oparoa", azaldu dute ohar batean. "Sortzaileek, gainera, jakin izan zuten lagunarteko erlazio jatorrak ezartzen bezero, hornitzaile nahiz kolaboratzaileekin. Honek ere asko lagundu zuen bidea errazten".

90eko hamarkadarekin batera, aldaketa handiak izan ziren. Agentzia hazten joan zen eta lehen tokialdaketa orduan izan zen, Arrasatetik Aretxabaletara. "Orduan bizi izan genuen lehen iraultza teknologikoa; lehen Macintosh ordenagailuak ager-

tu baitziren, eta, ondorioz, errota zeuden lan egiteko moduak hankaz gora jarri ziren, behin betiko", adierazi dute.

Geroztik, aldaketa asko izan dira lan egiteko eran, baina, euren esanetan, bat funtsezkoa izan da lan dinamika iraultzeko: "Izan ere, lehen, bezeroaren eskaerari erantzuten egiten zen lan; orain, ordea, agentzia da bezeroaren beharrei aurre hartu behar diena. Bezeroen beharrei gertutasunez eta konpromisotik erantzutea; hankak lurrean jarrita proiektuei forma eman eta errealitate egitea; eta une oro lanaren ebaluazioa egitea dira AZKren giltzarriak."

Ospakizun ekitaldia

Atzo egin zuten urteurrena ospatzeko ekitaldia, Arrasaten, eta 90 lagun inguru elkartu ziren; bezeroak, hornitzaileak eta agintariak, besteak beste.

Ate irekiak egingo ditu bihar Garaia Parke Teknologikoak

Zientzia eta Teknologiaren As-tearekin bat eginez, parkeak ateak irekitzeko jardunaldia egingo du, "ezagutza sustatzeko" helburuarekin. Bihar, zapatua, 11:00etatik 13:30era izango dira jardunaldiok.

11:00etan, parkeko enpresekin batera antolatzen den ekitaldia hasiko da. Gazteenentzat, hainbat tailer praktikoko programatu

dituzte, teknologiaren esparruari lotuta -robotika, droneen Erakustaldia eta etxeko efizientzia energetikoa-. Halaber, puzgarriak, marrazketa tailerra, Legogunea eta beste hainbat gauza ere egongo dira.

11:30etik 13:30era, hainbat talde txiki antolatuko dituzte, Garaia eraikina bisitatzeko, parkeko enpresek lanerako erabiltzen dituzten instalazioak eta teknologiak ezagutu nahi dituztenentzat. Ondoren, luntxa egingo dute.



Debagoieneko artzain batzuk Degurixan egunean, bezperan txakurrek ahuntz batzuk erasotu zuten inguruan. AMAIA ZABALA

Txakur basatien erasoekin etsita

Kurtzebarri, Degurixa eta Alabita inguruetan solte eta kontrolik gabe dabilzan bi txakurrek hamabost artalderi eraso eta hirurogeita hamar arditik gora akabatu dituzte azken lau aste hauetan. Artzainek administrazioaren babesik eza salatu dute

Amaia Zabala DEBAGOIENA

Urriaren 13tik hona, ia egunero ari dira mendian aske dabilzan bi txakurren erasoak jasaten Zaraia mendikateko artaldeak. Azken erasoak, herenegun, asteazkenean Degurixan ahuntz batzuei eginikoa izan zen.

Leintz Gatzagako herritar batenak dira txakurrak *-Kaxka* eta *Kira-* eta ihes eginda daude. Bata artzain-txakur alemaniar arrazakoa da eta bestea, belgiar artzain-txakur mestizoa. Asteak daramatzate artzainek haien atzetik eta jabeak berak ere ez du lortu harrapatzea. "Gau eta egun gabiltza zaintzak egiten, eta, azkenean, menditik beheko zelaietara jaitsi behar izan ditugu, baina hau ez da irtenbidea; izan ere, hauek otsoen pare jarri dira eta odola bilatzen dute; beraz, beheko zelaietara ere jaitsiko diren

beldur gara, etsita gaude", dio Jon Murgiondo Aretxabaletako artzainak.

Ardien egoera, "negargarria"

Artzainen esanetan, erasoak oso bortitzak dira eta batek muturretik eta besteak atzetik erasotzen diete, erabat "txikituz" eta egoera "negargarrian" utziz. "Ardiek izugarritzko izua bizi izaten dute eraso uneetan eta bizirik geratzen direnek ere ondorioak pairatzen dituzte; sabelean dituzten umeak galtzea, esaterako", dio hark.

GAU ETA EGUN TXANDAKAKO ZAINTZAK EGITEN ARI DIRA ARTZAINAK DEGURIXAN

Ardien sufrimenduaz gain, artzainei ekartzen dizkien galera ekonomikoak ere aipatzen dituzte: "Urte askotako lana pikutara joan daiteke, eta, egoera ez bada aldatzen, artzaintzaren etorkizuna arriskuan egongo da" dio Iñakik, Aretxabaletako artzainak.

Administrazioaren babesik eza

Erasoak jasan dituzten artzainek administrazioaren babesik eza eta egoera honen aurrean bakarrik utzi izana salatu dute. Hori dela eta, Aldundiari lehenbait lehen esku hartzeko eskatu diote. Jakinarazi dute Ertzaintzaren patruila bat ezarri dutela pistetan barrena, baina hori ez dela "nahikoa", txakurrak ez direlako pistan bertan agertuko. Ondorioz, ardiz eta altan dauden txakur emez osatutako tranpa moduko bat ezarri dute Degurixan eta gau eta egun txandakako zaintzak egiten ari dira bertan artzainak.



Txakurrek zauritutako ardia eroaten artzainak. KURTZEBARRIKO ARTZAINAK

Euskal Herriko artzainak, batuta

Txakurren erasoaren aurrean pairatzen duten babesik eza salatzeko, prentsaurrekoa egin zuten artzainek asteartean Eskoriatzako kultur etxean. Hasiera batean Debagoieneko artzainek deitua zen arren, Hego Euskal Herriko lau lurraldeetatik etorritako hirurogei artzainetik gora elkartu ziren bertan.

Debagoieneko azken erasoak izan zuten ardatz, eta artzainek haserre, inpotentzia eta etsipena plazaratu zituzten. Egoera hau, ordea, Euskal Herri guztiko artzainek pairatzen dutela salatu zuten, eta horren adibide izan ziren bertaratu zirenek azaleratu zituzten bizipen eta testigantzak. Esaterako, joan den astean, elurteak harrapatuta Gorbeian hil ziren ardiak jabeak, Belen Etxebarriak, azaldu zuen txakur baten erasotik ihesi zebiltzala geratu zela artaldea elurretan harrapatuta. Macario Martinez de Alegria arabarrak, berriz, ardiak erasotzen zituen bere txakurra hiltzeagatik jasandako isuna salatu zuen.

Mariano Imaz Aralarko artzainen ordezkaria ere bertan izan zen, eta artzainek mendiko ekosistemaren alde egiten duten lana azpimarratu eta gizarteari eta administrazioei artzainekiko errespetua eta duintasuna eskatu zizkien. Amaitzeko, artzainek gizarteari eskatu zioten itxuraz arriskutsuak ez izan arren txakurrek eragin ditzaketan sarraskiez jabetzeko; administrazioaren babesa lortu arte elkarlanean jarraituko dute.

Unai Elkoro Aretxabaletako alkateak ere ez du erraz ikusten konponbidea: "Egokiena Aldundiak basozainen bitartez egoera koordinatzea litzateke; izan ere, orain, zona honetan dabilza, baina, egun batzuk barru, Oñatin eraso dezakete", dio alkateak.

Zonako basozaina

Fermin Lezeta zonako basozainaren esanetan, txakurren jarduna Eskoriatzako eta Aretxabaletako udalei dagokie, eta ez basozainari. "Hasiera batean, guztiok ahalegindu ginen elkarlanean txakurrak harrapatzen, baina ez dago modurik, egoerak gainditu egin gaitu eta argi ikusi da kasu hauei aurre egiteko arautegi eta protokolo baten falta dagoela", dio basozainak.

ARTZAINAK ADMINISTRAZIOEN ETA BASOZAINEN BABESIK EZA SALATU DUTE

Udalen esku-hartzea

Joserra Zubizarreta Eskoriatzako alkatea ere kezkatutik dago, nahiz eta kontaktuan egon bai artzainekin eta bai Aldundiarekin, ez baitu irtenbiderik topatzen: "Txakur hauek jokiera basatia izan arren, animalia domestikoak izaten jarraitzen dute legearen aurrean eta horrek irtenbidea zailtzen du". Dena den, Udalak komunikatu batean, txakurren jabearen oniritziarekin, ehiztariei txakur hauek akabatze baimena eman die. Jabeak ez du GOIENArako adierazpenik egin nahi izan.

Gatzaren Egunagatik eskerrik asko!

JON ZUAZABEITIA

UDAL BATZORDEA ETA GAZITZEN

ELKARTEA

LEINTZ GATZAGA

Urriaren 21ean ospatutako Gatzaren Egunaren 3. edizioaren gainean oso balorazio positiboa egin dugu Udal Batzordean eta Gazitzen Elkartean, eta ezinbestekoa zaigu esker ona adieraztea. Eskerrik asko Leintz Gatzagara hurbildu zineten guztioi.

Mila esker modu aktiboan parte hartu zenutenoi museo bisitan, baso ibilaldian, azokan, xaboi tailerrean, hitzaldian, dantzaldian eta gainerako ekintzetan.

Mila esker, jakina, lanean aritu zineten profesional guztioi, izan nekazari, xaboi egile, baso gidari, hizlari edo musikari.

Esker anitz gatzaren azokara etorritako beste herri gazkinei: Gaztelako Poza de la Sal, Arabako Gesaltza Añana eta Bearnoko Saliese herriei. *Mercés Salias!* senidetze ekitaldi xumea bezain oparoa gauzatu genuen salistarren eta gatzagarron artean: asko dira batzen gaituzten ezaugarriak eta, are handiagoa, proiektuak elkarlanean garatzeko dugun gogoa.

Esker mila Debagoieneko Mankomunitateari, Deba Garaia Landa Garapen Elkarteari eta Gipuzkoako Turismo zuzendariari.

Eta gure esker ona, bereziki, lanean aritu zineten herritar guztioi, haur, gazte edo heldu, izan azoka muntatzen, trafikoa zaintzen, bisitariak artatzen, gatza saltzen, jan-edanaz hornitzen, edo bazterrak garbitzen. Eskerrik asko, elkarlana eta auzolana oinarri, hain egun eder eta emankorra lortzearren. Gatza gara!

Bolada ona txartel mankomunatuarentzat ere?

JULEN ALBERDI URRIATEGI

BERGARA

2018/10/26ko 168. zenbakidun *Puntua*-n Iñaki Ugarteburuk

aipatzen duen Bergarako Kirol Zerbitzuaren datu onen harira, zoriontzeaz aparte, proposatu nahiko nuke txartel mankomunatuaren berrezarpena –edo ahalegina, behintzat–, berak desio bezala, aipatu datuek goranzko joera mantendu dezaten.

Ze, bere idatzian, goranzko joeraren hainbat arrazoi posible aipatzen dituen arren, nik oraindik, eta badira dagoeneko hiruzpalau urte, ez dut txartel mankomunatua bertan behera uztearen aldeko arrazoi pisuzko bakarra ezagutzen. Nahikoa izango nuke hiritarren onura aintzat hartzen duten argudioetan oinarritutako azalpen laburra.

Bestetik, nire inguruan, galdetuta ere, ez dut txartel mankomunatuaren kontrako iritzirik jaso, eta bai, ordea, aldeko dezente, eta beti, berau bertan behera uztea galera izan den ustea.

Gauzak honela, eta bestelako arrazoirik ezean, ezingo diot utzi pentsatzeari benetako arrazoiak gure agintarien arteko ika-mikak izan zirela: handiena zeinek ote, alegia –kiroldegia, noski–.

Estrasburgoko epaiaren harira

XABIER ARREGI MURGIONDO

ORAIN PRESOK

OÑATI

Arduraz hartzen dugu urriaren 23an publiko egin zen Estrasburgoko epaia, ebazpena aldekoa dela ulertuta ere, honen irakurketari dagokionez ez baita esperotakoa izan. Izan ere, giza eskubideak urratuak izaten jarraitzea ahalbidetzen duela ulertzen dugu. Euskal presoek euren zigorra birritan betetzen jarraitu beharko dute, sententziak onartu arren prozedura judiziala okerra izan dela. Zigorren luzapenekin mantentzeari bide ematen baitio.

Gure iritziz, epai honek sufrimendua areagotu eta presoan auziari irtenbidea emateko urratsak baino gehiago oztupoak dakartza, mendekuan oinarritzen den lege bati aurre egin eta

justiziaz jokatzeko eskatu beharrean, beste aldera begiratu eta egoera hau bere horretan mantentzea dakar. Hori da, hain justu, herrikide ditugun Joseba Arregiren eta Alberto Plazaolaren kasuetan epai honek ekarri duena: beraien eskubideen urraketari jarraipena emateaz gain, beraien eta senideen sufrimendua luzatzea eta areagotzea.

Horregatik, Espainiako Estatuari zigorrak luzatzea dakarren lege injustu hau bertan behera uzteko eskatzen diogu, mendekua eta gorrotoa alboratu eta elkarbizitza eta bakea oinarri dituen baldintzak eraikitze bidean lagun izan dadin. Zentzu honetan, Espainiako Kongresuko ordezkariei ere dei egiten diegu noranzko honetan jardun eta Europako araudiaren ezarpena aplikatzearen alde egiteko, legea aldatuz, behar bada, eta aurrera urratsak egitearen alde ekiteko.

Dena den, euskal jendarteari, orain arte bezala, elkarrekin aktibo mantentzeko deia luzatzen diogu, horrela soilik emango diogulako irtenbidea presoan auziari. Elkarbizitzan oinarritzen den jendartea osatu ahal izateko, urriaren 20an 40.000 lagun batu ginen Donostian, espetxe politika hau aldatzeko nahiak batuta, orain arteko manifestaziorik anitzenean.

Bide honi eutsi eta elkarrekin lanean jarraitzeko deian berresten gara. Orain Presoen egoera aldatzeko garaia delako, eta zigorren luzapenak amaitzeko uea delako.

Itxaropena parkean, itxaropen gutxi

JOKIN URIBEETXEBERRIA

ARRASATE

Badira lau hilabete Itxaropena parkeko eraberritze lanak hasi zituztela; uztail hasieran, hain zuzen.

Udaleko webguneak apirilaren 26an publikatutako albisteak jasotzen duen bezala, lanak ekainean ziren

hastekoak eta lau hilabeteren buruan amaituta egotea zegoen aurreikusita. Bada, ez bata ez bestea, azkenean. Abuztuan jai, irailean egun gutxi batzuk lan eta urrian beste horrenbeste. Ez dakit zeintzuk diren atzerapenaren arrazoiak, obra esleitu zaion enpresarekin arazoak dauden edo bestelakorik ote dagoen tartean. Kontua da Maritxu Kajoi geroztik ez dela langilerik agertu bertan eta parkeak itxura penagarria duela, guztiz abandonatuta dago.

Polita da Udaletik jolas-parkeak berritzeko ideia lehiaketak abian jarri eta jasotako proposamen politenak udaletxeko pleno aretoan antolatutako ekitaldi batean saritzea; politagoa, ordea, umeak alai eta pozik parkean gozatzaren ikustea.

Biteri, Gorostiza, Munar eta Zaldibarko parkeak berrituta daude aspalditik, baina epe motzera ez dirudi Itxaropenan ziburu, salto-salto edo txirristarik ikusiko dugunik.

Non jolastuko dira inguruko umeak? Nolakoa izango litzateke Udalaren kudeaketa jolas-parkea herriaren erdigunean egongo balitz?

Txertoen ezusteko ondorioak

JOSU GARITAONANDIA

OPARITU ZUHAITZ BAT EGITASMOAREN

ARDURADUNA

BERGARA

Badaude txertoak kalte egin dieten pertsonak.

Noelia Vivar-i semea hil zitzaion txerto baten ondorioengatik; bere senarra, Federico Sanchez, AxV (Afectados Por Vacunas) elkartearen lehendakaria da, eta erabaki dute gelditzen zaien alabari txertorik ez ipintzea; ikusten duzuen moduan, txertoen ondorioek familia honen bizitza gogor astindu dute.

AxV elkartearen helburua da osasun arduradunek gurasoei helaraztea argi eta garbi txertoak ekar litzakeen ondorioak, eta gurasoek sinatutako baimenarekin txertoak ipintzea,

ebakuntzetan egiten den antzera; eta txertoak hartzeak baten bati kalte egiten dionean, dagokion laguntza ematea.

Eskerrik asko!

AITOR REMENTERIA

ANTXINTXIKA DEBAGOIENA TRIATLOI

TALDEA

DEBAGOIENA

Aurreko larunbatean, Soraluze eta Bergara artean, hamalagarren aldiz, Antxintxika lasterketa antolatzea lortu zen. Urtero, Antxintxika triatloi taldeak duen erronketako bat da honako hau.

Taldetik eskerrak eman nahi genizkizueke horrelako proba herrikoia antolatzea posible egin duzuen guztiei: herriko dendari, jatetxe eta hainbat enpresari. Nola ez, herriko eta bailarako beste kirol talde batzuei – Mondraitz, Hanka Labanka eta ASPACE–, eta beste hainbat boluntariori.

Aurtengoa erronka handia izan da Antxintxikarentzat. Kontuan izanik orokorrean lasterketek izan duten beherakada jende kopuruari dagokionez eta tartean ere zubia gurela.

Antxintxika lasterketak ondo eutsi dio jaitsiera horri, eta parte hartu duzuen guztioi eskerrik asko!

Herrietako lasterketak gutxitzen ari dira eta mantentzen direnak lan izugarria egiten ari dira urtero lasterketa herrian edukitzeko; hau da, gure herrietan ere korrika egiteko aukera eduki ahal izateko eta herrietan bizitza mantentzeko. Herrietan parte hartzeko aukera hauek ez baditugu aprobeztatzen, laster desagertuko dira. Hau lortzearen lana denon esku dago: kirol taldeak, udala, mugimendu sozialak, komertzioak, instituzioak, eta abar.

Eskerrik asko aurtan ere Antxintxika lasterketa aurrera ateratzeko posible egin duzuen guztioi eta ea datorren urtean ere elkar ikusteko aukera daukagun.



ZABALIK

XABIER MUGARTZA

Mende laurdena

Horixe dira 25 urte, hasierako garai hartan pertsona baten bizitzako herena izango litzatekeena.

Hasi ziren haietako gutxik pentsatuko zuten 25 urte iraun eta, ez hori bakarrik, 25 urte ondoren dagoen lekuan izango zenik Oñatiko Ganbara Abesbatza. Balentria itzela da, 90eko hamarkadan ume moko batzuek hasitakoa, ostean berezko talentuaz, baina, batik bat, ilusioz beteta garatzen joan dena. Ez zuten pentsatuko inondik inora familia bati hasiera ematen ari zirenik, horrenbeste jende biltzen duen zerbaiten hasiera zenik ere ez.

Beraiek abestuz zoriontsu izan nahi zuten; ba al da gauza ederragorik? Modu apal baten hasi eta Europa mailan lehiatzera heldu, nork esango zuen!

Eskerrak eman beharrean gaude hasierako 12 partaideei, berauei esker baitaukagu gaurko errealitatea.

Pertsonalizatzen hasteak arriskua dauka, norbait alde batera uztearen arriskua; arriskatuko naiz, ba:

Mila esker, Gorka Cueva, honen guztiaren sortzaile izateagatik. Bisionarioa, neurri batean, talentu itzela barruan, eta zerbait desberdina edo zerbait gehiagoren bila joanda, gaur egun OGA denari hasiera eman ziona. Eskerrik asko, Esteban Urzelai, Ganbara

hazteagatik, musika biziarazteagatik, eta sekula imajinatu ez genukeen abesbatzekin areto berdinetan abestea lortzeagatik.

Eskerrik asko, Aitor Biain, momentu konplikatuan erreleboa harteagatik, gure buruan sinetsarazteagatik, eta Europan zehar eman dugun maila ematea lortzeagatik.

Eskerrik asko, aita-ama, aita-ama, tio-tia, lagun... guk entseatu ahal izateko, zuen orduak sakrifikatu dituzuelako. 25 urtean haur dezente etorri dira Ganbarako abeslarien inguruan, eta horrek logistika esfortzu itzela dakar.

Eskerrik asko gurasoei, Euskadin, Espainian eta Europan gure ondoren izugarritzko babesa ematen ibili zaretelako.

Eta eskerrik asko bazkide guztiei. Momentu honetan zuek gabe oso zaila izango litzatekeelako aurrera jarraitzea, mila esker.

Beste 25 izan bitez!

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

ETB2ren funtzioa

LANDER ARRETXE

HTTPS://LABUR.EUS/SBSUT
'BERRIA'-N ARGITARATUA

Etsipena izango da edo audientzia zein hauteskunde emaitzek eragiten duten frustrazioa. Baina hala da: euskal artistek –musikariek, aktoreek, zinemagileek– beste hizkuntza batzuetan (ere) lan egiteak sumindu eta atsekabetzen duenaren aldean, batez besteko euskaltzalea ez da lipar bat ere asaldatzen erakunde publikoetatik hartzen diren erabakien norabidearekin. ETB da adibide nabarmenena. Denbora da bertan hartzen diren erabakietan ETB2 –eta

horrenbestez, gaztelania– lehenesten dela. [...] Josu Amezaga EHuko Ikus-entzunezko Komunikazio eta Publizitate Saileko zuzendariak Eusko Legebiltzarrean aurkeztu duen *ETBrentzat eredu berri bat* txostenean jasotzen duen moduan, ondorio argia du horrek: "Euskaldunei, oharkabea, zera esaten zaie: 'Gaztelania erakargarriagoa da'; euskara ez dakitenei, beste honako hau: 'Euskara ikasi beharrik ez dago, behar duten guztia gaztelaniaz emango baitzaie'. [...]

Eredu berriak nondik jo behar lukeen argi du Amezagak: *kanal bat hizkuntza bat* paradigma

gaindituta, "bietan izan behar luke zentrala euskarak, bakarra ez bada ere". [...]

Gaur egungo funtzioa betetzeko bada –probintzioanismoan, sinbolo hutsaletan eta estereotipoetan oinarritutako baskismoa bereizgarri hartuta Espainiako telebista pribatuekin lehiatzea–, egun ETB2 denak kate pribatua behar luke. Prentsa idatzian *El Correo*, *Diario de Navarra* edo *El Diario Vasco* diren bezala.

Ikusle datuak deserosoak lirateke berdin, baina gutxienez ETBk zama hori kendu eta bere jatorrizko funtzioa berreskuratuko luke.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia
Iban Arantxabal.

Eduki zuzendaria

Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Goiatz Arana,
Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.

Administrazio zuzendaria

Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa

arduraduna Igone Osinaga.

Sailtako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

Publizitatea

Mireia Larrañaga,
Amaia Mundiñano,
Ziortza Martin.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua:

SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura eta
Hizkuntza
Politika Sailak
(Hizkuntza
Politikarako
Sailburuordetzak)
diruz lagundua

BERBAGAI

"Burujabetza energetikoa dator, trantsizioan gaude"

OIER BOLIBAR INGENIARIA

Eneko Azkarate BERGARA

Energia berriztagarriak berbagai izango ditu gaur Oier Bolibarrek Bergaran (Irizar jauregia, 19:00), Zientzia eta Berrikuntza zikloaren barruan.

Energia berriztagarriak badira benetako aukera?

Bai. Gaur egungo datuek hori erakusten dute: egiten ari diren inbertsioak eta munduan ezartzen ari diren energia ahalmen berriak, berriztagarrien alorrean. Iaztik, energia berriztagarrietan gehiago inbertitzen da ohiko energia sektoreetan edo fosiletan baino.

Oztopoak egon izan dira beti energia berriztagarrien aldeko apustu sendoak egiteko.

Zergatik?

Interes handiak daude, energia nuklearraren edo gasaren alorrean dauden enpresak oztopo izan dira. Esaterako, Barack Obama egindako apustuaren aurka agertu da Donald Trump, eta



Oier Bolibar, Bergarako Irizar jauregiaren aurrealdean. GOIENA

atzerapausoa gertatu da, ohiko energia fosilen alde eginez. Mariano Rajoyrekin ere antzeko zerbait gertatu zen. Krisiagatik ohiko enpresa elektrikoek bankuek bezala erortzeko arriskua zutela

ikusitu zenean, haien alde egin zuen. Energia elektrikoaren lobby-ak bultzatuta etorri zen fotovoltaiako moratoria. **Euskal erakundeek energia berriztagarrien aldeko apustua egiten dute?**

Ez. EAEn ziklo konbinatuaren aldeko apustua egin zen. Energia eolikoan inbertitu da, baina oso lurralde txikia da gurea, Nafarroarekin alderatuta, esaterako. Gaur egun, eguzki plakek sortutako energia koka daiteke tokian, esate baterako, industria poligonoetan, eraikinetan, etxeetan, baserrietan... Teilatuetan. Eta ez dago fotovoltaiako poligono handiak egin beharrik.

Ez du inbertsio handirik eskatzen?

Gaur egun ez, eta inbertsioa amortiza daiteke erraz, diru-laguntzarik barik ere. Baserri batean, esaterako. 10.000 euroko inbertsioa nahikoa izan daiteke. Oztopotik jarriko ez duen lege-marko egonkorra beharko litzateke horretarako.

Paradigma aldaketa dator?

Bai, energiaren demokratizazioa. Orain arte, energia banatzaile handien mende izan gara. Fotovoltaiako eta Interneten bidez, norberak bere energia kudeatzea ahalbidetuko du, norberak sortutako energia sarera lotuz. Petrolio enpresa handiak, Total, Repsol... elektrikoetan posizionatzen hasi dira. Burujabetza energetikoaren aldeko trantsizioan gaude.

HAU BE BADOGU!

21. Korrika, gero eta gertuago



Aste honetan aurkeztu dute 2019an egingo den AEK-ko Korrika ekimena, eta baita leloa ere, *Klika*. Gaia *trending topic* izan da, gainera, sare sozialetan:

@AEK_eus: "21. #Korrika, Garestik Gasteiza, apirilaren 4tik 14ra, Klika lelopean!! Klika AEK, Klika Korrika! Edizio honetan Txillardegi omenduko dugu".

@boligorria: "Bazen garaia gure kulturen hain errotua dagoen zerbait eslogan bihurtzeko. Denok klik egitera euskararen alde #Korrika".

Altsasuko elizako kanpai hotsak

Domekan batu ziren Vox eta Ciudadanos alderdietako kideak Altsasun, eta Albert Riverak hitzaldia ematen zuen unean, elizako kanpaiak jo eta su jo zituen norbaitek:

@altsasukogaztetxea: "Gora Altsasuko ezkil antifaxistak!".

@Txoriaaske: "Albert Riveraren diskurtsoa oso interesgarria gaur #Altsasu-n; Din Don Din Don Din Don...".

@rsanturtzi: "Kontzertu bikaina Altsasuko kanpaidorrean, hitzaldiakin batera".

'#Wolframdeuna', arrakastatsua Bergaran

Bergarako Seminarixoan asteazkenean egin zituzten, Wolframdeuna, izenpean umorezko bakarrizketa zientifikoak, "Euskal Herriko zientzialari, zientziatzale eta zientzia-txorroskilero txistagarrien eskutik".

@elhuyaraldizk: "Wolframia, zientzialari eta zientziatzale umoretsuenen lurraldea".

@zientziaeus: "@galoitze-ek dio 187 akats zientifiko aurkitu dituela @NASA-k, Armageddon filman #wolframdeuna".

ITURRI ONETIK

'Goazen 5.0', Elgetako Espaloia kafe antzokira

Goazen 5.0 telebistako saioa azaroaren 16an estreinatuko du ETB1ek. Horrekin batera, bira hasiko dute herririk herri. Debagoiena izango dute lehen geldialdietakoa, gainera; izan ere, abenduaren 2an Azpeitian estreinatu ostean, 6an Elgetako Espaloira helduko da (17:00 eta 19:00) eta 16an Arrasateko Amaia antzokira –sarrerak agortuta daude–. Espaloira, bestalde, Gari eroan nahi dute, aurki estreinatuko duen diskoa aurkeztera. Abenduaren 29rako itxi nahi dute kontzertua.

ALBISTE IZAN ZEN

2006-11-09

'Seussen mundua' musikaren estreinaldia

Bergarako Orfeoia *Seussen mundua* musikala berriro estreinatu zuen 2006ko azaroan Bergarako Udal Pilotalekuan. Izan ere, urtebete lehenago Euskalduna jauregian estreinatu, eta 5.000 lagunek ikusi zuten. Serrano Produktzioek Bergarako Orfeoia egindako enkargua izan zen: Bilboko areto nagusian, familiarekin gozatzeko moduko euskarazko ikuskizuna egitea. Arrakastaz estreinatu ere, Broadwaykoen tankerako musikal garaikidea.



GOIENA

Oniritzia, ospitaleko putzuko etxebizitzetara

Gobernuaren botoekin egin du aurrera, eta aparkaleku-solairu bakarra izango du. Datozen lau urteetarako kale garbiketa Cespari esleitzea ere onartu dute. Bestalde, zinegotzi batek ustez egindako eraso matxistaren kudeaketa salatu du oposizioak

Xabi Gorostidi ARRASATE.

Azaroko osoko bilkurako lehen konpasetan, berriki hil den EH Bilduko zinegotzi Amaia Larrañaga oroitu zuten. Haren eserlekuan lore sorta bat jarri zuten, eta Eneko Barberenak ondorengo hitzak esan zituen hari buruz: "Udalbatza osoaren izenean eskertu nahi dizugu gurekin konpartitu duzun bidea. Zure hutsunea handia da, zure oroitzapen ona bezala".

Ospitale alboko etxebizitzak

Udal Gobernuaren aldeko hamaka botoekin, oniritzia eman zioten, martitzenean, ospitale alboan dagoen putzuan Visesak

egingo duen etxebizitza proiektuari. 2017ko azaroaren 21ean itxi zuten akordioa Udalak eta Visesak. Guztira, 184 etxebizitza egingo dira; 114 lehen fasean -63 salmentarako eta 51 alokairurako- eta 70 bigarrean. Akordio horretan, lurpeko aparkalekuentzako solairu bat egitea jasotzen zen; 199 plazakoa. EH Bilduk alegazioa jarri zion proiektuari, bigarren solairu bat eskatzeko. Ez zen onartua izan eta osoko bilkuran euren jarrera azaldu zuten. Salatzen dutenez, HAPOk "berez" bi solairu egitera behartzen zuen Visesa, baina hark pisu bakarra egitea eskatu dio Udalari, bigarrena egiteak

2.800.000 euroko kostua izango lukeelako.

Anuska Ezkurak azaldu zuen pisu bakarra egiteko erabakia HAPO errespetatuz hartu dutela, aplikazio eremu zabalagoa aintzat hartuz. Aplikazio eremua Visesak egingo duen etxebizitza blokeratuta, eraikin berriak bi solairu eduki beharko lituzke. Baina aplikazio esparrua Zerrajera eremuan aplikatuta, ez dago bi solairu egiteko beharrik, Txaeta kaleko 14, 16 eta 18. zenbakidun eraikinetan 100 aparkaleku daudelako hutsik. Maria Ubarretxena azaldu zuen "ontzat eta beharrezkotzat" jotzen duela bertan aparkaleku gehia-



EAJko eta PSE-EEko gobernukideak aldeko botoa ematen. XABI GOROSTIDI

go egotea, baina hori egitearen kostua ez dutela arrasatearrek soilik hartu behar. Hori egin bitartean etxebizitza proiektua onartzea erabaki dutela esan zuen, "posibilistak" izateko.

Salaketaren mozioa

Eguneko puntu beroenetakoa Irabazik eta Baleikek jarritako mozio batekin heldu zen; Oscar Garcia zinegotzi sozialistak ustez egindako eraso matxista baten salaketaren harira. Salaketa hori artxibatu egin zuen epaileak, hura jarri eta gutxira egindako epaketan, eta Garciak berak jakinarazi zuen salaketa jarri zuen pertsonak -bere emaz-

te ohiak- erretiratu ere egin duela salaketa.

Gertakari hura uztailaren 27an izan zen, eta hiru hilabete geroago jarri dute horrekin lotutako mozioa; ez ustezko eraso salatzeke, euren ustez horrek Udaleko Berdintasun batzordean izan duen "pribilegiozko trataera" salatzeke baizik. Hori dela eta, Berdintasun Saileko buruaren kargu uztea eskatu zuten.

Baleikeko Igor Urizarrek esan zuen informazioa bi hilabete geroago jaso zutela, eta gaia "isilpean mantentzen ahalegintzea" leporatu zion Gobernuari. "Horrelako gertakariak dauden



Laser depilazio eta terapietan eskaintza bereziak

Azaleko orbanen aurkako tratamendua

Fotogaztetzeko 3 saiorekin hidratazio saio 1 OPARI

Sentitu distiratsu!

RPS: 214/15

Erdiko kale 54, behea 20500 Arrasate • 943 79 09 09

www.amagaraestetikazentroa.es • facebook.com/amagara



AMAGARA
Estética Zentroa

Informa
zaitez
konpromiso
barik!

bakoitzean 24 ordutan informazio jasotzen dugu, larrialdizko bilerak egiten ditugu, eta prebentzio neurriak hartzen ditugu. Baina Gobernuak kide bat inplikatu duen kasu honetan ez da horrelako ezer gertatu, eta pribilegiozko tratua eman zaio".

PSE-EEko Oscar Garciak esan zuen "zikina eta tamalgarria" dela artxibatuta dagoen salaketa bat erabiltzea bere "irudia kaltetzeko, eta etekin politikoa ateratzeko". Gehitu zuen gezurra dela informazioa bi hilabete geroago eman zaiela; jakinarazi zuen gertakariaren hurrengo egunean telefonoz jarri zela kontaktuan udalbatza bozeramaile guztiekin.

EAJko Anuska Ezkurak "trikimailutza" jo zuen bi alderdien mozioa, haren helburua "pertsonek bat kaltetzeko" zela irizita. Gaineratu zuen "erantzuna berandu heldu bada" oporrak tarteko zeudelako izan zela.

EH Bilduko Larraitz Trojaolak esan zuen gaia irailean landu bada oposizioak "behin eta berri" eskatu duelako izan dela.

Kale garbiketa zerbitzu berria Cespa-rentzat

Udal Gobernuaren aldeko botoekin onartu zen, eta lau urterako esleipena izango da. PSE-EEko Oscar Garcia: "Orain, langileei Gipuzkoako lan-hitzarmena aplikatuko zaie. Ondorioz, aste bitartean lan egiten duten langileek ez dute asteburuetan lan egingo, eta asteburuetarako hamaika lanpostu berri sortuko dira. Azkenik, arratsaldeko zerbitzua ere izango dugu. Orain arte, 06:00etatik 14:00ak arteko zerbitzua izan dugu; orain, 06:00etatik 20:00etara edukiko dugu". Baleike eta Irabazi abstenitu egin ziren. EH Bilduk aurka botatu zuen, lau urterako denez hurrengo agintaldi osoa baldintzatu egingo duela esanda.

Laugarren erretratu bat bilkura gelan

Urriko osoko bilkuran, Arizmendiarrietaren Lagunak taldekoek haren omenezko erretratu bat udalbatza jartzeko eskaria egin zuten. Azarokoan, EAJk hori babesteko mozioa aurkeztu zuen, eta ika-mika piztu zuen.

EH Bilduk proposamena baztertzeko eskatu zuen, urriko osoko bilkuran aho batez onartu zen ikurren parekidetasunaren harira. Baleikek kritikatu zuen gaia ez dela batzordeetan landu, "nahiz eta Udal Gobernuak oposizioari beti eskatzen dion hori egitea".

Parekidetasun lanketa eta jasotako eskaria "bi gauza ezberdin" direla esan zuen EAJko Ezkurak, eta alkatearen konfiantza botoarekin onartu zen.

OHARRAK

61ekoen kintada

Bilbora joango dira azaroaren 17an. Bertara joateko, 70 euroko diru sarrera egin beharko da kontu honetan, ES7130350001590011167981, hilaren 10a baino lehen.

Pentsiodunak

Astelehenero lege, Herriko Plazan batuko dira 12:30ean, pentsio duinak izateko eskubidea aldarrikatzeko.

Ate irekiak Garaia parke teknologikoan, bihar goizean

Zientzia eta Teknologiaren Astearen baitan, bisita gidatuak eta tailerrak antolatuta dituzte herriarrei begira.

Pertsonek helduek, adibidez, parke teknologian erabiltzen dituzten teknologiak ezagutu ahaliko dituzte –errealitate aragotua, adibidez–, eta, gaztetxoentzako, puzgarriak eta Lego gunea jarriko dituzte.

EUSKARALDIA

Hitzaldia, bertso poteoa eta txapak jasotzeko aukera

Azaroaren 14an, eguaztenean, Jon Maia bertsolaria Arrasatera etorriko da. *Desde Extremadura al bertsolarismo* saioa eskainiko du, Kultureteko Jokin Zaitegi gelan, 18:30ean.

Azaroaren 15ean, bertso poteo interesgarri batek pintxo potea alaituko du. Bertan, Ane Zubizar eta Xabi Igoa arituko dira bertsotan, eta alboan trikitilariak ere izango dituzte. Hitzordua, Irati tabernan, 19:30ean.

Hona hemen izena emateko postuen egutegia: gaur, barikua, Arbolapetan –19:00-21:00–, zapatuan Arimazubín –12:00-14:30–, domekan Iturripen –18:30–. Eguaztenean, Jon Maiaren hitzaldian, egunean, Arbolapetan –19:00-21:00– eta hilaren 16an, barikuan, Herriko Plazan –17:00ak-20:00–.

Gogoratu astelehenetik aurrera txapak jaso ahaliko direla izen emate mahaian, eta BAZen –10:00-13:00 eta 15:00-19:00–.

Diagnosticako pertsonalizatua. Zurrunga egiten dutenentzako eta loaldiko apnea dutenentzako soluzio eroso eta eraginkorra.



Doako
kontsulta eta
azterketa

CLINICA DENTAL
BERGARA



Alaba eta aita, herriko elkarte batean, elkarri erreleboa pasatzen ari direla irudikatzen. XABI GOROSTIDI

Xabi Gorostidi ARRASATE

Duela 83 urte zabaldu zituen ateak Arrasateko elkarte gastronomiko zaharrenak –Danok-Bat–, eta, gaur egun, 24 elkarte daude, guztira, herrian.

1970eko hamarkadan bizi izan zen hazkunde nagusia, tarte hartan hamaika elkarte berri sortu ziren eta; gaur egungoen erdia ia. 1977an, adibidez, bost elkarte berri sortu ziren Arrasaten. Baina erritmo bizi horrek behera egin du urteekin, eta, XXI. mendean, adibidez, elkarte berri bakarrik sortu da: Ziar-Ola, hain zuzen.

Zahartzeko arriskua, errealitate

Aspalditik ez da elkarte berririk sortu, eta kopurua 24ren bueltan egonkortu da. Hala ere, sozietateek gaur egun duten arazo nagusia ez da gehiago edo gutxiago izatea, bazkideen zahartzea eta belaunaldi berrien errelebo falta baizik. Elkarreentako orlak ikustea nahikoa da 20tik 40 urtera bitarteko bazkide gutxi daudela ikusteko.

GOIENAK herriko 24 elkarten datuak jaso ditu bazkideen batez besteko adina jakiteko, eta 50 urtetik gorakoa da, kasu gehienetan. Zehazki, Arrasateko elkarreentako bazkideen batez besteko adina 54,75 urtekoa da. 50 urteko langatik behera dauden bakarrik Garagartzako Lezetxiki –45 urte– eta Ignazio Zuloaga kaleko Alkartu –48 urte– dira. Txanponaren beste aldean daude, ordea, Pablo Urangako

Erreleborik eza, arazo orokor

Arrasateko gastronomia elkarteak zahartzen ari dira aspalditik hona; bazkideen batez besteko adina 54,75ekoa urtekoa da, eta gazteei kosta egiten zaie testigua hartzea. Arazoaz jakitun, belaunaldi berriak erakartzeko neurriak hartu dituzte elkarte gehienek

Karkabal –66 urterekin–, eta San Andres auzokoko Irantsube –60,5 urterekin–.

Adin altuko bazkideak izateak kolokan jartzen du elkarteek orain arte izan duten funtzionamendua, eta baita horien bideragarritasun ekonomikoa ere. Elkarreentan, nahiko ohitura hedatua izan da bazkideek erretiro adina gainditzerakoan ohorezko bazkide bihurtzea, edo pribilegio batzuk izatea. Orokorrean, euren familiako kide bat bazkide sartzen zen; kuota ordainduz eta aurrekoaren bazkide kapitala herentzian hartuz.

GAUR EGUN, 24 ELKARTE DAUDE ARRASATEN, ETA HORIETAN 2.285 BAZKIDE

Aldiz, ohorezko bazkideak elkarretea erabiltzen jarraitzen zuen; kuotarik ordaindu gabe –edo gutxiago ordainduz– eta botorik gabe. Esan beharra dago aspektu horretan kasuistika oso zabala dela elkartearen artean, eta leku batzuetan ohorezko bazkide figura ez dela existitu ere egiten.

Bazkideen batez besteko adinak gora egiteak talde pribilegiatu horretan dagoen bazkide kopurua gero eta handiagoa izatea eragiten du, eta hori ez da ona elkartearen bideragarritasun ekonomikoa erantzut. Batetik, kuotetako diru sarrerek behera egiten dutelako, eta, bestetik, adinean aurrera egiterakoan gutxiago kontsumitzen baita.

Gaztetzeko neurriak

Egoera horren aurrean, asko izan dira arazoa konpontzeko neurriak hartu dituztenak. Ba-

tzen kasuan, bazkide izateko jarri beharreko kapitala murriztearen alde egin dute, jende gaztea erakartzeko. Makatzena elkartearen, adibidez, hasierako kapital hori 600 eurotik 300 euro pasatxora murriztu zuten eta Kasinokoen kasuan, 3.000tik 1.500era.

Beste batzuek, aldiz, seme-alabek edo ilobek bazkide gisa ordezkatzeko aukera jarri dute. Hori da Alkartu elkartearen kasua. Kontsumoen beherakada ikusita hartu zuten neurria, eta kontsumoa handitzea eta

EMAKUMEAK GERO ETA GEHIAGO DIRA; GAUR EGUN, 195 DAUDE, BAZKIDE GUZTIEN %8,53

batez besteko adina jaistea lortu dute.

Herri-gainen kasuan, 2015ean ohorezko bazkide izateko adina bost urte jaitsi zuten: 70etik 65era. Era horretan, bost urte lehenago har zezaketen testigua seme-alabek, eta hiru urteren kabuan batez besteko adina 5 urte murriztu dute: 60tik 55era.

Danok-Bat elkartearen, esaterako, ohorezko bazkide izateko adina bost urte atzeratu zuten: 70etik 75era. Urte gutxiren buruan bazkide asko adin tarte horretan sartuko zirela ikusita hartu zuten erabakia. Baina, era berean, seme-alabek testigua hartzea errazteko, 65 urtetik gorako bazkideek seme-alabak sartu ahal izatea onartu zuten; seme-alabak kuota osorik ordaintzen eta gurasoak, aldiz, kuotaren %75.

Zahartzearen arrazoiak

Agerikoa da elkarteek ez dituztela gaur egungo gazteak lehen bezala erakartzen. Danok-Bat elkartearen Anton Sagastaren ustez, ohitura eta diru kontuek eragiten dute hori. "Nire aita San Isidroko bazkidea zen. Orduan, ez zegoen apenas dirurik, baina lagunekin elkartu eta ardo batzuk edateko modurik onena elkarteak ziren. Lanetik irteten, etxean ogi zati bat hartu, eta elkartera. Orain, gaitasun ekonomikoa handiagoa da, eta tabernak bihurtu dira lagunekin egoteko erdigune. Elkarreentak, orokorrean, bazkari eta afari handiak egiteko erabiltzen dira, eta ez dute lehengo taberna funtzio hori. Eta gaur egungo gazteak ez daude elkarte batean afariak egiteko 2.000 euro inbertitzeko prest".

Gaur egun modan dagoen bizimodu osasuntsua ere aipatzen du arrazoi moduan. "Gaur egun, kirola egitea eta osasuntsu jatea bogan daude. Nire aitari ez zitzaion burutik pasatu ere egingo lan jardunaldi gogor horien ostean korrika egitera joatea. Baina, gaur egun, gazteak gimnasia doaz lan egin ostean".

Emakumeen presentzia

Gastronomia elkarteak gizonezkoen esparru izan dira urte luzez, baina nabarmentzekoa da Arrasateko kasuan emakumezkoek duten presentzia. Ez dago elkarreentako emakume bazkiderik ez duenik. Kasinon daude emakume gehien –28–, eta, proportzioan, Iturripen –%19–.

Arrasateko elkarte gastronomikoak

	Sorrera urtea	Bazkide kopurua	Emakumeak Kopurua	%	Gizonak Kopurua	%	Adina batez beste
DANOK-BAT	1935	110	2	%2	108	%98	55,55
UDALPE	1947	152	5	%3	147	%97	58
KASINO	1949	175	28	%16	147	%84	55
SAN ISIDRO	1952	109	11	%10	98	%90	53
LORAMENDI	1963	102	13	%13	89	%87	60
LEZE-TXIKI	1968	107	12	%11	95	%89	45
URIBARRI	1970	119	7	%6	112	%94	54
HAMAICA-GAZTE	1973	59	4	%7	55	%93	55
LEINTZE	1974	82	7	%9	75	%91	53
ALKARTU	1976	88	10	%11	78	%89	48
MEATZ-ERREKA	1976	110	11	%10	99	%90	55
KARKABAL	1976	56	5	%9	51	%91	66
HERRI GAIN	1977	115	10	%9	105	%91	55
IRANTSUBE	1977	110	3	%2	107	%98	60,5
TORREPE	1977	47	4	%9	43	%91	60
UDALAITZ-AZPI	1977	35	4	%11	31	%89	50
EGIPE	1977	60	1	%2	59	%98	50
SANTA MARINA	1978	78	3	%4	75	%96	50
BIDE-GAIN	1979	72	2	%3	70	%97	53,31
TXALAPARTA	1979	130	9	%7	121	%93	59
ITURRIPE	1981	95	18	%19	77	%81	-
MAKATZENA	1992	108	8	%7	100	%93	56
MONTXON	1999	56	8	%14	48	%86	50
ZIAR-OLA	2003	110	10	%9	100	%91	58

OHARRA: Goiena 24 elkarteekin kontaktuan jarri da, banan-banan, datuak lortzeko. Zerrenda zaharrenetik berrienera dago antolatuta, eta bazkide kopuru barruan ohorezko bazkideak ere badaude.



NIRE USTEZ

MARIXE RUIZ DE AUSTRI

Melius est alter

Esnatu eta dutxara. Ura aurpegian irristatzen zaizun artean egunean egin beharrekoak errepasatzen diharduzu, ezer ez ahazteko. Laztuta dagoen toallarekin lehortu, eta ispiluan pilatu den lurruna kentzen duzu –jakin arren gero kristala garbitu beharko duzula–. Izaren markak eta begi-zulo itzelak dituzu. Ez dituzu akatsak besterik ikusten astelehen goizetan: zure itxuran, metroko ordutegian, gosariko ogi txigortuegian....

Hori gutxi balitz, unibertsitatera iritsi, eta han daude ikaskideak, umore onez eta apain-apain denak. Listoia hain altu jarrita, oraindik txikiago sentitzen zara. Baina ez zara konturatzen itxura hori duenak ere, ez duela guztiz gustuko bere burua ispiluan. Irribarre distiratsuena duenak, bere mamuei aurre egitea saihesten du aurpegi alai horretan babestuz. Egia izango da oraindik pertsonala politikoa dela, eta politikoa pertsonala. Ez ote gara irribarredun pertsona hori, Mediterraneoko nazio horiari begira? Ez ote gara Katalunia gehiegi laudoriatzen ari, gure ispilura begiratzeko momentua ahalik eta gehien atzeratzeko asmoz?



TXOMIN MADINA

Aldaketak, aparkalekuen alde

Zerrajera kalean trafikoa noranzko bakarrekoa izango da; 43 aparkaleku sortuko dira. Musakolan, Juan Bengoan, noranzkoa Elkano kaletik Gipuzkoa etorbidera mugatuko dute. Kalealdea noranzko bakarrekoa izango da – lurraspiko aparkalekuen sarreretan izan ezik– eta 25 aparkaleku berri sortuko dira. Irudian, udal ordezkariak, aldaketen berri ematen.



Hauteskunde prozesua

PARTE HARTU

✓Arrasateko alkategaia aukeratzeko

✓Arrasate Herri Proiektuaren elaborazioan parte hartzeko

✓Arrasateko EH Bilduren ordezkariak aukeratzeko



Eman izena:



elkarrekin.ehbildu.eus



644 29 85 87



arrasate@ehbildu.eus



Bilgunea

Azaroak 12 eta 14

Pablo Uranga 8

10:00etatik 12:00etara



Seber Altuben

Azaroak 13 18:00-20:00

Azaroak 15 18:00-20:00

Arbolapetan

"Debutarena eguneroko lanaren saria da"

IRENE MURUA SASKIBALOI JOKALARIA

16 urte besterik ez du, baina Estatuko Lehen Mailan jokatzeko zer den badaki dagoeneko. Burua lurrean, ikasketak lehenengo gauza direla uste du, hala ere

Jokin Etxebarría GASTEIZ

Bidea pausoz pauso egiten omen da, baina pauso handiak ematen ari da Irene Murua eta 16 urte-rekin Estatuko maila gorenean debuta egin du dagoeneko. Ointxe!-ko harrobian hazia, Espainiako behe mailako selekzioetan ohiko jokalaria, orain, Gasteizen ematen ari da bere ibilbideko pauso berriak.

Dia Liga edo Emakumezkoen Lehen Mailan debuta egiteko aukera eduki duzu. Zer sentitzen da?

Poz ikaragarria, emozioa eta lanean jarraitzeko ilusioa.

Gainera, etxean egin zenuen debuta, Perfumerias Avenida taldearen aurka.

Telebistan ikusten ditudan jokalariai dira. Erreferente bat niretzat, selekzioan jokatzeko duten jokalariai eta denak goi mailakoak. Normalean, lehen postuan ikusten eta ikusiko dugun taldea da eta horrelako aurkari baten kontra jokatzeko zirrara berezia sortzen du. Eta, gainera, bi puntu eta errebote bat eskuratzeko aukera eduki nuen. Oso pozik nago.

Selekzioetako behe mailetan ohikoa zara. Lehen maila debuta... pausoak azkar ematen ari zara. Hori mentalki nola eramaten da?

Debuta egiteko aukera edukitzea eta selekzioetako deialdietan



Irene Murua, Dia Ligako partidu bateko aurkezpenean. IRENE MURUA

egotea eguneroko lanaren sari dira. Lan hori benetan da gogorra, eta, momentu batzuetan, eramateko zaila, baina, sariak badaude, beste aho-zapore batekin eramaten dituzu.

Hiru talderekin entrenatu eta jokatzeko duzu. Gehiegi ez al da?

Gazte mailako jokalaria naiz, Lehen Probintzialeko taldearekin aritzen naiz, normalean, eta lehen taldearekin entrenatzen naiz hainbatetan, eta partiduetara joateko aukera izan dut. Hasiera batean, gehiegi izan zen, baina, gero, entrenamendu

batzuk kendu zizkidaten, guztia hobeto uztartu ahal izateko. Ez baita dena saskibaloia, ikasketekin ere uztartu beharra daukadalako, eta orain, hobeto ari naiz dena batera eramaten.

Izan ere, egunak 24 ordu besterik ez du.

Halaxe da. Ingelesa ere ikasten ari naiz eta garbi daukat lehenengo gauza ikasketak direla. Guztia aurrera ateratzeko moldatu behar dut, eta horretan saiatzen ari gara.

Araskiko bigarren taldean beste arrasatear batekin egin duzu topo:



Araskiko debagoiendarrak. JOKIN ETXEBARRIA

Bost debagoiendar Araskin

Ointxe! Saskibaloit taldeak badarama denbora bat Gasteizko Araski klubarekin elkarlanean. Arrasateko harrobian hazitako jokalariai pausoak ematen ari dira gorantz, eta, hain zuzen ere, bost debagoiendar iritsi dira Lehen Probintzialeko taldean –klubeko bigarren taldea– kointziditza.

Lau dira arrasatearrak, Izar Bedia, Irene Murua, Haizea Apellaniz eta Naia Badiola. Naroa Garai, berriz, oñatiarra da. Bediak urte batzuk daramatza talde horretan eta iaz LF-1en talde nagusiarekin debuta egin zuen. Beste laurak gazte mailako jokalariai dira, baina bigarren taldearekin aritzen dira, juniorrekin ibiltzeaz gain. Gasteizera entrenatzera joan behar izatea eta bi talde eta ikasketak uztartzea gogorra dela aitortzen dute, baina baita ohituta daudela ere. Izan ere, gustuko lekuan, aldaparik ez.

Izar Bedia. Hura ere lehen mailan debuta egindakoa da.

Aurrenekoz lehen taldearekin joan nintzenean, hark bazekien zer zen bigarren eta lehen taldeen dinamikan egotea, eta asko lasaitu ninduen. Lasai jokatu eta egiten dakidana egiteko esan zidan. Laguntza polita izan zen, eta da, oraindik ere.

Hiru talde eta hiru entrenatzaile: Txus Brizuela, Kike Garcia de Garayo eta Made Ureta. Hiru estilo ezberdin.

Madek eta Kikek badute antzekotasuna, zorrotzak dira eta

asko estutzen dute. Kikek, baina, lagunarteko giroa bultzatzen du. Madek lehia dauka aurrean eta ezin dio horri begiratu. Txus, berriz, maisu bat bezala da, ez dakizuna ezagutu dezazun saiatzen da, eta asko ari gara harekin ikasten.

"ENTRENAMENDU BATZUK KENDU DIZKIDATE, DENA HOBETO UZTARTU AHAL IZATEKO"



'Amandre Santa Ines'-en momia bisitatuko dute

Udalak eta AZEk antolatuta, bisita komentatua egingo dute bihar, 11:00etan; Ines Ruiz Otaroren gorpu momifikatua bisitatu eta gorpu momifikatuei buruzko erritoak ezagutzeko aukera egongo da. Kanpatorpeko indusketen berri ere emango dute

Arantzazu Ezkibel Galdos ARRASATE
Ines Ruiz Otarora, *Amandre Santa Ines* izenez ezaguna dena, bisitatzeko aukera egongo da bihar, zapatua. Ondarearen Europako jardunaldien barruan, Arrasateko Udalak eta Arrasate Zientzia Elkartek elkarlanean antolatutako bisita komentatua izango da.

Bisitan parte hartzeko, aurrez eman behar da izena, 943 25 20 20 telefonora deituta edo *kultura@arrasate.eus* helbidera idatzita. Plaza mugatuak izango dira -30-, bai "ikusleei zor zaien errespetuagatik" eta baita "elizak berak dituen mugengatik" ere. Dauden plazak baino jende gehiagok izena emango balu, AZEkoek azaldu dute aurrerago beste bisita bat egingo luketela.

Nor zen 'Amandre Santa Ines'?

Amandre Santa Ines izenez ezagutzen den momia San Juan parrokiaren gordeta dago. XVII. mendean bizi izan zen emakumea zen Ines Ruiz Otarora. Haren aitak kargu inportanteak izan zituen Felipe II.aren gortean, eta senarra ere erregearen grefierra izan zen. Valladoliden bizi izan ziren. XVI. mende amaieran, alargun geratu zen eta 1607an, hura hil zen. Hasiera batean, Valladolideko San Frantzisko komentuan lurperatu zuten. Bere azken nahia, baina, senarraren ondoan deskantsatzea zen; hala, hil eta urte batzuetara, lurpetik atera zuten, Arrasatera ekartzeko asmoarekin. Gorpu momifikatua zegoela konturatu ziren orduan.

Bisita, hiru zatitan

Bisita komentatuak hiru zati izango ditu: Ana Ugaldet parrokiaren ezaugarriak azalduko ditu; Jabier Bengoak Kanpatorpeko indusketen gainean berba egingo du; eta J. Angel Barrutiabengoak *Amandre Santa Ines* nor zen azalduko du.

Rikardo Azkargortak akuarelen gaineko ikastaroa emango du

Arrasate Margo Taldeak antolatuta, eta Bergarako Rikardo Azkargorta margolariaren eskutik, akuarela teknikari buruzko eskola magistrala egingo dute gaur, egubakoitza, Kulturateko areto nagusian; sarrera libre eta doakoa izango da.

18:30ean hasiko dute ikastaroa eta bi ordu iraungo du. Azkargortak akuarela bat margotuko

du eta, bitartean, azalpenak eskainiko ditu. Interesatuak Azkargortaren azalpenak entzuteko aukera izango dute -ez dute margotuko-. Gaurko ikastaroan erabiliko duten gaia Arrasate izango da.

Ikastarora jende asko joanez gero, pantaila bitartez eskainiko dituzte, guztiek ondo entzun eta ikus ditzaten azalpenak; modu horretan, aurreneko ilaran daudenek bakarrik ez, atzerago daudenek ere ondo ikusiko dute Azkargortaren lana.

Azaroaren 9tik 25era



Erreserbatu zure Tripontziak menua!

Jatetxe guztietan botila 1 aukeratu:
Sagardoa, Txakolina edo Arabar Ertzeakako Ardoa
Uha, Kalea eta BEZA barne

28€
* BEZA barne

#DEBABARRENA
www.debabarrenaturismo.com

Eman zure #Tripontziak, esperientziaren berri sare sozialetan eta irabazi sari bikainak!
ANIMATU ETA PARTE HARTU, TRIPONTZIAK

AZITAIN Erretegia - Elbar

- Debabarreneko sasoko barazkien menestra
- Kantauriko bakailhoa piperrarekin
- Eusko Label aspizena garbidoarekin
- Etxeko garta-tarta Mendaroko bokolate urtsarekin

Azitin 6 - T.: 943 12 18 54

BORDATXO Jatetxea - Deba

- Urresandiko onddo Royala sasoko ziza kremarekin
- Amankasiko perloi zopa marinela erara
- Alizola baserriko behi-saltatsa labean erreta
- Panbinela Bordatxo erara Mendaroko bokolatearekin

Zestorokoa plaza 1-2 - T.: 943 02 93 76

BELAUSTEGI Jatetxea - Elgoibar

- Etxeko aperitiboa
- Zaletoke toresola Ondaroko jaraboa eta piperrarekin
- Mutriku txipirok euren linton
- Euskaltzemi aspizunarekin egindako broietak sasoko barazkiekin
- Mendaroko bokolatearekin egindako lingotsa platano moussarekin eta baserriko pikuen izozkarekin

San Miguel gaina, 44 - T.: 943 74 31 02

HOSTAL ITZIAR Jatetxea - Deba

- Doniene baserriko barazkiak berpuzan, Olabe baserriko arrautzeekin
- Olio-petzi, Flysch bokolatearekin egindako moussate merrikearekin
- Bellosoro baserriko Angus behi berrak tipula karamelizatuekin
- Mendaroko bokolate-trufak

Itziar gaina, 2/g - T.: 943 19 90 61

MENDIOLA Jatetxea - Ermua

- Alkorta bakailoa entsalada Debabarreneko barski-eskalibadaren gainean
- Lumagom hostorea Jokin Jaunaren onddo saltsarekin
- Zigoa sesamo zaitakarekin, Sagamiña bokolinez egindako olio erresarekin eta Berano Txiki baserriko aza saltsarekin
- Euskaltzemi saltatsak temperatuta baxuan erreta, Arabako pabazaren gainean
- Mausiba gazta-moussao Mendaroko bokolatearekin eta kakao-crumblearekin

Erdikale 19 - T.: 846 08 00 86

KANALA Jatetxea - Deba

- Etxeko Uzkanga baserriko kalabazarekin egindako krema
- Lasturko Kortaberi baserriko barskiz eta Flyscheko arrainez egindako zopa
- Geoparko legatz-kokotea egur-izarteko bingarrotan erreta
- Eusko Label baraziez betetako piperrak euren zukuarekin eta Uzkanga baserriko tomatez egindako saltsan
- Mendaroko bokolatezko tarta bananaz

Itziar auzoa, 2 - T.: 943 19 90 35

PIKUA Jatetxea - Mutriku

- Kantauriko hegazazaz egindako entsalada
- Geoparko arrainez egindako etxeko zopa
- Kantauriko legatza saltza berdean, arrautza egostarekin eta zainzuriarekin
- Olosoro baserriko entrekola panifilan erreta
- Mendaroko bokolatez egindako brownie txukinarekin

Laranga auzoa 2/g - T.: 943 60 32 42
*Azaroaren 19tik aurrera itxita

URGAIN Jatetxea - Deba

- Onddoz eta Geoparko arrainez egindako krokettek
- Perretxiko-entsalada, epela
- Kantauriko arrain- eta itsaski-krema
- Geoparko legatza edo rapea plantan panadera petzetekin, edo Eusko Label entrekota
- Sagat-hostorea Mendaroko bokolatezko moussarekin

Hendaritza, 5 - T.: 943 19 11 01

LASTURKO taberna - Deba

- Bakailoa entsalada epela eta "olabe baserriko arrautza ekologiko" trillatuz homituko Lasturko Taldea "J.L. Galariko Mokorra bokolei kopaz lagundurik
- Kantauri ibasoko legatz-krera plantan, sasoko eta bertako barski bigundekin "J.L. Galariko Mokorra bokolei kopaz lagundurik
- Bertako sagatnez egindako krema eta onddo perretxikoz osaturiko Euskaltzemi aspizuna
- Mendaroko bokolatez gazturi egindako etxeko sumendi-tarta

San Nikolas Plaza - Lastur - T.: 943 19 90 33










Ikusiz Gozatu elkarte kideetako bi. J.I.

Film emanaldietarako elkarteak sortu dute

Ikusiz Gozatu izena jarri diote, eta izaera soziala duten pelikulak emango dituzte; aurretik ere jardun du taldetxo batek horretan, baina aurrerantzean ikus-entzule klub erara funtzionatuko dute –halaberrez–, eta bazkide egitea beharrezko izango da

Julen Iriondo ARAMAIO

2017an hasi zen lagun taldetxo bat proiektzioak antolatzen; hilean pare bat film eman izan dituzte –doan, eta harrera onarekin–, gai sozialak jasotzen dituztenak, eta musikarekin lotutako zinemaren zikloa eta Lorabarri Astekoak moduko emanaldiak –ekologia ardatz– ere bai.

Zinema zale aramaiorrez osatutako talde honek, baina, elkarte izaera hartu du orain; estatutuak egin eta erregistratu, Ikusiz Gozatu izenarekin. Elkartea erregistratuta, ikus-entzule klub moduko bat sortu dute, eta emanaldietara joateko bazkide izan beharko da; 10 euro izango dira urtean, 18 urtetik gorakoentzako. Emanaldien maiztasuna apur bat handitu eta hilean behin-edo solasaldiak egiteko asmoa dute.

Udalarekin akordioa

Elkarteko kide Alberto Onaindiaren arabera, orain egin nahi duten bestea da Udalarekin

akordioa: "Horrekin, Udalak aretoa utziko liguke emanaldietarako, orain arte bezala, eta diru laguntza eman DVDak erosteko; DVD horiek liburutegian geratuko lirateke gero".

Hain justu, liburutegian bertan egongo dira datozen egunetan Ikusiz Gozatu elkarte bazkide egiteko paperak. Lehen aukera, dena den, bihar –zapatua– bertan izango dute interesdunek; izan ere, elkarteak sortu osteko lehen emanaldia egingo dute, Gorbeialdeko Kuadrillako Berdintasun sailarekin eta Aramaioko Itur-Zuri emakume elkartearekin elkarlanean. *Fatima* izeneko filma emango dute eta, horrekin batera, elkarteari buruzko azalpena ere bai, bertaratzen direnak

BIHAR BERTAN EMANGO DUTE LEHEN FILMA KULTURA ETXEAN, 'FATIMA' IZENBURUDUNA

bazkide egitera animatzearekin batera. 21:00etan izango da, kultura etxean.

Filmari dagokionez –frantziarra da–, arabiar jatorriko musulman etorkina da Fatima, bi alabaren ama: Souad, 15 urteko nerabea, eramaten zaila; eta Nesrine, unibertsitatean hasi den eta mediku izan nahi duen 18 urteko gaztea.

Sentsibilizazioa helburu

Giza eskubideen inguruko sentsibilizazioa da Ikusiz Gozatu elkartearen helburu nagusietakoa. Filmak erabiliko dituzte horretarako, eta baita emanaldi osteko hausnarketa eta eztabaidak, zenbait kasutan.

Sanmelixenak izango dira Gantzagan bi asteburuotan

Bihar, zapatua, meza izango dute, 12:00etan, Aretxabaletako abesbatzarekin –ondoren, kontzertua eskainiko dute–; 13:00etan, bermut dantza; 17:00etan eta 17:30ean, mus eta patata-tortilla txapelketak; 17:30ean, baita ere, umeentzako jolasak eta puzgarria; 19:30ean, tortilla txapelketako sari banaketa eta dastaketa; eta 23:00etan, dantzaldia –ohera joan

aurretik, txokolate beroa–. Domekan, 11:15ean, Arrasate Musikaleko txistulari banda; 12:30ean, txirrindulari igoera; 13:00etan, triki-poteoa; eta, 17:00etan, tute txapelketa.

Hurrengo zapatuan, berriz, kantu bazkaria egingo dute 14:30ean, musikariek lagunduta. Whatsapp bidez eman behar da izena, 669 94 65 94 zenbakian, eguaztena baino lehen.

Hiru egunetan, kanpai errepiketik eta etxafuegoek iragarriko dituzte jaiak.

Euskaraldian izena emateko azken egunak eta formazioa

Biziprest formazio saioa egingo dute martitzenean osoko bilkuren aretoan, 18:30etik 20:00etara. *Ahobizi* eta *belarriprest* izango direnek Euskaraldian nola jokatu jakiteko aholkuak emango dituzte. Udaletxean bertan edo euskara@aramaio.eus helbidean eman daiteke izena. Bestetik, Euskaraldian izena emateko, mahaia egongo da gaur plazan.

Amillena elkartearen bigarren bisitarako izena eman daiteke

Natura interpretazioa helburu duen bisita gidatua izango da bigarrena, eta azaroaren 18an egingo da. 10:30ean irtengo dira Santa Ana ermitatik, eta pare bat orduko ibilaldia egingo dute –Ibarra-Azkoaga-Barajuen-Ibarra–, bideetan komentarioak eginez. Parte hartzeko, izena eman behar da: aramaio.amilena@gmail.com edo 945-44 50 16.

Gaztainak erreta, San Martin bezperako jaia ospatuko dute gaur

Gaur, barikua, 15:00etan hasiko da jaia. Gaztainak erreko dituzte eskolan, guraso elkartekoen laguntzarekin. 18:30ean, berriz, kalejira egingo dute plazaraino, trikitilariekin. 19:30ean, trikitilarien emanaldia eta pintxopotea izango dira plazan, eta, festa amaitzeko, 20:30ean Triki-kalejira elkartearen errifen zozketa egingo dute.

Mendiko segurtasun eta prebentzio ikastaroa, astean

Eguaztenean izango da, 18:00etan, udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Euskal Mendizale Federazioak antolatutakoa da, Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailaren laguntzarekin, eta herri-tarrak mendiko segurtasunari eta prebentzioari buruz informatzea eta gai horietan formatea ditu helburu saioak. Doanekoa izango da.

Autodefentsa feminista ikastaroa, hurrengo asteburuan

Autodefentsa feminista ikastaroa azaroaren 17an eta 18an egingo da, frontoian. Bertan parte hartzeko orduan, lehen-tasuna izango dute 2017an oinarritzko ikastaroa egin zutenek eta Aramaion erroldatuta daudenek. Izena emateko, mezua bidali behar da ondorengo helbide elektronikora: berdintasuna@gorbeialdea.eus.

OHARRAK

Abeltzaintzat deia

Udal mendietako larreak aprobetxatu nahi dituztenek hilaren 11 aurretik egin behar dute eskaria udaletxean.

Errigorako saskiak

Ekonomatuan eska daitezke, aramailurkt@gmail.com helbidean ere bai, eta Whatsapp bidez 688 69 57 63 zenbakira idatzita –edo Errigoraren webgunean–.

"Egindakoaz, oso pozik eta harro; amets bat zen"

OLATZ ALTUNA MENDIZALEA

Gorbeia, Anboto eta Aizkorri kateatzen dituen Hiru Handiak proban –101 km– parte hartu zuen aramaioarretako bat da; ondo amaitu zuen, eta badu itzultzeko asmoa

Julen Iriondo ARAMAIO

Lagun berezi batekin berriz ere proba egiteak "ilusio handia" egingo liokeela dio, urriaren 20an ondoan izan zituenei ere "oso eskertuta". Aspalditik bu-ruan zuen erronka zen.

Ia hiru aste pasa dira probatik. Hark utzitako nekeak-eta dagoeneko gaindituta?

Esan daiteke, gutxi gorabehera, gorputza errekuiperatuta dauka-dala; oraindik ditudana da pare bat behatzetan azazkalak kolpututa, guztiz oneratu gabe, baina, bestela ondo, ondo.

Horretaz eta nekez gain, beraz, ez zizun probak beste ondorio berezirik utzi.

Eduki nuen, apur bat, ezkerreko hankan tendinitisa, hanka gainean, gainkarga, baina dagoeneko ondo dago.

Nola prestatu zinen Hiru Handietarako?

Kilometro asko dira, desnibel handia eta ordu asko geratu gabe ibili beharrekoak; beraz, aurretik asko ibili behar duzu mendian, bai, kilometroak sartu eta desnibela, hankak eta gorputza desnibel horietara ohitzeko; ordu asko eta buelta asko menditik.

Noiz hasi zinen prestatzen?

Iazko irailean-edo hasi nintzen hainbat martxa egiten, asteburuetan. Beste hainbat asteburutan eta astean zehar ere makina bat buelta egin dut menditik, neuk bakarrik edo lagunekin, mutil-lagunarekin...

Eta distantzia horiek nola entrenatzen dira?

Entrenamendu bakarrean ez da distantzia hori egiten. Nik egiten nuen, adibidez, zapatuan erdia inguru egin eta domekan beste 30 kilometro-edo. Eta astean zehar ibiltzen bazara entrenatzen eta asteburuetan ere bai, nekea, esfortzua eta dena pilatzen joaten da.

Zer moduz sentitu zinen probaren egunean?



Olatz Altuna, ezkerrean, mutil-lagunarekin helmugan sartzen. GORKA LARRINAGA

"GORBEIA JAISTEN HASI, GORA BEGIRATU ETA DENA ARGIAK IKUSTEA OSO-OSO POLITA DA"

Orokorrean, oso ondo sentitu nintzen, bai gauez eta bai egunez, fisikoki oso ondo. Eta mentalki ere animoso, eta asko gozatuta. Ia ibilbide osoa hiruzpalau lagunek batera egin genuen, mutil-laguna eta beste pare bat lagunekin, eta jendearekin joateak asko egiten du, batez ere, kilometro batzuetatik aurrera. Landatik aurrera asko eskertzen da norbait edukitzea ondoan fresko dagoena; eolikoak oso errepikakorrek dira, gora eta behera, gora eta behera, eta goian errotak, mentalki gogorra da, eta gorputza ere igartzen duzu, gainera, ez dagoela hasieran moduan. Mutil-lagunak, batez ere, asko lagundu zidan, mentalki, fisikoki eta elikadura aldetik; kirolarekin lotutako ikasketak ditu, eta asko lagundu zidan.

Eguraldia?

Ona; gauez, tenperatura ona. Gorbeian, bai, haize handia zebilen goian, baina berehala jaisten zaren... Baina gero, behe lainoa eduki genuen; orduan, izan zen lehenengo gauez, eta, gero, Urbiara arte behe lainotan. Orduan, tenperatura ona, baina ezin inguruak ikusi.

Nolako sentsazioa da gauarena?

Ibilita nengoen pare bat aldiz, nahiz eta ez gau osoa. Gustura, jende pila duzu inguruan, argiekin, oso-oso polita eta hun-kigarria da; adibidez, Gorbeia jaisten hasi, gora begiratu eta dena argiak ikustea.

Animoak izan zenituzten?

Bai, bai, bai, hasieratik bukarara arte. Eta hori asko eskertu behar diet bidean animatzen eta laguntzen egon ziren denei; Kruzetan, adibidez, salda eta tortilla apur bat ekarri ziguten etxeok, eta asko eskertzen da. Eta eguna iritsi arte nigan sinistu duten denei ere eskerrak eman behar dizkiet.

Egindakoarekin, pozik.

Oso pozik eta harro nago egin-dakoarekin. Amets bat zen niretzat, eta lortu dut; nire helburua bukatzea zen, eta lortu dut. Oso-oso pozik.



Duela bi aste jokutako finalerdietako partidu bat. IMANOL SORIANO

Etxeko hiru bikote San Martin txapelketako finaletan, bihar

Txapela irabazteko aukera dute Herrarte-Errastik, Sanz-Arriolabengoak eta Olaizola-Del Campok

Julen Iriondo ARAMAIO

Benjamin B-tik hasi eta Kadete A mailaraino, zortzi izango dira San Martin txapelketa amaitzeko jokatu diren finalak –bihar, zapatua, 17:00etan; ordubete atzeratu da–; azken hiruetan izango dira aramaioarrak.

Infantil A mailan, Herrarte eta Errasti aramaioarrek Legutioko De Toro eta Cariñanos izango dituzte kontrario. Txapelketan jokatu dute aurretik ere elkarren kontra, eta 18-17 irabazi zuten Aramaioek. Final estua aurreikus daiteke, beraz. Legutiokoe kolpe han-

diagoa dute, baina hutsak ere gehiago egin ohi dituzte.

Kadete B mailan, Lakuako Torres eta Alava izango dira Sanzen eta Arriolabengoaren aurkariak. Hauek ere ez dira elkarren kontra jokatu zaharrak, Probintzial txapelketan, eta aramaioarrek galdu egin zuten, 18-15. Torresek bolea ona du, eta Alaba segurua da atzean.

Pronostiko argiagoa duena Kadete A mailako finala da. Olaizolak eta Del Campok ligaxkan ere jokatu zuten Estibalezen eta Antiaren kontra, eta erraz irabazi zieten.



NIRE USTEZ

MARIA IZAGA

Sator bibliofiloak

24 urte ditut. Orain dela lau bat urte arbela edota partiturak ikustea kostatzen zitzaidala konturatu nintzen eta okulistarengana joatea erabaki nuen. Honen arabera, ikusmena nekatua neukan. Astigmatismoa eta miopia ere baditut, bai, baina gehien harritu ninduen, bere momentuan, ikusmen nekatuarena izan zen, edo hobeto esanda, okulistik bere diagnostikoaren ondoren emandako arrazoia izan zen: "Zu txikitatik ezkutuan irakurtzen ibili zaren horietako zara, ezta? Gelan, argi gutxiarekin, ziurrenik".

Une horretan, nire bizitzako sekretuetako bat aireratzen zuela iruditut zitzaidan, aireratu eta baita aurpegiratu ere. Bai, argi gutxiarekin, ordu txikitan eta gurasoez ezer jakin gabe irakurtzen nuen, nahiko bibliofiloa naiz. Okulistaren hitzek pentsatzera eramane ninduten: *Zenbat gaztek izango ote dute ikusmena nekatuta?* Ez noa esatera gaurko umeek ez dutela irakurtzen eta pantailek izorratzen dizkietela eta *blablabla*. Ez, sator bibliofiloen bila nabil. Zer den bibliofilo bat? Irakurri eta asmatu.

"Beste formula batzuk behar dira politikarako"

LUIS MARIANO GOMEZ ZINEGOTZIA

Irabaziko zinegotzia izan da azken hiru urteotan, baina urriko osoko bilkuran iragarri zuen alderdia utzi eta inongo talderi lotu barik jarraituko duela lanean

Mirari Altube ARETXABALETA

Irabaziko zinegotzi izan da azken hiru urteotan, baina urriaren 30ean egindako osoko bilkuran iragarri zuen hori utzi eta inongo alderditan sartu barik jarraituko duela lanean Udalean.

Ez zenuen esperientziarik udal jardunean, sartu zinenean; zelako esperientzia izaten dabil?

Ona; beti daude argi-ilunak, baina benetan aberasgarria da. Zinegotzi ardura hartu nuenean baino hobeto ezagutzen ditut orain bai herria, bai herritarrak. Hain zuzen, horregatik, lagun gehiago animatuko nituzke herriko kontuetan inplikatzera eta erakundeetan parte hartzera, guztiok garelako beharrezkoak gizarte anitzagoa osatzeko.

Zergatik erabaki duzu alderdia uztea?

Aspalditxoan nerabilen buruan erabakia; orain dela hilabete batzuk jakinarazi nion militante nintzen alderdiari, Ezker Anitzari, zinegotzi jardunarekin zer egin erabaki zezan. Interes handirik ez zutenez erakutsi, bukaera arte jarraitzea erabaki dut, hartutako konpromisoagatik eta botoa eman ziguten horientatik. Arrazoiak? Konturatu naiz alderdi guztiek denbora luzeegia daramatela politika egiten, eta nork bere botere zatia duela eta gauzak beste era batera egiteko eta aldatzen hasteko asmorik ez dagoela. Nire iritziz, herritarrek erantzukizun gehiago hartu beharko lituzkete, eta egoera hau aztertu, guztion artean beste formula batzuk bilatzeko aldaketara bidean. Hor daude herritarren kandidaturak, Bartzelonan Colau eta Madrilen Carmena, esaterako, alderdien sigla barik herritar ekimenekin lanean.

Hurrengo udal hauteskundeetarako zein asmo duzu?

Gura izanez gero Irabazi alderdiarekin errepikatu ahal izango nukeen, baina, esandako moduan, erabakita daukat ez dela hala izango. Era berean, beste aukera



Luis Mariano Gomez, urriaren 30eko osoko bilkura egin ostean. MIRARI ALTUBE

"UDAL GOBERNU BATZORDEAN ORDEZKARI GUZTIOK EGOTEA ERABAKIRIK ONENETAKOA IZAN DA"

edo talde batzuk gerturatu zaizkit esanaz euren ateak zabalik ditudala. Oraindik badago denbora; hortaz, erabakia 2019ko lehen hilabeteetan hartuko dut. **Udalan ordezkariak izateko alderdi guztietako kideak zaudete Gobernu Batzordean; ez da ohikoa...**

Hori izan da erabakirik onenetakoa, benetan asmatu da horrekin. Lehen eskutik jasotzen dugu informazioa, eta, era berean, guztiok dugu aukera iritzia emateko. Gero, erabakia Gobernu dagoenarena da, baina guztioi entzuteko eta guztioi azalpenak emateko duen jarrera horrek adierazten du negoziatzeko duen aldarria; nire iritziz, positiboa.

Zerk bete zaitu gehien agintaldian?

Udal jardunean hasi eta laster, aho batez onartu genuen Aretxabaleta etxegabetzerik gabeko herri izendatzea. Bestetik, behin eta berriro eskatu ostean, par-

taidetza ordenantza onartu zen. 2018an, oster, nire aletxoak jarri nuen emakumeek Martxoaren 8an egin zuten mobilizaziorako, egun batzuk aurretik zalantza zegoelako lanuztea deitzea.

Zerbait lortu ez izanaren penarik?

Etxegabetzerik gabeko herri izendatu eta urte eta erdira halako prozesu bat jarri zen abian, eta ez zen bukatu guk gura genuen moduan. Partaidetza ordenantzari ez zaio erabilerarik eman, hartutako lanarekin eta gastuarekin. Eta emakumeen aldarrikapenak ere pankarta hutsean geratu dira, benetako aukerarik eman barik horiei.

Aurtengo aurrekontua?

Beti esan dudana lez, herriaren diruaren %95 aurretik dago zehaztuta, hemen eta leku guztietan; hau da, gastu finkoak dira. %5, oster, ezustekoetarako izango da, eta kiroldegia aurreko futbol zelairako. Eta ez dago askoz gehiagorik.

Besterik esan gura zenuke?

Hector Prieto zinegotziarekin akordatu gura dut, agintaldi erdian utzi gintuena; elkarrekin egon ginen batzordeetan, zintotasunaren eta lanerako gaitasunaren eredu izan zen.



Udalbatzako kideak Euskaraldiari babesa adierazten. M.A.

Tasa gehienak %2,1 igoko dituzte eta zaborra, berriz, %5

2019ko ordenantza fiskaletan aldaketak onartu zituen udalbatzak urrian egindako ezohiko osoko bilkuran

M.A. ARETXABALETA

Ezohiko eta premia osoko bilkura deitu zuen urriaren 30erako Udal Gobernuak, besteak beste, 2019ko ordenantza fiskaletan aldaketak onartzeko. Hori hasi aurretik, Euskaraldiari babesa erakusteko tartetxo bat hartu zuten udalbatzako kideek.

Hobariak familia ugariendako

Iraileko KPIari dagokion %2,1 igoko dira tasak, orokorrean, 2019an; besteak beste, ibilgailuena, urarena, kiroldegiko abonak eta haur eskolakoak. Zaborra, oster, %5 igoko dute, horren "kostua estaltzeko" helburuarekin.

Familia ugarien kasuan, hoberi batzuk onartu zituzten, Hirukide elkarteak egindako hainbat eskaerari kasu eginda. Horiek aplikatuko dituzte familiak duen errentaren arabera. Horrela, IBIaren kasuan, hoba-

ria %90 izan daiteke errenta txikia duten familia ugarietaz; ibilgailuen kasuan, hoberi %40; eta obra instalazio eta eraikinen gaineko zergan ere hoberi %90 izan daiteke. Kasuz kasu aztertuko dira horiek.

EH Bilduk babestu egin zuen Udal Gobernuaren proposamena: "Hainbat hobari planteatu ditu eta guk horiek ordenatu egin ditugu. Era berean, merkatariekin konpromisoa hartu dugu irekiera kostuak jaisteko, eta hutsik dauden baserrietan obrak egiteko hobariak proposatu ditugu".

Nerabeekin lanean

Eskoriatzako Udalarekin hitzarmena sinatzea ere onartu zuten, nerabeen gaineko ikerketa bat egiteko. Ikerketa hori Farapi kooperatiba dabil egiten eskolen bitartez, eta ikasturtearekin batera bukatuko dute.

**Mobiliario
ARENZA**

**ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA**

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Jou Díaz
Harakina

Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

Sarea ondo erabiltzeko egitasmoa abian da

'Like! Zibereskubideak!' egitasmoa 9 eta 17 urte bitartekoei zuzenduta dago. Adingabeek berdintasunean oinarritutako bizikidetzarako balioak izan ditzaten, sarean dituzten eskubide eta betebeharren gainean sentsibilizatzea da asmoa

Imanol Beloki ARETXABALETA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria Zuzendaritzak lurraldeko haur, nerabe eta gazteen artean sarean adingabeek dituzten eskubide eta betebeharren gainean sentsibilizatze kanpaina bat da *Like! Zibereskubideak!* Hori horrela, Aretxabaletako Udalak, Kurtzebarri eta Arizmendi ikastetxeekin, gaztelekuarekin, kale hezitzaileekin eta Guraso Foroarekin elkarlanean, egitasmoarekin bat egin dute, eta, horretarako, azaroaren 20an izango den Haurren eta Nerabeen Nazioarteko Egunaren bueltan, ekintza sorta antolatu dute.

Sarekoak arriskuak prebenituz

Egitarrak guraso zein gaztetxoei zuzendutako ekintzak jasotzen ditu. Sareko arrisku-egoeren inguruko hausnarketa egin eta erabilera ona sustatzea da ekimenaren helburua. Horrekin batera, hainbat material eta dinamikaren bitartez, egun erabiltzen diren aplikazio eta tresna desberdinen inguruko hausnarketa bultzatuko da. Sareko eta IKTen erabilera txarra baztertu eta erabilera ona egiteko.

Maidar Etxaniz Gazteria teknikariaren esanetan: "Sarean harreman onak bultzatzeko egitasmoarekin bat egin dugu, eta, nerabeei zuzenduta dagoen arren, gurasoentzat ere izango dira ekintzak. Talde bakoitzari eskaintza bat egingo diogu. Gurasoei zuzenduta: bideo jolasak online, mugikorrekin hainbeste ordu pasatzea eta horrek sortzen dituen kezkak... horietaz aritzeko, aholkulari bat ekarriko dugu. *Ziberbullying*-az hitz egiteko beste hitzaldi bat izango dugu. Bestalde, nerabeei, sarean eskubide batzuk dituzten arren, harremanetan eta errespetuan oinarritutako betebeharrak batzuk dituztela ere adierazi nahi diegu".



Like! Zibereskubideak! ekimeneko antolatzaileak. MIRARI ALTUBE

Egitarrak

Azaroaren 20an Haurren eta Nerabeen Eskubideen Nazioarteko Eguna dela aprobetxatuz, *Like! Zibereskubideak!* ekimenaren barruan hainbat ekintza antolatu dituzte Aretxabaletan.

Gurasoei zuzendutako ekintzak

• Haurrak eta bideo jolasak: *teknodikzioak*

Azaroaren 15ean, 18:00etan, osoko bilkuren aretoan. Cristina Isasi psikologoa izango da hizlaria, eta gaztekeraz izango da.

• *Ziberbullying-a* Azaroaren 16an, 18:00etan, osoko bilkuren aretoan. Pantallas Amigas-eko kideek eskainiko dute, euskaraz.

Nerabeei zuzendutako ekintzak

• *Zibereskubideak* ekintzak

Azaroaren 16an, 17an eta 18an, 18:00etatik aurrera, gaztelekuan, 12 eta 16 urte arteko gaztetxoentzat.

Azaroaren 23an, *Like! Zibereskubideak* jaia

• Ipuin kontaketa

Nire aita online dago ipuin kontaketa eskainiko du Lor Kortak, Algara ludotekan, 17:00etan. LH2ko eta LH3ko haurrei zuzenduta egongo da.

• *Scratch* programazio ikastaroa

Kode eskolak Arkupen emango duen ikastaroa 17:00etatik 18:30era bitartekoa izango da. 9-12 urte bitarteko haurrei zuzenduta egongo da, era bakoitzak bere ordenagailua eraman beharko du. Izena emateko azken eguna, berriaz, azaroaren 22a izango da; Arkupen egin beharko da.

• 18:00etatik aurrera

Dja eta musika elektronikoa, txapa tailerra eta murala egingo dituzte plazan.



Ion Albizu, hainbat herritarrek babestuta. EKAITZ FILARMENDI

Ion Albizu da EH Bilduren Aretxabaletako alkategaia

Nafarra da Albizu, Iguzkitzakoa; Industria Delineazioa ikasitakoa, baina gero, arlo sozialera salto egindakoa

Mirari Altube ARETXABALETA

Eguazten iluntzean aurkeztu zuen alkategaia Aretxabaletako EH Bilduk: Ion Albizu Gonzalez. Azken agintaldian zinegotzi jardunean dihardu, eta lanerako gogotsu agertu da, babesa agertu dioten hainbat herritarren aurrean.

Prozesu "zabal eta parte-hartzaile" baten ostean hautatu dute Albizu alkategai. "Hainbat aretxabaletarren izenak jarri dira mahai gainean, guztiak izen egoikiak; eta azpimarratu behar dugu jendeak erakutsitako prestutasuna eta jarrera ikaragarri ona", adierazi du Inaxio Garrok, EH Bilduren hauteskunde batzordeko kideetako batek, eta pozik agertu da prozesuarekin eta horren emaitzarekin, "ekarpen asko" jaso dituztelako. Gaineratu du esperientzia eta eskarmentua duen pertsona bat gura zutela alkategai izateko: "Gure herriko beharrak,

premiak eta hobetzekoak ezagutzen dituen pertsona bat izan dugu buruan une oro, esperientzia eta eskarmentua daukana, fidagarritasuna eta zintotasuna erakusten duena eta transmititzen duena". Hala, esan du aho batez adostu dutela ezaugarri horiek betetzen dituen zerrendaburu proposena: "Eta erronka handi honi heltzeko adorea eta gaitasuna duena".

Herriaren hobekuntza

Aretxabaleta herri aberatsa dela dio Albizuk, baliabide ugari dituen: naturan, industrian, hezkuntzan, kirolean... Eta, aldi berean, gizarte aurrerakoa: "Printzipio sendoak ditugulako, gizarte tolerantia garelako, parte hartzaileak garelako, sortzaileak, errealitatea kuestionatzen dugulako". Aurrera egiteko balio horietan oinarritu behar dela gaineratu du.

Ezkutuko Altxorak: Galartzak elizara eta dorretxera bisita

Ignaziotar Lurraldearen programaren barruan, Debagoieneko Ezkutuko Altxorak ezagutzeko aukera izango da azaroan. Hori horrela, domekan, Aretxabaletako Galartzako eliza eta dorretxea bisitatuko dute. Aitor Antxiak gidatuta, 11:00etan hasiko da, Galartzako Santa Lutzia parrokiari. Izen-emateak Arkupen egin beharko dira.

Familientzat irteera: Tellamendi mendira igoera

Guraso Foroak eta Murruxiko mendi elkarteak antolatuta, domekan, Tellamendi irteera egingo dute. 09:00etan batuko dira, plazan, eta hainbat ohar jakinarazi dituzte joan nahi dutenentzat: autoa beharrezkoa izango da, haurrak ezingo dira bakarrik joan, ez dago izenik eman beharrik, eta bazkaltzeko etxera bueltatuko dira.



Jaiki elkarteko hainbat kide dantzan, ekitaldi batean. EKAITZ FILARMENDI

Hamabost urte dantzan eta mugimenduan

Jaiki elkarte urteurren borobilerira iritsi da eta hori ospatzeko hainbat ekitaldi egingo ditu azaroan; gaur, erakusketa zabalduko dute Arkupe kultura etxean; hilaren 16an, Contakids saioa izango da; eta 30ean, musika eta bat-bateko dantza saioa

Goiena komunitatea

Jaiki elkarte / ARETXABALETA

Mugimendu, dantza eta gorputz adierazpenaren bidez taldeko zein norbanakoaren garapena erraztu nahi duen elkarte da Jaiki. Eta hamabost urteko ibilbide honetan musika, jolas eta gorputz adierazpenarekin lotutako makinatxo bat topaketa, ikastaro, dantza aste eta ekintza

egin dugu. Horregatik, orain, ospatzeko unea iritsi zaigu!

Hutsunea betetzeko sortua

Jaikiren aurrekaria Gozatu Eki-mena taldea izan zen, 2003an sortua. Garai hartan Aretxabaleta eta inguruetan euskal dantzez gain ez zegoen bestelako dantzarik ikasteko aukera handirik, eta, gainera, geure burua

jolasen bitartez lantzeko gogotsu geunden. Hala, Aretxabaletako dantza eta jostalari amorratu batzuk ikastaroak antolatzen hasi ginen; hasiera batean, autogestionatuak, eta geroago, Udalak diruz lagundutakoak, dagoeneko Jaiki elkartearen izenpean.

Hala, hamabost urte daramatzagu herriko kultur programa

sustatzen eta osatzen. Aretxabaletan ez ezik, bailara osoan dantza garaikide eta bat-bateko arte eszenikoen presentzia barrenetako gara, eta gero eta herriar gehiago ari dira hurbiltzen arlo honen inguruan antolatzen ditugun ekintzetara. Eta arrazoa da gurean eta Debagoienean arlo honek duen hutsunea.

Talde irekia, lanerako gogotsu

Momentu politoan dago orain Jaiki, bospasei laguneko talde eragilea daukagu eta asteroko ikastaroan hamabi lagun gabil-tza. Dantza garaikide eta sortzailea ezagutu eta sakontzearen inguruan ekimen ezberdinak ditugu buruan. Badugu dagoeneko partaide talde bat, dantzarako prest, lanarekin konprometitu eta ikasitakoa taularatu edo kaleratzeko gogotsu. Hau aprobetxatuaz prestakuntza eta irakasle ezberdinekin teknika berrietan sakontzearen proiektua dugu esku artean.

Aurtengo ikasturtea dagoeneko hasi dugu, eta asteroko dantza bat-bateko konposizio eskolak martxa onean doaz, taldea osatuta eta ikasteko prest. Gure taldea oso jatorra eta irekia da eta ikastaro, tailer eta ekitaldi guztiak irekiak izaten dira. Ekintza gehienak gure kabuz antolatu izan ditugu, baina badaude ekintza batzuk beste talde batzuekin elkarlanean egindakoak: ludoteka, Basotxo erretiratuaren elkarte, Aretxarte merkatariaren elkarte, Kukumiku, Emakume taldea, Aretxabaletako Abesbata, Loramendi....

Udalak ematen digun laguntza eskertzeko ikastaroetan landutakoa plazaratu nahi izaten dugu urtero. Inguruotan ez dago ekitaldi mota hau ikusteko ohitu-

rarik eta dantza ekitaldi haue-tara gerturatu izan diren ikusleek denetik esan izan digute: arraroa dela batzuek, hunkigarria besteek... Argi dago inor ez dela *indiferente* gelditzen. Eta hori da guk gura duguna, ikusgarri egitea mugitzeko eta adierazteko beste bide batzuk.

Urteurrenako ekitaldiak

Gaur, ostirala, Arkupen jarri dugun argazki erakusketaren irekiera ekitaldiarekin hasiko gara ospatzen urteurrena. Egin dugun ibilbidea azalduko dugu paperezko argazki, bideo muntaia eta ekitaldietan erabilitako elementuekin baliatuta. 20 edo 25 lagun elkartuko gara erakusketak irekitzeko aitzakiarekin, eta ederra izango da topaketa! Horrez gain, beste bi ekintza ere egingo ditugu hilabetearen zehar.

Ekitaldien egitaraua

Azaroak 9-30

Erakusketa: argazkiak, bideo muntaiak...

Azaroak 16

• **18:00** Contakids saioa; gurasoek eta haurrek jolas eta dantzan egiteko espazioa. Izena aurrez eman behar da (Zigor: 688 84 37 01).

Azaroak 30

• **19:00** Musika eta dantza bat-bateko saioa Eñaut Zubizarretarekin.

Oharra: Ekintzak Arkupen dira; debalde.

EUSKARALDIA

'Belarriprest' eta 'ahobizi' txapak iritsi dira Loramendira

Astelehen eta eguaztenetan goizez eta arratsaldeaz jaso daitezke eta gainerako egunetan, goizez bakarrik


M.A. ARETXABALETA

Dagoeneko iritsi dira Loramendira azaroaren 23tik abenduaren 3a bitartean paparrean erabiliko diren txapak. Horiek jasotzeko

ordutegia zehaztu dute: astelehenetan eta eguaztenetan, 09:00-12:00 eta 16:00-19:00 eta martitzen, eguen eta egubakoitzetan, goizez bakarrik (09:00-14:00).

Izen-ematea zabalik dago

Euskaraldiarekin bat egin duten aretxabaletarrak dagoeneko 765 dira; horietatik 104 *belarriprest*-ak eta 661 *ahobizi*-ak. Baina gehiago izan daitezke, izena emateko epea zabalik dago eta. Horretarako, Euskaraldiaren webgunera jo daitezke, edo herriko honako gune hauetara: Loramendi, Arkupe, kiroldegia, euskaltegia eta udaletxea. "Euskara indartzeko aukera paregabea da, ez galdu zure aukera!".



Txapak, jasotzeko gertu. LORAMENDI

OHARRAK

Gurasoentzako bilera

Gaztelekuaren proiektua, lokala eta hezitzaileak ezagutzeko aukera dute DBHko 1. eta 2. mailetakoa nerabeen gurasoek azaroaren 14an (19:30), gaztelekuan.

Egibarren emanaldia

Joseba Egibar argazkilariak *Pinceladas de Brasil* dokumentala eskainiko du hilaren 13an (19:00), Arkupen.



Herriarren ekarpenak jasotzen, 2015ean Huhezi Unibertsitatean Udal Gobernuak egindako hiri-berritze bileran. IMANOL BELOKI

'Eskoriatzak merezi du' kanpaina martxan dago

Eskoriatzarren beharrak ezagutzeko bi bilera ireki izango dira: bata, azaroaren 12an, 19:00etan, Huhezín, eta bestea, azaroaren 14an, Ibarraundi museoan, 19:00etan. Horiez gain, elizate bakoitzerako bilera egutegia ere ezarri du Eskoriatzako Udalak

Imanol Beloki ESKORIATZA

Zazpi hilabete eskas geratzen dira agintaldia amaitzeko, eta datozen hauteskundeetarako prestatzen ari dira Eskoriatzako udal taldeak. Uztailako osoko bilkuran, EH Bilduko Aitor Zubizarreta bozeramaileak galde-tu zuen ea herri bilerarik egingo den aurrekontuei begira, eta Udal Gobernuak kideek baietz erantzun zuten; pasa den urtetan moduan, *Eskoriatzak merezi du* lelopean herri bilerak deituko zituztela adierazi zuten. Hori horrela, ekimena hastera doa, eta herri bilera ezberdinak izango dira. Batetik, bi bilera ireki egongo dira: bata, azaroaren 12an, Huhezín, eta bestea, azaroaren 14an, Ibarraundi museoan. Horrez gain, elizateetako bizilagunekin ere izango dira.

Herriarren ekarpenak jasotzeko helburuarekin, 2015ean hiri-berritze plana abiatu zuen Udal Gobernuak, eta urtero egin ohi ditu herri bilera irekiak. Aurten, ordea, beste pauso bat

eman nahi dute, eta, entzute aktibo hori alde batera utzi gabe, herriarren aktibazioa bilatu nahi da. Horretarako, *Eskoriatzak merezi du* ekimena abiatuko dute, herriarren beharrak entzuteaz batera, ekimen horren berri ere emateko herri bilerak antolatuz. Honela adierazi du Joserra Zubizarreta alkateak: "Entzute aktiboan jarraitu nahi dugu, argi baitago eskoriatzarrak direla herria eta bere beharrak hobekien ezagutzen dituztenak. Baina hemendik aurrera, beste pauso bat eman nahi dugu. Eskoriatzarrok, gure jarrerarekin, gure herriaren egunerokotasunean eragiteko daukagun ahalmena bistarazi nahi dugulako. Hala, guztion artean, Eskoriatza

HERRITARREN AKTIBAZIOAN BESTE PAUSO BAT EMATEKO HELBURUA IZANGO DUTE HERRI BILEREK

hobea egiteko, guztiok harro sentiaraziko gaituen Eskoriatza eraikitzeke, hain zuzen ere".

Bilera egunak, zehaztuta

Lehenengo bilera Huhezi fakultatean izango da, azaroaren 12an, astelehena, 19:00etan, eta bigarren bilera, berri, Ibarraundi museoan izango da azaroaren 14an, 19:00etan. Bi herri bilera horiez gain, elizateetako bizilagunentzat ere antolatu dute bilera egutegia: azaroaren 19an, 18:00etan, Marinen eta 19:30ean, Zarimutzen. Azaroaren 20an, Leten, 19:30ean, eta azaroaren 21ean, Apotzagan 18:00etan, eta Maznelan, 19:30ean. Azaroaren 22an, 19:00etan, Mendiolan, eta abenduaren 4an, 18:00etan, Bolibarren, eta 19:30ean, Gellao auzoan.

Gonbidapena herriar guztiei

Hori horrela, Eskoriatzako Udalak eskoriatzar guztiak gonbidatu nahi ditu herri bilera horietan parte hartzera, Eskoriatza hobea eraikitzeke asmoz.

Argindarraren fakturari buruzko saio praktikoak Ibarraundin

Azaroaren 12an, astelehenean, 18:30ean izango den 'Gipuzkoa argitu' tailerrak ordubete iraungo du

I.B ESKORIATZA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen eta Obra Hidraulikoetako Departamentuak etxetako, enpresetako eta elkarteetako elektrizitatearen kontsumoak aztertu, ulertu eta horien jarraipena egiteko saio praktikoak antolatu ditu, argindarraren kontsumoa murrizteko asmoz.

Gure egunerokoan erabaki egokiak hartzeko ezinbestekoa da, lehenik, informazio egokia eta ulergarria esku artean izatea. Hori jakinda, Eskoriatzako Uda-

lak *Gipuzkoa argitu* izeneko tailerretan parte hartzera animatu nahi ditu herritarrek eta udalerriko gizarte eta ekonomia eragileak.

Argindarraren fakturari buruzko tailerra azaroaren 12an izango da, Ibarraundi museoan, 18:30ean, eta ordubete iraungo du. Antolatzaileek gaineratu dute beharrezkoa dela aldeztu aurretik izena ematea. Horretarako, oihane@izadi21.eus helbidera mezu bat idatzi edo 686 42 75 65 telefono zenbakira deitu beharko da.

GORA ETA BEHERA



PATRICIA RUIZ

Zikinkeria ugari Santa Anako pasabidean



Eremu horretako zikinkeria salatu du herritar batek sare sozialen bidez. Erreka bazterra ere oso zikin dagoela gaineratu du, eta bertan izaten diren gazteei gizalegez jokatzeko eskatu die.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo ☎ 688 69 00 07.



"Krudelkeria handiak izan ziren gerran"

IÑAKI LIZUNDIA ATXORROTX KULTURA ELKARTEKO KIDEA

Gaur, bereziki, Eskoriatzako Benito Reola Hermosilla eta Aretxabaletako Felix Alberdi, eta gudarien omenez ekitaldia izango da Memoria Egunaren bueltan

Imanol Beloki ESKORIATZA

Azaroaren 10ean ospatzen den Memoria Egunaren ildotik, Atxorrotx Kultur Elkartek eta Ahaztuak 1936-1977 memoria historikoaren alde lan egiten duen elkartek memoria ekitaldi xume bat egingo dute elkarrekin. Protagonismo berezia izango du Benito Reola Hermosilla izeneko militar errepublikanoak. **Memoriaren eguna 1936an hasitako Espainiako gerrarekin lotu duzue Eskoriatzan. Zer bizi izan zen garai hartan herrian?**

Herrian Francoren aldekoak egon arren, okupazio militar bat bizi izan zuen. Gerra heldu zen, eta Eskoriatza eta Aretxabaleta hartzeko borroka izan zen. Krudelkeria zantzu handiak, eta erresistentzia ere handia izan zen. Apotzaga erori zenean, bere burua entregatu zuten miliziano errepublikanoak zuzenean fusilatuak izan ziren. Gaur egun, Almenera igotzeko zubia dagoen tokian, zauritu bat ospitalera eramaten ari zirenean, fusilatu egin zuten... Gainera, Eskoriatzan, hildako gehiago daude fusilamentuz gerrako frontean baino. Euskal Memoriak eta Eusko Jaurlaritzak duten datuaren arabera, frontean, soldadu ari ziren lau hildako daude, eta fusilatuak izan zirenak edo oraindik argitu barik zergatik hil zituzten, 15. Marinen, esaterako, 125 biztanletik bost izan ziren fusilatuak, eta uste dugu hori guztia aipatu behar dugula. Ahoz aho eta familiaz familia transmititu diren kontakizunak badaude, baina jendearen ezjakintasun handia dagoela sumatu dugu.

Gaurko ekitaldian, Benito Reola Hermosillak izango du protagonismoa, ezta?

Arabarra zen jaiotzez bera, baina harremana zirkunstantziala izan zen. Momentu batean, tokatzen zaie frankistak herritik hurbil egonda. Irailaren 21ean,



Iñaki Lizundia aste honetan izan da Goiena telebistako platoan. I.B

"REOLAREN ETA ALBERDIREN ARTEKO ADISKIDETASUN ISTORIA ESKORIATZAN HASI ZEN"

goizeko hamaiketari iritsi ziren, ia Gatzaga okupatuta zegoela, eta hasi ziren defentsa antolatzen. Ez da Reola bakarrik, Ibarrola ere asko inplikatu zen... eta hortik historia eder bat sortu zen. Hala, Reolak Aretxabaletako defentsa komitean zegoen Felix Alberdi ezagutu zuen, eta batera borrokatu ziren Eskoriatzan; handik aurrerako gerra batera egin zuten. Gero, Leonen bien gorpuak batera agertu ziren; Reolarena 2013an aurkitu zuten. **Reolak Eskoriatzarekin harremana izan zuen, baina Agirre lehendakariarekin ere bai, ezta?**

Pertsonaia handia izan zen Reola. Agirre lehendakariak Asturiasko frontera bidali zituen, 1977an, Candido Saseta eta Benito Reola, bakoitza brigada baten buru. Saseta militar espainiarra zen, baina abertzalea eta independentista. Reola, berri,

guardia zibil komunista zen. Bi pertsona ezberdin, kargu handikoak, eta Agirre lehendakariaren konfiantzakakoak ziren.

Gaurko ekitaldiko egitaraua zein da?

Benito Reola Hermosilla eta Felix Alberdi gudarien omenez ekitaldia izango dugu Fernando Eskoriatza plazan, 19:00etan hasita. Gero, 20:00etan, ekitaldiari amaiera emateko, Iñaki Revueltaren eta Jesus Etxebesteren kantaldia izango dugu, 20:00etan, Inkernun. Reolaren sendiak parte hartuko du, eta Asturiasen bizi den Alberdiren familia etorriko den konfirmatzeko daukagu, bestalde. Ekitaldi honen bidez, orain dela 82 urte faxista frankistek armaz Eskoriatza okupatu zutela gogora ekarriko dugu, hil ziren guztiak oroitzuz; Eskoriatzaren alde defentsan aritu zirenak, baina Euskal Herria eta Errepublikak defenditu zuten guztiak baita ere. Eguraldi iragarpenak onak ez direnez, Zaldibar antzokian egingo dugu ekitaldia, seguruenik; horrenbestez jendea animatu nahi dugu bertara etorri dadila gure herriko historiaren gehiago ikas dezaten.



Dorleta Kortazarren eta Virginia Imazen arteko elkarrizketa Zaldibarren. I.B

Virginia Imaz sakonago ezagutu ahal izan dute eskoriatzarrek

Euskaraldiaren bueltan, 'ahobizi'-aren eta belarriprest'-aren arteko elkarrizketa egin dute

I.B ESKORIATZA

Eskoriatza Euskaraldia Batzordeak antolatuta, eguaztenean, Dorleta Kortazarrek Virginia Imaz *clown* eta ipuin kontalaria elkarrizketatu zuen, Zaldibar antzokian.

Kortazar *ahobizi* paperean eta Imaz *belarriprest*-arenean, elkarrizketa intimoa eta goxoa izatea zen antolatzaileen asmoa, Virginiaren lanetik harago elkarrizketa pertsonalagoa eskainita, eta halaxe izan zen. Imazen lanbidez, euskaraz, eta abarrez hitz egin zuten. Hain zuzen, Imazek bere bizitzako hainbat

pasarte kontatu zituen, eta euskararekin bizi izandako pasarteekin gustura geratu ziren antzokira gerturatutakoak.

'Belarriprest' profilen bila

Belarriprest profila herrian gehiago zabaltzeko asmoz antolatutako egitasmoan, euskaldun eta erdaldun jendearen zubi-lanaren garrantzia azpimarratu zuten. Horrez gain, euskarazko hitzen garrantzia azpimarratu zuen Imazek: "Badaude hitz batzuk euskaraz; bihotza, jatorra... bezalakoek gazteleraz zentzu ezberdina dutela...".

Ameriketatik heldutako diruari esker egindako eraikinei bisita

Museotik hasita, Errosario Santuko Ospitalea, Ganuza jauregia eta San Pedro eliza ezagutzeko aukera izango da

I.B ESKORIATZA

Ignaziotar Lurraldearen programaren barruan, Debagoieneko Ezkutuko Altxorrek ezagutzeko aukera izango da asteburuan.

Azaroaren 10ean, *Indianoek eraikitako herria* izeneko bisita gidatua egingo da, 12:00etan, Ibarraundi museotik abiatuta. Eskoriatzako hainbat eraikin Ameriketatik heldutako diruari esker egin ziren, hala nola Errosario Santuko Ospitalea izandakoa, Ganuza jauregia eta San Pedro eliza bera. Gainera, horietako batzuetan, ezusteko altxorrek

ezagutzeko aukera izango da, ordu eta erdiko ibilbidean. Bitaldetan banatuta, batekin euskaraz eta bestearekin gazteleraz egingo dute bisita. Hiru eraikin ezagutzeaz batera, Zalbidegoitia jauregia, gaur egun, kultura etxea dena, ezagutzeko aukera izango dute bertaratzeko direnek.

Izena ematea komeni dela gaineratu dute antolatzaileek, jende kopurua aurreikusteko. Hori horrela, turismo@debagoiena.eus helbide elektronikora idatzi edo 943 7964 63 telefono zenbakira deitu beharko da.

Kulturari eta naturari musuak banatzera

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak 'Musua' izeneko ikuskizun berria aurkezten izango dira zapatuan, 17:30ean, Manuel Muñozen. Lan berrien estreinaldi guztietan egin ohi duten bezala, besteak beste, pertsonaia berriak ekarriko dituzte Eskoriatzara

Imanol Beloki ESKORIATZA

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek *Musua* izeneko lan berria estreinatuko dute zapatu honetan, Eskoriatzan. Ikuskizuna 17:30ean hasiko da, Manuel Muñoz kiroldegian, eta sarreren prezioa sei eurokoa izango da.

Pailazoen lan berrian, urteari errepasoa egingo diote, eta urte osoko pertsonaia oholtzan desfilatzen arituko dira. Natura eta kultura ardatz izanda, biei musuak banatzeko asmoz. Honela adierazi du Porrotxek: "Gure kultura naturatik dator, eta badirudi aldentzen ari garela. Hori horrela, Santa Agedan, udaberria heltzeko abestuko dugu, Ziripot, Mielotxin, joaldunak... izango dira, suaren bueltan ere dantza egingo dugu, Arimen Gaua ospatuko dugu... Neguan, berri, Olentzero izango dugu, eta aurtan, indar berezia izango duen Mari Domingi pertsonaia berria. Iratxo bat ere arituko da gurekin zein naturarekin jolasean, eta



Pirritx eta Porrotx. KATXIPORRETA

ikuskizunaren amaieran deskurrituko dugu zein den... Horrez gain, azken 25 urteotan asko aldatu da Euskal Herria, eta herrialde ezberdinak jendea dago gurean; hala, Olentzeroren astoa ere aldatuta etorriko da."

Bideoklipak, laster ikusgai

Pirritx, Porrotx eta Marimototsen *Musua* saioak ordu eta laurden iraungo du, pertsonaia berriak izango dira oholtza gainean eta abesti berriak sortu dituzte ikuskizunerako. Hain zuzen ere, Leire Bilbaok egin ditu letrak, Xabier Zabalak musika eta Maite Mutuberriak, berri, ilustrazioak. Horrekin batera, laster, hainbat kanturen bideoklipak ikusgai izango dira adierazi dute Eskoriatzan musuak banatzen izango diren pailazoek.

Sarrerak oraindik salgai daude

Eskoriatzako Manuel Muñoz kiroldegiko edukiera 1.300 pertsonakoa da, eta eguaztenterako 900 sarrera salduta zituzten. Hala, urtero gertatu ohi den moduan, sarrerak erosteko azken momentura arte itxaroten dute askok, eta horiek eskuratzeko aukera dagoela jakinarazi dute antolatzaileek.

'Zoaz pake santuan' ikuskizuna etzi, domekan, Zaldibarren

Ane Gabarain eta Mikel Laskurain aktoreek antzeztuko duten lan dibertigarria 19:00etan izango da

I.B ESKORIATZA

Emmanuel Robert-Espalieu egilearen lana taularatuko dute domekan, 19:00etan, Zaldibar antzokian, Ane Gabarain eta Mikel Laskurain aktoreek, Begoña Bilbao zuzendariaren gidaritzapean.

Txalo Produktzioak antzerki konpainiaren *Zoaz pake santuan* lanean, bikote batek daraman bizimodu aspergarria antzeztuko da. Hori amaitzeko, andreak gizona pozoitzea erabaki du, eta, ekintza gordintze aldera, egin nahi duena aitortuko dio gizo-

nari. Hala, aurreikusita duen plana hankaz gora jarriko zaio barrez lehertzeko moduko komedia horretan. Egundoko ustekabez hornituta dago bikote barregarri horien antzezlanak, eta, akats, ahulezia eta baldartasun ugari dituzten arren, aldi berean, dibertigarri eta maitagarri ageriko dira.

Euskarazko lan horretarako sarrerak lau eurotan erosi daitezke aldeztu aurretik kiroldegian, eta, aretoa ez bada betetzen, leihatilan, egunean bertan erosteko aukera ere egongo da.

Ardo mota ezberdinak, pintxo goxoez lagunduta

Euskal Herriko ardoak, Errioxakoak eta Espainiakoak probatzeko aukera izango da zapatuan, aurtan hamaikagarren urtez, Atxorrotx Kultura Elkar- teak antolatu duen ardo dastaketan.

18:30ean hasiko da, Fernando Eskoriatza plazan, eta, guztira, Euskal Herriko ardo zuri mota bat eta hiru beltz izango dira aukeran. Errioxakoen artean, aldiz, zuri bat eta hiru beltz eta Espainiakoak, zuri bat eta hiru beltz ardo mota. Horrez gain, urtero moduan, pintxo apartak izango dira. Aurtan, hiru ezberdin izango dira: foiea, konfita eta odolostea piperrekin, hain zuzen ere.

LEINTZ GATZAGA

23



Gatz Museo alboan egin berri duten txondorrean lanean. MIRARI ALTUBE

Sanmilixanak ospatzeko egitarau zabala antolatu dute

Neguari ongietorria egiteko, txondorra egin eta piztu dute gatzagarrek, hainbat ekintzarekin batera

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Azaroaren 11n izango da San Milixan eguneko artisau azoka Leintz Gatzagan. Aurtengoa 26. eskulangintza azoka izango da, eta, hain zuzen, urtero moduan, frontoian jarriko dituzte postuak artisauak.

Hamabost postu inguru izango dira aurtengo edizioan. Sarginak taldekoak taloak egiten izango dira goiz osoan, eta, 11:00etan hasi eta 13:30ak arte, txandakako zortziko taldeetan, zeramika tailerra izango da haurrentzat. Horrez gain, Gatz Museoan bisitak izango dira: 11:00etan, 12:00etan eta 13:00etan. Egitarauaz gainera, Eskoriatzatik Gatzagara autobusean joateko eskaera egin dute, orduro egongo baitira autobusak.

Neguari ongietorria

Sanmilixen aurretik, Neguari ongietorria egiteko jaia ere an-

tolatu dute Leintz Gatzagako liburutegiko kideek zapaturako. 10:00etan, mendi buelta egingo dute Gatzagako basoetan zehar eta 11:30ean, txondorra ikusteko aukera izango da, *Egurretik ikatzera*, aitzinako lanbidea eza- gutzeko. Ostean, Pello Añorgak ipuin kontaketa eskainiko du; amaitzean, luntxa izango da.

Txondorra, eguna ezker prest

Herriko hainbat lagunek txondorra egin, eta egunean piztu zuten, Gatz Museoaren alboan. "Liburutegiko taldeak eskatuta egin genuen pasa den egunean, eta, egiteko sasoirik onena ez bada ere, egin dugu. Pago-egurrekin eta Nafarroako eta hemengo estiloa nahastuz egin dugu. Asmoa astebete inguru irautea da, eta, horretarako, hiru orduro txandak egiten ari gara", adierazi du Iker Gabilondok, txondorraren egileak.

Gatzagako jaietako programen erakusketa

Erretiratuen elkarteko kideek antolatuta, Leintz Gatzagako jaietako programen erakusketa izango da ikusgai San Milixan azokan. Erakusketa frontoiko arkupeetan izango da, eta 1968tik gaur egunera arteko bilduma osatu dute la adierazi du Eusebio Villarrek, antolatzaileetako batek: "Etxean eta udaletxean genituenak eta beste hainbat herritarri eskatu-

takoak batu ditugu. Batez ere, jaietako programak batzen saiatu gara, eta San Milixan eguneko programen 12 kartel inguru ere batu ditugu. Horrez gain, egunkari-zatiekin osatuko dugu bilduma. Azken momentura arte ahalik eta gehien batzen saiatuko gara, eta, guztira, 40 kartel inguru jasoko ditugula aurreikusten dugu". Erakusketa horretaz gain, Euskal Herriko txirrindularitzaren gaineko erakusketa ere irekiko dute domekan, Dorletako santutegian (ikus kirol orokorrak).

Kiroldegia eta parkinga dute begiz jota 2019rako

Gobernuaren 2019rako udal aurrekontu proposamenaren barruan, proiektu nagusiak dira Labegaraletako kiroldegia berritzea eta seminarioko lur azpiko aparkalekua egitea; etxeko laguntza zerbitzua hobetzeko eta merkatze konpromisoa ere hartu dute

Jokin Bereziartua BERGARA

"Bergararren bizi kalitateari, ongizateari eta beharrei" erantzuten dien udal aurrekontu proposamena aurkeztu du Gobernuak asteon. 2019rako ia 24 milioi eurokoa da proposamena -23.957.476 eurokoa, zehazki esateko-, 2018koa baino %4,8 handiagoa. Datorren urtean egiten hasiko diren proiektuen artean, seminarioko lur azpiko parkinga egitea eta Labegaraletako kiroldegia berritzea dira nagusiak.

Kiroldegia eta aparkaleku berria

Kiroldegia lehene faseko lanak hasiko dira datorren urtean, eta ia milioi bat euroko partida bideratuko da horretarako -930.057 euro-. Izan ere, lehene fase horretan, egungo biltegiaren eraikina botatzea, kiroldegia lotuta egongo den beste eraikin bat egitea, kantxa berritzea eta sarrerako gunea egokitzea aurreikusten da, besteak beste. Gogora ekarri behar da Diputa-



Rafa Amasorrain (EAJ), Elena Lete (EAJ) eta Mari Carmen Barrenetxea (PSE-EE). J.B.

zioak ia 600.000 euroko dirulaguntza bideratu duela 2019rako eta 2020rako, lehene fase hori gauzatu ahal izateko.

Bestetik, seminarioko aparkalekurako obrak ere 2019an hasiko dira. 2018ko aurrekontuan

1.400.000 euro bideratu ziren -1.120.000 euroko mailegua eskatuta-, proiektua idatzi, lur azpiko kolektorea lekualdatu eta errotazio bidez funtzionaltuko duten 86 aparkaleku berriak egiteko; kopuru horrez gain,

2019ko aurrekontuaren barruan 320.000 euroko partida bideratzea aurreikusten da obrak eragingo dituen urbanizazio lanetarako; patioa berriro urbanizatzeko eta egungo harresia botatzeko asmoa dago. "Une egozia izango da Ibargarai kaleko urbanizazioa birpentsatzeko", dio Elena Lete alkateak.

"Proiektuak idatzeko urtea"

Bi proiektu nagusi horiez gain, Gobernuak dio 2019a "proiektuak idatzeko urtea" izango dela. Horien artean kokatu dituzte, besteak beste, Zubieta kalean kontsolidatze lan batzuk egitea -kalea bera irisgarritasun aldetik erabat eraberritzeko lanak beranduago hasiko dira-, Simon Arrieta plazako lanak; Matxiategi kooperatiben espaloiak, Martokoko bizilagunekin adostutako hobekuntzak; eta ambulatioaren ingurua mugikortasun aldetik hobetzeko proiektuak.

Gobernuak azaldu duenez, aurrekontua prestatzerakoan udal langileen partaidetza indartu dute sailez sail beharrak zeintzuk diren detektatzeko, eta, horrez gain, 260.000 euroko partida bideratuko da herritarrek aukeratuak egitasmoak gauzatzeko; 2017an 100.000 euro bideratu ziren eta 2018an 150.000 euro. Horrez gain, 2016an abiatutako ideia lehiaketatik Agorrosingo igerilekuetako ur txorrotak egingo dira eta goiko estazioa aisialdirako gune moduan egokituko da.

Etxeko laguntza zerbitzua hobetu

Gainera, gizarte zerbitzuetara ia bi milioi euro bideratuko dira -1.946.867 euro-, horietatik 680.000 euro etxeko laguntza zerbitzurako izango dira, 2018an baino %35 gehiago. Erabiltzaileendako ordutegia %25 jaitsiko da, zerbitzua hobetuko da -bereziki ordu gehiago eskainita- eta adingabeei eta bazterkeria egoeran dauden pertsonen ere zabalduko zaie.

Bestalde, ingurumenaren arloan udaltzainendako eta garbiketarako ibilgailu jasangarriagoak eskuratuko dira; argiteria publikoaren barruan led argiak jartzen jarraituko dute; San Lorentzon saneamendu sarean ur zikinak jasoko dira, eta amiantoko hornidurak aldatu egingo dira. Era berean, bidegorria San Antoniorantz handitzea da asmoa eta 2019an 340.000 euro bideratuko dira helburu horretarako.

Abenduaren 17ko osoko bilkuran

Gobernuak oposizioarekin partekatuko du proposamena eta azaro amaieran hasiko dira negoziazioak. Izan ere, asmoa da abenduaren 17ko osoko bilkuran onartzea azken dokumentua.

2019AN 260.000 EURO BIDERATU GURA DIRA HERRITARREK AUKERATUTAKO PROIEKTUETARAKO

EUSKARALDIA

'Ahobizi' edo 'Belarriprest' izateko txapak hasi dira banatzen

Udaletxean, Agorrosinen eta Irizarren jaso daitezke; oraingoz, hilaren 17ra arteko ordutegiak zehaztu dituzte

J.B. BERGARA

Ia 1.500 bergarar dira azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean *belarriprest* edo *ahobizi* txapak eramateko izena eman dutenak. Txapak jasotzeko hiru toki eta hainbat txanda jarri ditu Euskaraldia batzordeak; banaketan, azalpen labor bat emango da, eta, horregatik, antolatzaileek eskatu dute izendatutako ordutegian puntu joatea. Saiora joaten denak, gehienez, beste hiru lagun txapak jaso ahaliko ditu. Hiru tokitan banatuko dira; ba-

tetik, udaletxe osoko bilkuren aretoan: azaroaren 12an, 13an, 14an eta 15ean, 18:00etan, 18:30etan eta 19:00etan. Gainera, gaur eta hilaren 16an, 15:30etan, 16:00etan eta 16:30etan ere jaso ahaliko dira udaletxean. Bestetik, Agorrosingo areto nagusian: gaur eta hilaren 16an, 18:00etan, 18:30etan eta 19:00etan. Eta, azkenik, Irizar jauregian: bihar eta hilaren 17an, 12:00etan, 12:30etan eta 13:00etan. Bestalde, astelehenean (12:00) erretiratuekin eta pentsiodunekin egongo dira batzordeko kideak.

GORA ETA BEHERA



JOKIN BEREZIARTUA

Zuhaitzei egiten zaien jarraipenarekin pozik

Irakurle batek galdetu du Iparragirre kaleko ezkiak zergatik bota ziren; ustelduta zeudenez segurtasuna bermatzeko bota zirela jakin ostean, udal zerbitzuen jarraipen lan hori txalotu gura izan du.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

1.160 lagunek eman dute izena Agorrosingo ikastaroetarako

Kirol Zerbitzuak aditza eman duenez, "inoizko partaidetzarik handiena" izan da Agorrosin Kirol Guneako ikastaroetan 2018-2019 ikasturtearen barruan: 1.168 erabiltzaile. 699 lehorreko ikastaroetan eta 469 igerilekukoetan. Horrek esan gura du eskaintzen diren 1.430 plazetatik %81,67 beteta daudela dagoeneko. Hala ere, lekua dago honako ikastaro hauetan: hipo-pilatesa, areto txirindularitza, GAP, helduendako gimnasia, yoga, askotariko ariketak egiteko ikastaroa eta helduendako igeriketa. Argibide gehiagorako edota izena emateko: 943 77 70 95 zenbakira deitu edo agorrosin@bergara.eus helbidera idatzi.

Eraldaketa feministaren beharra nabarmendu dute

Sorturen eta Iratzarren eskola herritarrean, Oihana Etxebarrietak hitzaldia eman zuen eguaztenean; bihar goizean, Aranzadin elkartuko dira, Luciana Alfarok gidatuta, eta 16rako bertso saioa antolatu dute Artatsen, Miren Amurizarekin eta Ane Labakarekin

Jokin Bereziartua BERGARA

Patriarkatua suntsituz, Bergara feminista eraiki izenburupean antolatu dute Sortuk eta Iratzar fundazioak eskola herritarra, bigarren urtez. "Ondo pasatuz ikasteko pentsatutako eskola da", diote. Eguazten iluntzean egindako lehen saioan, Jaizkibel konpainiako kide eta EH Bilduko legebiltzarkide Oihana Etxebarrietak gidatuta, emakumearen eta espazio publikoaren arteko harremana izan zuten hizpide: "Hondarribikoa kasu oso larria eta mediatikoa izanagatik ere, sistema patriarkalaren ondorioa da. Sistemak gizona jartzen du erdigunean, are eta gehiago eremu publikoan".

Egoera hori Bergarara ekarri eta honako galdera hauek egin zituzten, besteak beste: "Zein leku betetzen dute emakumeek Bergarako jaietako agertokiak? Bertso saioetako oholtzetan? Kontzientzia handieneko eremuetan ere diskriminazioa bizi dugu, sistematikoa delako". Eta horrekin batera diote Bergara ez dela herri duina izango biztanleen erdiak bigarren mailakoak diren bitartean: "Egoeraren kontziente egin eta eraldaketa-rako tresnak eman nahi dizkiegu eskoletara etorri diren eta etorriko diren herritarrei".



Eguaztenean hitzaldia eman zuen Jaizkibel konpainiako Oihana Etxebarrietak. SORTU

Bihar, Luciana Alfaro, Aranzadin Bigarren saioa bihar izango da, Aranzadi Ikastolan, 10:00etatik 13:00etara. Martxantere antolatuta, Luciana Alfaro izango da protagonista: "Langile klaseko emakume eta migratzaile gisa, bere bizipen eta irakurketatik abiatuta gaiari buruz ikastea espero dugu. Gainera, gutako bakoitzak ditugun bizipen eta kontraesanetan murgilduko gara, horiek gainditzen laguntzeko estrategiak eskuratzeko". Eskolak bukatzeko, hilaren 16an bertso saioa izango dute Artatse

elkartean, Miren Amurizaren eta Ane Labakaren eskutik. Antolatzaileek geratzen diren bi saioetarako gonbidapena egin dute: "Saio guztiak irekiak dira bergarar guztientzat, eta gure eskolan asistentzia ez da derri-gorrezkoa. Ez dugu azterketarik egiten, ziur gaude-eta horrela askoz gehiago ikas daitekeela".

Azaroaren 16ko bertso afari-rako txartelak Arrano tabernan daude salgai; ikasleek eta langabetuek 12 euro ordaindu beharko dute eta langileek, berriz, 16 euro.



NIRE USTEZ

ANDRES OSA 'SAKONA'

Baliabideak harrapatzearen ondorioa

Eguneroko albistea da. Irunen, etorkinak mugaz alde batera eta bestera ikusten ditugu. Horietako batekin mintzatu gara. 40 bat urte zituen, nigeriarra zirudien.

Sei bat urteko semea belaunetan, eta konfiantza pittin bat hartu ondoren haxe kontatu zigun: "Gure herritik abiatu ginen eta gorriak pasatu ditugu. Emaztea han utzi genuen. Hori da gakoa. Gure herria, mendebaldeko herri aberatsen esku dago. Gurea izan bazen ez ginen aterako. Bi seme alboan ditudala gentozen. Belaunetan daukadan semea, negarrari eutsi ezin eta matrailak igurtziaz, beste semea itsasoan galdu genuen. Egin-ahalak egin arren salbatzeko, ezin izan genuen. Ur handitan gelditu zen, eta gure bihotzean". Aita eta semea zotinka, ezin jarraitu hizketan.

Alboko taberna batean kafetxo bat hartuaz jaso genion: "Etorkinak gara, gure herrialdeetako baliabideak lapurtu egiten dizkigute. Herri aurreratuen politika eta interes ekonomiaren menpeko gara. Oinarrian hori da, gure borondatearen kontra irten beharraren arrazoia".

OHARRAK

1957an eta 1970ean jaiotakoek ospakizuna

1957koek hilaren 24an Mendabiara irteera egingo dute; 09:00etan Santa Marinaran elkartuko dira. Izena eman behar da azaroaren 15a baino lehen: 3035 0189 31 1891038659 –Laboral Kutxa, 80 euroko ordainketa–. 1970ean jaiotakoek hilaren 17an Etxagin bazkalduko dute eta lehenago Pol-Pol tabernan elkartuko dira (13:00). Izena eman behar da Sugoi dendan: 943 76 59 54.

Angiozarko Azkunetako San Martin jaiak

Gaur, *Patxi Errementaria* filma ikusi ahalgo da Arbiaska aretoan (21:30). Bihar, San Martin eguneko ospakizuna izango dute: meza San Martin Toursekoaren ermitan (12:30) eta erromeria (13:00).

Gripearen aurkako txertoa hartzeko aukera

Azaroaren 13an Osintxuko liburutegian –10:30etik 11:00etara– eta Labegaraletako kiroldegian –11:30etik 12:15era– egongo dira.

Azaroko eguaztenetan, zinema gaztetxean

Dynamo zineklubak antolatuta, azaroko eguazten guztietan film klasiko bat ikusi ahalgo da: hilaren 14an, *Zombies party* (2004), hilaren 21ean *Suspiria* (1977) eta hilaren 28an *Un hombre lobo americano en Londres* (1981). Proiektzioak 21:00etan hasiko dira.



7 urteko **garantia**
auto berri guztietan

Debagoieneko kontzesionario ofiziala
Arrasate • San Andres Auzoa 6
943 79 07 44/54 • 670 82 71 86
www.mugarri.eus



Eguazten iluntzean 100 bat lagun elkartu ziren Seminarixoa, Elhuyarrek antolatutako Wolfram Deunaz gozatzeko. XABI URZELAI

Wolfram Deunak baditu fededunak

Zientzia eta berrikuntza jardunaldien barruan ekintza arrakastatsuenetako bat izan da aurtien ere Elhuyarrek antolatutako Wolfram Deuna jaia, lehenengo aldiz Seminarixoa aretoan egin dena; asteburuan izango diren hiru ekitaldirekin amaituko dira jardunaldiak

Jokin Bereziartua BERGARA

Bukatzeraz doaz zientzia eta berrikuntza jardunaldiak. Urriaren 15ean Edurne Alvarez de Monek jardunaldiei hasiera eman ostean eta asteburu honetan zehar izango diren hiru saioen artean, askotariko hitzaldi, ikastaro eta erakusketak antolatu dira herriko gun ezberdinetan.

"Gala perfektua" Seminarixoa

Saio arrakastatsuen artean, eguazteneko Wolfram Deuna nabarmendu beharra dago. Lehen aldiz Seminarixoa ospatu zen, Elhuyar anaiek 1783an wolframa isolatu zuten leku berean, eta 100 bat lagun elkartu ziren Elhuyarrek laugarrenez antolatu zuen saio berezian. Hain justu, antolatzaileek eta saioan parte hartu zuten hizlariak nabarmendu zuten Seminarixoa areto ederra dela –orain arte Zabalo-

tegin ospatzen zen– halako jaialdi baterako: "Ederra da Seminarixoa, gala perfektu baterako aukera ematen du areto honek".

"Umorezko bakarrizketa zientifiko homeopatikoa" izan ziren, "puntako zientzialari, zientzialaile eta zientzia-txorroskileroen" eskutik: Idoia Torregarai, Aitor Zanduetak, Itziar Garate, Ibon Cancio, Lorea Argarate, Josu Lezameta, Ainitze Labaka eta Josu Lopez. Ekitaldi bereziaren gidari lanetan Elhuyarko Alaitz Otxoa de Eribe Agirre aritu zen. Hizlari bakoitzak bost minutuko tartearen zuzen saioa eskaintzeko

WOLFRAM DEUNAREN LAUGARREN EDIZIOA SEMINARIXOAN EGIN AHAL IZATEA TXALOTU DUTE ANTOLATZAILEEK

eta horrek ekitaldia oso dinamikoa izatea ahalbidetu zuen.

Zientzia umoretik hurbildu

Wolfram Deuna bera zientzia eta berrikuntza jardunaldien helburu nagusietako baten isla da. Hau da, zientzia liburu eta argitalpen espezializatuetatik atera eta herriarrei hurbiltzea. Gainera, Wolfram Deunak umorea erabiltzen du helburu hori gauzatzen laguntzeko, eta, eguaztenean entzun ziren barre algarak ikusita, laugarren edizio honetan ere helburua bete zuten.

Zientzia, Elhuyarko ordezkarien arabera, eguneroko edozein esparrutan aurki daiteke. Seminarixoko agertokitik pasatu ziren zortzi hizlariak hori bera islatu zuten askotariko adibideekin: untxien ospe ona ezbaian jartzen zuena, pelikuletan zientziak duen papera edota drogak



Zientzia eta zinema bateratu zituen Aitor Zanduetak bere saioan. X.U.

Zortzi saio motz, umorea bidelagun

Wolfram Deunaren *ospakizunean* parte hartu zuten zortzi hizlariak bost minutuko saioak eskaini zituzten. Zientzia eguneroko bizitzako hainbat esparrutan dagoela islatu, eta umore klabeak bakarrikzeta interesgarriak egin zituzten, bertaratu zirenen gozamenetarako.

750. urteurrenaren bueltako hitzaldiak

Bergarak hiri-gutuna jaso zuela gogoratzeko 750. urteurrenaren bueltan, hainbat hitzaldi antolatu dira urtea amaitu bitartean: azaroaren 14an, Jerardo Elortzaren *Euskararen presentzia Bergarako historian* (Irizar, 19:00); hilaren 21ean, Jantxo Madariagaren *Bergara gizarte industrializazio aurretik* (Irizar, 19:00); hilaren 24an, Patxi Larrañagaren *Apellidos, linajes y casas solariegas de Bergara* (udaletxean, 11:30); hilaren 28an, Jesus Angel Gilen *El patrimonio arquitectónico en Bergara durante la Edad Moderna* (Irizarren, 19:00); abenduaren 13an, Alberto Santanaren *Historia de los labradores y caseríos de Bergara* (Irizarren, 19:00); abenduaren 19an, Miguel Lazpiurren *Bergarako balioak* (Irizarren, 19:00); eta, amaitzeko, urtarrilaren 9an, Idoia Arrietak *Emakumearen papera historian* izeneko hitzaldia eskainiko du.

kontsumitzerakoan animalia batzuk izaten dituzten portaerak, besteak beste.

Jardunaldien azken asteburua

Hiru ekitaldi geratzen dira ZTB jardunaldiak amaitzeko. Batetik, Oier Bolibarrek *Energiaren demokratizazioa eraldaketa energetikoaren bidez* izeneko hitzaldia emango du gaur Aroztegin (19:00): "Energia berri-eragileak iraultza energetikoa ekarriko dute, dagoeneko martxan dagoena. Kasu errealekin azalduko dut gertatzen ari diren aldaketak eta etorkizunean zein norabide

hartuko duten, nola eragingo digun", dio Bolibarrek. Horrez gain, biharko eta etziko –09:30etik 13:30era–, formakuntza ikastaroa antolatu dute Laboratoriumen, publiko orokorrari eta Beart elkarte artistei begira.

Eta, azkenik, Wolfram Encounter ere izango da jardunaldion azken asteburuan; bideo jokoe-tako aditu edo *gamer*-endako hitzordua da, nagusiki, eta etenik gabeko 30 orduko maratona egingo dute –ateak 09:15ean irekiko dira– Aranzadi Ikastolako aretoan. Nork bere ekipoa eraman behar du, eta ordenagailuak jartzeko 48 postu egongo dira. Bideo joko ezagunen arteko txapelketez gain, jokalaririk profesional ohi izandako eta gaur egun enpresaria den Alex Robeñoren hitzaldia egongo da bihar, 20:00etan hasita. Izena emateko: wolframencounter@gmail.com.

ASTEBURUKO HIRU EKINTZEKIN AMAITUKO DIRA 2018KO ZIENTZIA ETA BERRIKUNTZA JARDUNALDIK

"Garaira aurreratutako ekintzailea zen Esnaola"

MIGEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR IDAZLEA

Pol-Polen 75. urteurreneko liburuarekin batera, On Serafin Esnaolak 1968tik 1978ra bitartean grabatutako 35 film labur ikus daitezke 'www.xubi.eus'-en

Jokin Bereziartua BERGARA

Pol-Pol M.T. Bergarako historia sozial bat 1942-2017 liburuaren arrakastaren ondoren, liburu bera eta beste hainbat material interesgarri sareratzea erabaki du Migel Angel Elkoroberezibarrek. Material horren barruan, 1968tik eta 1978era bitartean On Serafin Esnaolak grabatutako 35 film nabarmendu behar dira. "Sasoi hartako Bergarako ohi-turak, janzkerak, jolasak, paisaiak... gogoratzeko bide ematen dute", dio idazle bergararrak. **Denboraren prismatik, nola baloratzen duzu liburuaren arrakasta?** Pol-Pol Mendizale Taldea bezalako elkarte batek daukan ibil-

bide oparoa eta bertatik pasatu diren bergararren kopurua kontuan izanda, liburuarekin apur bat asmatuz gero arrakasta segurua zen. Hori horrela, plazaratutako 750 aleak astebe-tean agortu ziren.

Noiz erabaki zenuen edizio berri bat Internet bidez argitaratzea?

Hasieratik aurreikusi genuen posibilitate hori. Formatu digitalak aukera berriak eskaintzen zizkigun, apenas kosturik gabe, eta ez genuen zalantzarik izan. **Zer eskaintzen du Internetek paperekoak eskaintzen ez duena?**

Liburu bat eskuetan izatea gauza ederra da, ezin ukatu, baina, belaunaldi berrietara iristeko,

edozein gailurekin liburu ira-kurri ahal izateko, etorkizunean ere liburu eskura izango dela bermatzeko... Internet tresna bikaina da. Gainera, une oro zuzendu, osatu edo eguneratu daiteke lainoan zintzilikatutakoa. **Zer aurkitu ahalko du bergararrak webgune berri horretan?**

Webgunea [www.xubi.eus] mar-txan dago eta interesa daukanak, Pol-Poleko liburuaz gain, Bergararekin lotutako hainbat li-buru ere izango ditu eskura – Simon Arrieta, San Martin Agirre, Domingo Irala, Serafin Esnaola...-. Liburuez aparte, bideoak eta pelikula ere aurki daitezke. Nabarmenezkoak dira

On Serafin Esnaolaren Pol-Po-leko 35 pelikula laburrak.

Bereziki, belaunaldi berriei begira: zein zen On Serafin Esnaola? Nola deskribatuko zenuke haren figura?

Apaiza zen. Liderra eta komu-nikatzaile aparta. Giza eskubi-deen alde borrokatu zen bizitza guztian, ekintzailea eta bere garaiari aurre hartu zion gizo-na izan zen. Maisu berritzailea zen Esnaola, gaztetxoekin Ha-melingo txistularia zirudiena. Ez zen idazlea, baina nazioartean garrantzia izan zuten dokumen-tuak prestatu zituen, eta bi li-buru argitaratu. Horrez gain, argazkizale eta zinemasale han-dia ere bazen.

Zer ikus daiteke Esnaolaren 35 pelikula labur horietan?

Pol-Polekin lotutako pelikula labur andana. 1968 eta 1978 urte artekoak dira eta horietan guz-tietan ageri diren ibilaldiak, kanpaldiak, finalista egunak, argazki rallyak, perretxikozaleen lehiaketak, estanpak... Bide ba-tez, sasoi hartako Bergarako ohi-turak, janzkerak, jolasak, kaleak, paisaiak... gogoratzeko edo ezagutzeko aukera ezin ho-bea ere eskaintzen dute.

Eskubaloit taldeak hiru puntuak behar ditu Ormaiztegiaren aurka

Soraluce BKE eskubaloit taldeak ez du Gipuzkoako lehen maila nahi moduan hasi: lehen lau jardunaldietan, partidu bakarra irabazi, beste bat berdindu eta bi galdu ditu. Dinamika txarra-ri buelta emateko, aurkari zuzen bat izango dute bergararrek bihar Labegaraletan (16:45): puntu kopuru berarekin dagoen Ormaiztegi, hain justu.

Gipuzkoako txapelketa izango da protagonista gaur eta bihar frontoian

Asteburuan, Gipuzkoako txapel-ketako partiduak jokatu dira frontoian. Gaur, hiru partidu, 19:30ean hasita: bigarren urteko alebinak, lehen mailako infantilak eta senior mailakoak lehiatuko dira Azkoitiaren, Aloña Mendiren eta Zumaiaren aurka, hurrenez hurren. Bihar, 16:30ean, eskolarteko benjaminen mailako lau partidu jokatu dira.



Elkoroberezibar, liburuarekin, eta www.xubi.eus webgunea erakusten. POL-POL M.T.



Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauan xedatutakoa betez, ondoko hau erabaki da behin-behineko izaeraz:

Ondorengo ordenantza fiskalak aldatzea:

1. Ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzen duena.
2. Ekonomia jardueren gaineko zerga arautzen duena.
3. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duena.
4. Hiri-lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duena.
5. Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga arautzen duena.
6. Jabari publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituena.
7. Zerbitzuak eskaini eta jarduerak burutzeagatik ezarrita dauden tasak arautzen dituena.
8. Zerbitzuak eskaini eta jarduerak burutzeagatik ezarrita dauden prezio publikoak arautzen dituena.

Erabakia Udalbatza Osoak 2018ko urriaren 29ko bileran hartu zuen. Erabaki hori behin betiko bihurtuta, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean eta 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak.

11/1989 Foru Arauan xedatutakoarekin bat etorritik, behin-behineko erabaki hau 30 lanegunetz jarriko da ikusgai

jendaurrean Udaletxeko iragarki taulan, interesatuek espedientea aztertu eta egoki deritzoten erreklamazioak aurkeztu ahal dituzten.

Erakustaldia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean bitartez jakinarazi zaio jendeari 2018ko urriaren 30ean argitaratutako iragarkiaren bitartez eta 2018ko urriaren 31tik aurrera hasiko da epea kontatzen. Informazio honen arauzko epea erreklamaziorik gabe igaro ondoren, hartutako akordioak eta adierazitako agiriak behin betirako onartuak izango dira akordio berriak hartu beharrik izan gabe.

Bergara, 2018ko urriak 30
ALKATEA

Azaroko zuzenekoetako lehena emango du Izarok

Mallabiko musikari ezagunak 'Eason' diskoa aurkeztuko du gaur (22:00) Seminarixoan, eserlekurik gabe eta sarrera zortzi eurotan; azaroko beste kontzertuen artean daude AEBetako Joan of Arc taldearen disko aurkezpena eta Tolosako Tenporaren zuzenekoak

Jokin Bereziartua BERGARA

"Udazkena ere heldu da. Zuhaitzekin batera biluztuko gara eta gure hostoak emango dizkizuegu opari. Ederra da udazkena *Eason*", irakur daiteke Izaro Andresen webgunean gaurko kontzertua iragartzeko atarian. Izan ere, Andresen ahots gozoaren lekuko izango da gaur Seminarixoa -22:00etan, zortzi euro-.

2014an hasi zuen musika ibilbidea, ia oharkabea, eta, orduan jasotako harrera beroak lagunduta, *Öm* diskoa grabatu zuen. Ordutik hona, ez du etenik izan, entzuleak bere kantu zein hitzekin identifikatzen dira, eta, atzean goi mailako laukotea duela, doan lekura doala ohikoa da leihatilan sarrerarik ez dagoela dioen kartela irakurtzea. Lehen disko abestiak eskainiko dituen arren, *Eason* izeneko bigarren disko luzea aurkezttera dator gaur Bergarara.

Joan Of Arc eta Tenpora

Izarorenaz gain, azaroan, bestelako zuzeneko interesgarri batzuk egongo dira. Adibidez, AEBetatik biran datorren Joan Of Arc taldeak 1984 izeneko diskoa aurkeztuko du hilaren 15ean -21:00etan, sarrera zortzi euro- eta sorlekua Tolosan duen Tenpora taldea hilaren 17an egongo



Urriaren 13an Oñatiko gaztelekuan emandako kontzertuaren une bat. IMANOL SORIANO

da Seminarixoan -19:00etan, sarrera zortzi euro-. 2017an kaleratutako *Itzalika* izeneko bigarren diskoarekin dator Tenpora, bereziki folka, popa, rocka eta jazz landu duten bost musikaren eskutik.

2019: zinema eta bi langile berri Udal Gobernuaren arabera, 2019ko lehen hiruhilekoan zehar gozatu ahalko da zinemaz Seminarixoan: "Aretoak filmak proiektatzeko beharrezkoak dituen ekipamendu guztiak izango ditu eta zinema komertziala emango

da Bergaran". Batetik, pantailaren eta zinema proiektatzeko ordenagailuaren erosketa lizitatuko da, eta, horretarako, azaroaren 14a baino lehen aurkeztu beharko dira proposamenak. Zerbitzuaren kontratazioa aurrerago gauzatuko da.

Bestalde, Gobernuak asteon eman du aditzera Gureak Taldearekin elkarlanean dabilatzala 2019an zehar Bergarako bi pertsona Seminarixora begira kultura arloko laguntzaile aritu daitezen lanean, *Pauso berriak* programaren bitartez.

"Garai baten, 90 plaza egitera hel nintekeen urte bakarrean"

JOSE LUIS GORROTXATEGI BERTSOLARI OHIA

Osintxuarrak Xalbador Egunean abestu zuen azkenengoz

J.B. BERGARA

55 urtez plazaz plaza ibili ostean, Jose Luis Gorrotxategik (Osintxu, 1945) bertsotan egiteari utzi zion Urepelen, Xalbador Egunean. Garai bateko eta egungo bertsolari handienekin abestu izan du. **Zergatik utzi duzu bertsolaritza?**

Martxoan bete nituen 55 urte plazaz plaza. Batetik, nekatuta nago; izan ere, nire bi alabak ez nituen ia hazten ikusi, asteburu gehienak alde batetik bestera egiten nituelako. Eta, bestetik, oraindik bertsoak osatzeko erraztasuna izan dudana arren, lehen, beste bertsolari bati erantzuteko zortzi edo hamar segundo behar nituen, eta orain, ia 30 segundo behar izaten ditut. Burua ez dabil garai baten zebilen abiaduran... Entzule askok esan didate ez dela antzematen; eurek, akaso, ez dute igarriko, baina nik bai. Ondo nengoela laga gura nuen, eta Urepelerako abisua heldu zitzaidanean pentsatu nuen aukera aparta zela behin betiko uzteko.

Aztera eginda... nola hasi zinen bertsotan? Zerk piztu zizun harra?

Gogoan daukat, 7 edo 8 urte nituela, aitarekin batera Uztapide eta konpainia bertsotan ikusi genituela Osintxuko jaietan. Baina 17 urte izan arte ez nuen bertsozik kantatu; akordatzeko naiz orduan, erromeria batetik bueltan gentozela, lagun batek Mendaron ezagunak ziren bertso batzuk kantatu zizkidala eta nik bat-bateko bertsoekin erantzun niola. Laguna harrituta geratu zen; hor hasi zen guztia.



Jose Luis Gorrotxategi. GOIENA

1963ko martxoaren 3an Bergaran debutatu zenuen. Nolakoa izan zen?

Benito Irasuegiarekin eta Martin Egileorrekina batera kantatu nuen. Goraino bete zen Bergarako frontoia, soldadutzara joan beharra zuten 21 urteko gazte batzuek antolatutako jaialdi handi baten. Lasa jatetxean bazkaldu genuen. Egun ederra eta berezia izan zen debutarena.

Ordutik hona, ia etengabe bertsotan.

Azken urteetan, dozena bat plaza egin izan ditut urtean, baina garai baten 90 plaza egitera hel nintekeen urte bakarrean.

Nolakoa zen bertsotan egitea 1960ko eta 1970eko hamarkadetan?

Frankismo garaia zen eta beldurra pasatu genuen batzuetan; bertsolari batzuek isunak ordaindu behar izan zituzten. Adibidez, Goizuetan, guardia zibilak ondoan genituela abestu genuen Lazkao Txikik eta biok.

UGARTE
 AROZTEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak - Koltxoiak
 Horma-armairuak
 Altzariak neurria
 Ateak - Eskailerak
 Leihoak - Tarimak
 Egur lanak

ALTZARI DENDA
 Ikerleku zeharbidea
 Tel.: 943 034630

AROTEGIA
 San Juan 1a
 Tel.: 943 765491

BERGARA
 aroztegia@ugarte-aroztegia.com

21
 KALITATEA
 Enpresa Registrada V009025

Sugoi

**ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...**

Fraiskozuri plaza 8.
 943 76 59 54 BERGARA

BERGARA
MARMOLERIA
 PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urarte 8 BERGARA
 Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
 Faxa: 943 76 04 77

disdira
 ile-apaindegia
 edertze gela

Masterreka 7
 BERGARA
 Tel.: 943 76 00 55

Gorbeia SUPER 8

Azaroaren 6tik abenduaren 2ra arte

**LORTU ZURE KUPOIA PREZIO
BEREZIEKIN ETA DESKONTUEKIN**

 1 McMenu® McDonald's Soilik 4'90 € McMenu: Hondo nahiz izozte gero, 0.50€ Gorbeia McDonald's saltokien soilik. McMenu: McPala®, McRoyal Deluxe®, Cuanto McMenu® eta McMenu® antzeko aukera dute. Zure kupoia 2018ko abenduaren 2ra arte, izango da berriak eta promozioekin uztartu.	 1 Sarrera Gorbeia Zineman Soilik 4 € Astelehenetik igandera, Pertsona bakoitzak kupoia bat. Aldatu zure kupoia 2018ko abenduaren 2ra arte.	 Indoor 8 minutuko saloa Big Karting Soilik 9'90 € Hedaketa (Hawthorn 3000) nahiz haurrek (25cc). Astelehenetik ostirako, 10-14 urtekoak soilik. Eskaintza bakoitzeko kupoia bat. Aldatu zure kupoia 2018ko abenduaren 2ra arte.	 Buffet Mr. Wok %10 deskontua Larunbetearen salbu. Eskaintza bakoitzeko kupoia bat. Aldatu zure kupoia 2018ko abenduaren 2ra arte.
 Gambrinus Burger 3. zk. edo Gambrinus agintekoa edo 2. zk. hamburgesa + patata ardoa 1/2 + fresko garma edo garagandoa Soilik 6'90 € Astelehenetik igandera, Pertsona bakoitzak kupoia bat. Aldatu zure kupoia 2018ko abenduaren 2ra arte.	 Kids' City Hour parkea Ordu erdia Doan Lehen ordu erdia doan (gutxienez erabiltzeko egonaldiarekin). Larunbetearen salbu. Pertsona bakoitzak kupoia bat. Aldatu zure kupoia 2018ko abenduaren 2ra arte.	 Pizzeria Savastano Pizzak 8 €-an Txantel bakoitzeko eskaintza bat. Aldatu zure kupoia 2018ko abenduaren 2ra arte.	 2 pertsonentzako menua Pause & Play Soilik 9'99 € Hostako sarrera bat folioa-heraketa, Nuggets edo Finger, portaketa-platea bat (pizza edo 4 pintxo) eta 2 edon (garagandoa edo fresko garma). Txantel bakoitzeko eskaintza bat. Aldatu zure kupoia 2018ko abenduaren 2ra arte.

Kontsulta itzazu
promozioaren
oinarriak hemen:

Promozio hau indarrean
izango da 2018ko azaroaren
6tik abenduaren 2ra arte.

centrocomercialgorbeia.com

Carrefour



CINES
GORBEIA
ZINEMAK



KARTING

Mr. Wok
asian bistro



KIDS' CITY



paillise&play

GORBEIA



Torresoroako Eguneko Zentroko egoiliarak. GIZARTE ZERBITZUAK

Hamar urte nagusien beharrei erantzunez

Eguneko Zentroaren eta Etxebizitza Babestuen gaineko zerbitzua bertatik bertara ezagutzeko aukera izango dute herritarrek gaur eta bihar. Torresoroa eraikinean eskaintzen dira antzuolarrendako bi zerbitzuok, eta hamar urte bete berri dituzte

Maidar Arregi ANTZUOLA

Udalak orain dela hamar urte apustua egin zuen Eguneko Zentroaren eta Etxebizitza Babestuen zerbitzuaren alde. "Antzuolarren beharrei erantzutea izan da helburua. Herrian zegoen eskaerari erantzutea, alegia", azaldu du Gizarte Zerbitzuetako teknikari Karmele Kortak. "Hasieran, kosta egin bazen ere, pixkanaka, plaza guztiak betetzen joan dira eta gaur egun, guztiak beteta daude. Eguneko Zentroak 19 lagunendako tokia dauka eta egun, 18-19 egoiliarrek jasotzen dute zerbitzua. Lehenetsuna antzuolarrek duten arren, bergarrek ere jasotzen dute zerbitzua", gaineratu du.

Etxebizitza Babestuen kasuan, baina, eskaera ez dela horren handia dio. "Guztira, lau apartamentu ditugu Torresoroan bertan. Eta lau horietatik, hiru hutsik daude. Gura duguna da zerbitzu hau herritarrei gerturatzeta eta zerbitzu honek duen malgutasunaz informatzea. Hau

da, egonaldiaren iraupena eta apartamentuan egon daitekeen jende kopurua egoiliarrekin adostu dezakegu. Lagun bakar bat bizi daiteke apartamentuan. Baina, kasu batzuetan –anaia-arrebak edo senar-emazteak badira–, aukera legoke bi lagun bizitzeko bertan". Logela, bainu egokitua eta egongela ditu. Kanpoaldean, sukaldea eta guztiak batera egoteko gune bat ere badauka apartamentuak. "Zerbitzuen artean, gosaria, bazkaria eta afaria ere sartzen dira; baita arropa eta apartamentua garbitzea ere".

Ateak irekitzeko egunak

Zerbitzuok ezagutzera emateko eta herritarrei gerturatzeko as-

ATEAK IREKITZEKO JARDUNALDIAK EGINGO DITUZTE, ZERBITZUAK HERRIARI GERTURATZEKO

moz, atea irekitzeko jardunaldiak antolatu ditu Antzuolako Udalak. Gaur, azaroak 9–18:00etatik 20:00etara–, eta bihar, azaroak 10–11:00etatik 13:00etara–, zabalduko dituzte atea. "Egunero gerturatzen ez den jendeak bertatik bertara ezagutzeta gura dugu. Etxebizitza Babestuak bultzatu gura ditugu eta jendea-ri azaldu, beharren arabera aldi baterako egonaldiak posible direla".

Gizarte Zerbitzuen zinegotzi Alaitz Igarzabalek zerbitzuen balorazio ona egin du: "Garrantzitsua da zaintza zerbitzuak herrian bertan edukitzea. Baina, era berean, udal zerbitzurik ezezagunenak direla iruditzen zaigu; hori izan da ate irekiak egiteko arrazoietakoa bat". Baina, Torresoroan, gizarte zerbitzuez gain, liburutegia eta areto nagusia ere hor daudela gogorazti du: "Urak harrapatu arte hor zeuden; konpondu eta gero ere hala izatea gura dugu, beharra dago eta falta igartzen dugu".



NAIARA FERNANDEZ

Gazte txokoko ikasturtea, abian

Oraingoz, 20-30 neska-mutiko inguruk abiatu dute gazte txokoko ikasturte berria. Naiara Fernandez koordinatzaileak azaldu duenez, sukaldaritza tailerra, film emanaldiak eta hainbat jolas egingo dituzte gazte txokoan bertan. "Antzuolatik kanpo ere egingo ditugu irteerak, eta urte bukaeran, gainera, asteburu-pasa ere joango gara".

Basilio Ormazabal EAJko bozeramailea, 'Harira' saioan

Goiena telebistak martitzenetan eskaintzen duen *Harira* saioan, Debagoieneko alkate eta zinegotziak elkarrizketatzen ditu Eneko Azkarate kazetariak.

Hala, datorren astean, azaroaren 13an, Basilio Ormazabal Antzuolako EAJren bozeramailea izango da saioko gonbidatua. Herritarrek ere badute galdera egiteko aukera.

Horretarako, galdera bidali behar da Whatsapp edo Telegram bidez, 688 69 00 07 zenbakira, edo posta elektronikoz, berriak@goiena.eus helbidera.

Euzko Alderdi Jeltzaleko bozeramaileak agintaldiaren balorazioa egingo du, besteak beste. Baina 2019ko udal hauteskundeak ere gainean daude, eta hizpide izango dituzte.

Esan bezala, azaroaren 13an, gaueko bederatzi eta erdietan hasita, Basilio Ormazabal jeltzalea izango da *Harira* saioan.



ARROLA

Irikortako iturriak, 30 urte

1988ko urrian jarri zuen Arrolak Irikortako iturria. Eta domekan, irteera egingo dute. "Irikortako iturrira joango gara, eta galduta dagoen plakatxoa jarriko dugu. Ondoren, hamarretakoa egingo dugu Lizargaraten". 08:30ean Olarandik abiatuko dira eta bost ordu inguruko ibilbidea egingo dute. Izena arrolamt@gmail.com helbidean eman behar da.

"Kongora bakea iristen hasi da, pixkanaka"

BITTOR ARBULU ANELKAR ELKARTEKO KIDEA

Kongoko gazteek ez dute beraien hirietan lanik aurkitzen. Etorkizun hobia izateko helburuarekin zeharkatzen dute txalupa zein itsasontzietan Mediterraneo Itsasoa

Maialen Regueiro ANTZUOLA

2001az geroztik, urtero bidaiatzen du Kongora Bittor Arbuluk. Hala, bidaia horietaz eta Kongoko errealitateaz mintzatu da.

Noiz hasi zinen Kongora bidaiatzen?

2001ean joan nintzen lehen aldiz Kongora. Izan ere, Tomas Madinabeitia laguna dut eta hura garai batean, Antzuolako parrokoa izan zen. 1987an utzi zion parroko izateari eta Kongora joaten hasi zen, misiolari. Urte batzuk igaro ondoren, berriro Euskal Herrira itzuli zen, eta beti egon naiz harekin harremanetan. Azken batean, esan dezaket Tomas izan zela esperientzia honekin hasteko animatu ninduen.

Zein maiztasunekin joaten zara Kongora?

Bidaiatzen hasi nintzenetik, urtero joan izan naiz Kongora. Egia da aurten, lana dela eta, zaila egin zaidala biak uztartzea, baina, gauzak ondo badoaz, otsailan joatea gustatuko litzaidake.

Zer egiten duzu Kongon?

Hasierako hamar urteetan, gehienbat, berregituratze lanak egin genituen; putzuak eta iturriak eraiki, besteak beste. Gaur egun, berriz, berregituratze lanak egiteaz gain, hezkuntza munduko proiektuak egiten ditugu. Horren baitan, nire ardura horren guztia jarraipena egitea da. Hango eskola batera joaten naizenean, adibidez, irakasleekin zein ikasleen gurasoekin egotea egokitzen zait.

Kongora bidaiatzen hasi zinenetik gaur egun arte, eboluziorik igarri duzu?

Eboluzioa egon zela esan dezaket. Egia esan, kontuan izan behar da 1992an gerra izan zela Kongon eta jende asko hil zela. Gaur egun, bakea pixkanaka iristen ari dela esango nuke. Horrek arlo askotan hobera egiteko lagundu du, baina herritarrek pobreak izaten jarraitzen dutela esango nuke.



Bittor Arbulu. GOIENA

"KONGOKO ERREALITEA LEHEN PERTSONAN EZAGUTZEKO AUKERA IZAN DUT"

Anelkarrek 10.000 euro bidaliko ditu Kongora aurten.

Diru hori hezkuntza daukagun proiekturako erabiliko dugu. Izan ere, proiektu hori oso garrantzitsua da, horri esker eskolak sortu ditugulako, bes-

teak beste. Horrez gain, ikasleek materiala behar izaten dute eta irakasleak ere ordaindu egin behar izaten dira. Irakasleen %20 gobernua kontratatzen ditu eta gainontzekoei laguntza ekonomiko bat ematen saiatzen gara.

Zuri, zer ematen dizu horrelako elkartasun lan bat egiteak?

Urte hauetan guztietan hango errealitatea lehen pertsonan ezagutu ahal izan dut. Telebistan gauza asko ikus daitezke, baina hara joan arte ez zara konturatzen han bizi dutena zer den. Horrek, azken batean, lagundu dit ulertzen zergatik nahi duten gaur egun Mediterraneo itsasoa zeharkatu. Izan ere, Kongoko gazteek ez dute beraien hirietan irtenbiderik izaten lan munduari dagokionez. **Zer antolatu duzue Anelkarren 20. urteurrena ospatzeko?** Gaur arratsaldean egingo da 20. urteurreneko ospakizuna, Zurrategin. 18:15ean, txokolatea eta kafea jarriko dituzte eta erakusketa egongo da ikusgai baita ere. 19:00etan, berriz, Anelkarren historia eta eboluzioa jasotzen duen bideo bat eskainiko da.

Euskaraldiaren postua gaur

Anelkar elkartearen 20. urteurrenaren ospakizunarekin batera, Euskaraldiaren postu bat egongo da gaur, Zurrategin. Hala, herritarrek, 18:30etik aurrera, *ahobizi* edo *belarriprest* gisa izena eman ahal izango dute.



Antzuolako brigadako langileak kimaketa lanetan. JOKIN ETXEBARRIA

Zuhaitzak kimatzea beharrezkoa da, horientzat onena ez bada ere

Herrian mota askotarikoak daude, eta, hain zuzen ere, komenigarria da guztiak kontrolatuta izatea

M.R ANTZUOLA

Udazkena heltzearekin batera, zuhaitzetako hostoak erortzen hasten dira eta, bide batez, kimatze lanak egiten ohi dira zenbait herritan. Antzuolan, esate baterako, azken bi asteetan aritu dira lan horiek egiten; horretarako, lau lagun behar izan dituzte. Bi lagun zuhaitzak kimatzen aritu dira eta beste bi, berriz, egurra zatitzen.

Kimatze garaia

Garikoitz Llobregat Antzuolako brigadako burua da eta kimatze lanak irailetik aurrera has daitezkeela adierazi du. Izan ere, kasu honetan, zatitzen den egurra ez da aprobetxatzen; beraz, kimatze garaia ez du askorik inportatu.

Kimaketa egiteko orduan, furgoneta batean sartzen dute guztia eta birrintzaile batekin birrintzen dute. Hala, dena bilte-

gi batean gordetzen dute eta konposterako erabiltzen dute urte osoan.

Zuhaitzak kimatzea ez da ona

Llobregatek aitortu du zuhaitzak kimatzea egokiena ez dela. Izan ere, kimatzeak zuhaitzak zauritzea edo hiltzea esan nahi du. Adierazi du, baita ere, kimatutako zuhaitzak usteltzen hasten direla, baina zuhaitz mota horiek 100 urte irauteko ez daukatela arazorik. Kimatzea egitearen arrazoia da, beraz, herri barruko zuhaitzak handiegiak egiten direla eta hori kontrolatu egin behar dela.

Zuhaitz mota desberdinak

Zuhaitz bakoitzak tratamendu desberdin bat dauka. Batzuk kontu handiagoarekin kimatu behar dira. Batzuk urtero kimatu behar dira, baina beste batzuk, berriz, bi urtetik behin.

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

**MUJKA
HARATEGIA**



Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrak eta oilaskoak

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

Igoerarik ez udal zerga eta tasa gehienetan

Agintaldian lehenengo aldiz, udalbatzak aho batez onartu ditu ordenantza fiskalak. Etxebizitza hutsen errekarua %75era jaisteak ahalbidetu du adostasuna. Gora egingo duen zerga bakarria hondakinen ingurukoa da, eta %2,28 igoko da

Larraitx Zeberio ELGETA

Elgetako Udalak ez du 2019an igoerarik aplikatuko udal zerga eta tasa gehienetan. Gora egingo duen bakarria hiri hondakinen kudeaketarekin lotutakoa izango da. Iraitx Lazkano alkateak azaldu du kostuetan igoera bat egon dela eta Mankomunitateak %2,28 gehiago ordaintzen duela. Hala, Udalak neurri berean igoko du tasa. Beste aldaketa bat izango da kendu egingo dutela zaintza zerbitzuko kuota eta merkeagoa den ludotekako kuota aplikatuko zaiela erabiltzaile guztiei.

Udalak bizi duen egoera ekonomiko larriari erreferentzia eginez, oposizioak galdetu zuten ea aurreikusi den nola egingo zaion aurre sarrerak bere horretan mantenduta gastuetan KPI igoera aplikatzen denean sortuko den desorekari. "Foru Funtzaren diru sarreratik egingo da hori?", galdetu zuen Mikel Larreak. Alkateak erantzun zuen zergak %2 igota Udalak 10.000 euro inguru gehiago izango litzukeela inbertsioetarako. "Igoera txiki hori egiteak ez digu ahalbidetzen sekulako inbertsioak egitea. Eta Foru Funtsetik jasoko duguna gehiago da".

Etxebizitza hutsei errekarua

Agintaldiko aurreko urteetan, abstentziora jo du beti Gu Geu Elgetak ordenantza fiskalak onartzerakoan. Arrazoa etxebizitza hutsei aplikatzen zaien %100eko errekarua izan da; izan ere, zigor moduan ulertzen dute. Aurten, errekaru hori %50era jaisteko proposamena egin dute, eta, negoziazio baten ostean, alde biek adostu dute errekarua %75 izatea. Hala, aho batez onartu dituzte udal ordenantzak. Gaiak, dena den, eman zuen eztabaidarako. Etxebizitza politika egokia garatzeko premia ikusten dute udal agintariek, baina baliabideak falta



Elgetako udalbatza urriko osoko bilkuran. ANER FERNANDEZ

ETXEBIZITZA HUTSEI APLIKATUKO ZAIEN ERREKARGUA %75 IZANGO DA 2019AN

dira horretarako. Elgetan 120 bat etxebizitza daude hutsik.

Pinudiak fumigatzea

Pinudiak kobre oxidoarekin fumigatzearen kontrako mozioa aurkeztu zuen Elgetako EH Bilduk. Oposizioak, berriz, beste testu bat aurkeztu zuen. Lehenengoak egin zuen aurrera, EH Bilduko bost ordezkarien aldeko botoekin.

EH Bilduren testuak jasotzen du Elgetako Udalak herriko baso publikoak airez ez fumigatzeko eskaera egingo diola Gipuzkoako Foru Aldundiari, eta baso politika berri bat aldarrikatzen du. Jasotzen du kobrea metal astuna eta degradatzen ez dena izanik, goiz edo berandu bideratuko dela akuifero edo erreketara.

Oposizioak aurkeztutako testuak sei puntu zituen eta bost

babesteko gertu azaldu zen EH Bildu, baina osotasunean bozkatzeko eskaera egin zuen oposizioak. Udal Gobernu taldeko kideen desadostasuna eragin zuen puntuak haxe zioen: "Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen diogu pinuaren gaitzari aurre egiteko Euskal Planean jaso diren ekimenak eta neurriak aurrera eraman ditzala". Bigarren puntuak zehazten zuen: "Bertan jasotzen diren ekintzak legediak ezartzen dituen baldintzak eta mugak zintzo bete ditzala".

Diputazioko teknikariengan konfiantza dutela esan zuen oposizioak, gaia ondo aztertu ostean hartuko dutela erabakia. Zalantzan ipini zuen puntu hori Udal Gobernu taldeak.

Bestelakoetan, udalbatzak hasierako onarpena eman zion lokalak etxebizitza bihurtzeko ordenantza berriari.

Desfibriladore

Udalak desfibriladore bat erosi du eta hilaren 14an, erabiltzen ikasteko saio irekia egingo dute udaletxean, 18:00etan. Bihotzbiriketako suspertzea egiten dakitenendako izango da.

EUSKARALDIA

Domekan abiaraziko dute Euskaraldiko txapen banaketa

Izen-emateari oihartzuna emateko, talde argazkia ateratzeko dei egin du guraso elkarteak gaurko

Goiena komunitatea

Euskaraldia batzordea / ELGETA

"Martitzenean Xalbadorpe elkarteak egindako gaztaina-erre janean izan ginen erretiratuei *ahobizi* eta *belarriprest* rolen berri ematen. Gaur, barikua, Maala guraso elkarteak eskolarekin elkarlanean egingo duen ekitaldian izango gara, 15:00etan. Euskaraldian izena emateko aukera izango da bertan, eta talde argazkia ateratzeko gon-

bidapena eginda dago eskola komunitate osoari.

Aurretik ditugun bi pintxo domeketan ere kalean izango da Euskaraldiaren mahaia. Hain zuzen ere, domeka honetan abiaraziko dugu txapen banaketa. Elgetarrei, gerturatzeko eta jasotzeko dute txapa eskatzeko dei egiten diegu.

Euskaraldia batzordea martitzenean elkartuko da berriz, 20:00etan, Ozkarbi elkartearen".

Gaztaina jana erretiratuek

Goiena komunitatea

Xalbadorpe elkarte / ELGETA

"Elgetako erretiratuek gaztaina-erre eguna ospatu genuen martitzenean. Jendea agertu zen eta oso ondo pasatu genuen. Euskaraldiari buruzko hitzalditxo bat ere egin ziguten, eta denok gustura. Aupa Elgetako erretiratuak!". Ekitaldian 40 bat lagun elkartu ziren, Ozkarbin.



JOXEAN OJANGUREN

PILOTA TXAPELKETA

AURREKO JARDUNALDIKO EMAITZAK

Ruben Sanchez-Mikel Arkarazo / Haritz Gallastegi-Oskar Askasibar **05-18**

Iban Retolaza-Jose Mari Zubiaurre / Gorka Bolinaga-Sergio Bouzas **18-11**

Diego Cantabrana-Txomin de Vega / Alain Valle-Eneko Ormaetxea **12-18**

PARTIDUAK, GAUR 18:30EAN

Ruben Sanchez-Mikel Arkarazo / Mikel Elkorro-Iñaki Ugarteburu

Alberto Telleria-Anjel Ibarluzea / Iban Retolaza-Jose Mari Zubiaurre

Haritz Gallastegi-Oskar Askasibar / Gorka Bolinaga-Sergio Bouzas

Diego Cantabrana-Txomin de Vega / Andoni Elorza-Oskar Sarasua

Mikel Beretxina-Ibon Unzetabarrenetxea / Oxel Erostarbe-Gorka Arizmendiarieta

Oharra: Domekan, 10:30ean, eskuz banakako 4 t'erdiko Emakumeen Master Cup jokatu da Elgetako pilotalekuan. (Ikus 38. orria)

OHARRAK

'Gu ere kontalari'

Gaur, 17:00etan, umeei kontatutako ipuinak liburutegian.

Gurasoen batzarra

Maala elkarteak urteko batzarra deitu du hilaren 14rako, 19:30ean, eskolan.

Bazkari deialdia

Bikotekidea elgetarra delako Elgetan bizi direnendako bazkaria deitu dute hilaren 17rako. Izen-ematea Rincon de Lola tabernan egin behar da hilaren 11rako.

Podologia

Erretiratuendako zerbitzua hilaren 15ean. Txanda hartzeko: 943 76 80 77 (Nati).



Iaz egindako lehiaketa irabazi zuen Rincon de Lola taberna. OIHANA ELORTZA

Lau ostalari, pintxo onena aurkezteko erronkarekin

Hurrengo bi domeketan jokatu da Elgetako XI. Pintxo Lehiaketa. Aste honetan, epaimahai ofizialak emango du saria eta hurrengoan, herritarrek izango dute hitza. Trikitilariak, txaranga, argazki lehiaketa eta argazki erakusketa ere izango dira

Larraitx Zeberio ELGETA

Elgetako Udalak antolatuta, bi pintxo domeka izango ditu aurtur lehiaketak. Lau parte-hartzaile izango dira: Bolatoki taberna, Haizea taberna, Maialde landetxea eta Rincon de Lola jatetxea. Bakoitzak pintxo bana aurkeztu beharko du, eta epaile ofizial lanak egiteko kide bana

jarriko dute Xalbadorpe erretiratu elkarteak, Elgetako emakume taldeak eta Maialde guraso elkarteak. Hiru epaimahaikideak 11:45etik 12:45ak bitartean ibiliko dira tabernaz taberna, lehiaketara aurkeztutako pintxoak dastatzen. Sari banaketa 14:00etan izango da, eta antolatzaileek Jainaga eta Narbaiza trikitilarien

konpainian eramango diote txapela irabazleari.

Herritarren saria

Urtero moduan, herritarrek ere izango dute iritzia emateko aukera. Txapelketako lau pintxoak euro batean eskainiko dituzte parte-hartzaileek, eta, publikoarendako, osagaiak asmatzeko

"Azula inguruko gaztainondoen argazkiak dira"

JOSE ANTONIO OJANGUREN
ARGAZKILARIA

Oso gustuko du argazkilaritza, eta erretiratu ostean du denbora zaletasunerako. Animatu dute herrian erakusketa ipintzera, eta eutsi egin dio erronkari. **Zer erakutsiko duzu erakusketan?** Azula inguruko gaztainondoei ateratako argazki sorta bat erakutsiko dut. Leku horretan, gaztainondo kopuru handia eta oso ederrak egon izan dira. Atentzioa eman dit beti.



L.Z.

Nola hasi zinen argazkilaritza?

Bakarrik, eta Internet bidez. Denbora luzeagoa dut orain; egingo nuke ikastaroren bat, baina nire kabuz ibili izan naiz. **Bilduma handia duzu?** [Barre] Egutero ateratzen ditut argazkiak; gehienbat, etxekoei. 15.000 argazki inguru izango ditut etxean. Pena dut berandu hasi naizelako. Udal Artxiboko argazkiak ikusi, eta duten balioaz jabetzen naiz.

lehiaketa eta pintxo onena baloratzeko aukera izango dira. Pintxo *selfie* lehiaketak eta Hirix bidezko galdeketa erantzuteak ere saria eman dezakete.

Iaz, Rincon de Lola tabernako *Lola pil pil* bakailao pintxoak irabazi zuen eta Maialde landetxeko Jesus Kalboetxeagak txerri azpizuna oinarri hartuta aurkeztutako pintxoak jaso zuen publikoaren saria.

Programazio osagarria

Pintxo domekak girotzeko, Emakume Master Cup pilota txapel-

keta izango da frontoian etzi, 10:30ean, eta, azaroaren 18rako, argazki lehiaketa eta Burrunbazale txaranga daude iragarritan. Horrekin batera, argazki erakusketa zabalduko du Jose Antonio Ojanguren elgetarrak zeramika gelan.

BI DOMEKATAN EURO BATEKO PREZIOAN LEHIKETAKO PINTXOAK DASTATZEKO, ELGETAN

"Iaz ez nuen Elgetan nire maila eman eta aurtur hori dut helburu"

IMANOL ALBIZU 'GOIKOETXE' HARRI-JASOTZAILEA
Herrian egingo du txapelketako lehen saioa, zapatuan

L.Z. ELGETA

Urrezko Aizkolari kopako zein Kirolbet harri-jasotze txapelketako jardunaldia jokatu da bihar, 18:00etan, pilotalekuan. Elgetarren aurrean egingo du txapelketako debuta Albizuk. **Zer moduz joan dira prestaketa saioak?**

Ondo, esango nuke. Tendoi errotilianoan nuen lesioa badoa osatzen, eta hobeto dut belauna. Entrenamenduak ere ondo joan dira. Kubikoak teknika maila handia eskatzen du, eta lanketa horretan ibili naiz.

Iaz, amaiera ona eman zenion denboraldi.

Bai, baina. urduritasunak eraginda. Elgetako frontoian ez nuen iaz nire maila eman, eta arantza hori hortxe dago. Itxaropentsu nago. Ea aurtur nire nibela ematen dudan herrian. **Zapatukoa izango da zure hasiera txapelketan, ezta?**

Bai. Iaz, finalerdietaraino iritsi nintzen, eta, horregatik, aurtur final-laurdenetan sartuko naiz txapelketan.

Irurtzungo Jon Irañeta izango duzu aurrez aurre. Aurkari handia da?



Imanol Albizu. L.Z.

Ez dut ezagutzen, baina Urruti kanporatu du, eta kontuan hartzekoa izango da.

Sumatzen duzu elgetarren babesa? Askok, gainera. Jendea galdezka etortzen da, interesa azaltzen du... Ea lan ona egiten dudan!

Udalatxera irteera eta baba-jana iragarri dituzte hilaren 18rako

Kantsatzeke taldearen eskutik dator proposamena eta egunera arte dago zabalik izena emateko aukera

L.Z. ELGETA

Berezia izango da Elgetako mendi taldeak azarorako antolatu duen irteera. Udalatxera igotzea da asmoa, eta, eguraldiak laguntzen ez badu, Elgeta inguruan egingo dute beste ibilbide bat. Taldea 08:00etan abiatuko da Mendizaleen Plazatik eta antolatzaileek aurreikusten dute hiruzpalau orduko txangoa izango dela. Jakinarazi dute adin txikikoek guraso edo nagusi baten ardurapean bakarrik izango dutela parte hartzeko aukera. Interesatuak egunerako, hilak

15, eman behar dute izena udal-letxean, Facebook bitartez (Kantsatzeke) edo Whatsapp bidez 690 74 00 56 zenbakian.

Baba-jana Ozkarbi elkartean

Mendi irteeraren ostean, 14:30erako baba-jana dute antolatuta Kantsatzeke. "Prezioa momentuan kalkulatu da, gastuen arabera", esan dute. Mendi irteera doan da eta baba-janerako ere hilaren 15erako eman behar da izena. "Mendirako, baba-janerako edo bietarako eman daiteke izena", azpimarratu dute.

Emakume ikusezinak agerian uzteko bisita

Herriko irudietan emakumeak ageri diren, nola eta zergatik ageri diren eta apenas inon agertzen diren herriko emakumeen izenak eta historiak gogora ekarriko dituzte, bihar Turismo Bulegotik irtenda egingo duten bisita gidatu berezian

Oihana Elortza OÑATI

Gipuzkoako Foru Aldundiak hirugarren urtez jarraian antolatatu ditu Ondarearen Europako Jardunaldiak, eta Oñatin hiruretan ospatu dira. *Ondarea, emakumeen emaria* da aurtengo gaia eta bi ekitaldi antolatu dira: lehenengoa joan den astean Protokoloen Artxibo Historikoan hitzaldi bat izan zen eta bigarrena bihar, zapatua, egingo dute, Turismo Bulegoak antolatuta: *Oñatiko emakume ikusezinak* izena duen bisita gidatu berezia izango da, 12:00etan.

Palmondoak eta martiriak

Eduarne Urteaga Turismo gidariak gidatuko du bisita. Turismo Bulegoan elkartu eta unibertsitatean hasiko dute ibilbidea: "Handik hasiko gara, han badaudelako emakumeen irudiak. Herrian zehar asko daude, baina denak agertzen dira santa edo martiri moduan. Baita unibertsitatekoak ere, eta hortxe ikusiko ditugu adibide batzuk".

Horietako irudi bat da unibertsitatearen sarreraren, ezkerreko paretan, dagoen irudia. "Turkiako emakume batena da, XVI. mendekoa. Liburu batzuetan dator korrante kristaura hurbiltzen ari zelako hil zutela; beste batzuetan, berriz, oso ema-



2014an erabaki zuen Oñatiko Udalak kale honi Maria Irizar izena jartzea. O.E.

kume ederra zela eta gizonezkoekin ez elkartzeko aitak dorreran sartu zuela preso. Antza, egun batean, alabari eraso egitekotan zenean, tximista bat sartu dorrera eta aita hil zuen iriztuak. Harrian landutako irudi horretan, dorre bat du

BISITA ZAPATUAN DA, 12:00ETAN, ETA KOMENI DA IZENA AURREZ EMATEA TURISMO BULEGOAN

esku baten eta palmondoa bes-tean. Palmondoak adierazten du martiria zela", dio Urteagak.

XVI. mendetik hasi eta gaur egunera arteko adibideak ikusiko dituzte zapatuko bisitan. "San Migel parrokiaren ere badaude, esaterako, emakumeekin lotutako bitxikeria batzuk, eta horiek ere ezagutuko ditugu", zehaztu du.

Herrikoak

Gerra garaiko emakumeak ere izango dira hizpide. Urteagaren esanetan, liburuetan gizonezkoak

ageri dira gerrako protagonista paperetan, baina emakumeek atzetik egiten zuten lana eta bizi izandako sufrimendua ez da apenas agertzen. "Gogoratu Guran elkarteak argitaratu zuen *Gerrako garrak Oñatin* liburua hartuko dugu, esaterako, oinarri, eta hor datozen izenak erreparatuko eta gogoraraziko ditugu. Jose Antonio Azpiazuk lihoari eta lanbide horri buruz idatzitako liburuko pasarteak ere ekarriko ditugu gogora", zehaztu du Urteagak.

Azken urteetako emakumeen izen propioen artean, Maria Irizarrena ekarriko dute gogora. Herriarekiko edukitako jokabideagatik kale bale bat eskaini zion orduko udalak baina plakan haren izena jarri ordez bere senarrarena jarri zuten, kalea haren alargunari eskainia dela

adieraziz: Apaolaza Alarguna. Hori "onartezina" dela irudituta, kaleari izena aldatzea erabaki zuen, aho batez, udalbatzak 2014ko azaroko osoko bilkuran. Ordutik Maria Irizar kalea da.

'Neska soldadua' kantua

Zapatuko bisitan musika doinuak ere entzungo dira. Hiru Truku taldearen *Neska soldadua* kantua entzungo da, zehazki. Urteagak argitu du zergatik: "Bitoriano Gandiagak jasota zuen, Araotzeko emakume batek kontatuta, garai batean egon zela soldadu joan zen auzoko neska bat. Egia da hori baino gehiago ez dakigula, ez izenik, ez jaiotetxerik, ez historiaren beste azalpenik. Hiru Trukuk kantu batean jaso zuen historiako pasarte hori eta bertakoa izanda, gogora ekarriko dugu".

Bisitako adibide bi



SANTA BARBARA

Unibertsitatearen sarreraren ezkerreko paretan dago irudi hau. Hortik hasiko da zapatuko bisita. Herriko irudi askotan emakumeak martiri edo santa moduan agertzen direla baieztatzen erabiliko dute adibide hau. Turkiako emakume bat zen irudikoa.



MARIA IRIZAR

Maria Irizarrek herriaren zabalkunderako eman zituen euren jabetzakoa ziren lursail batzuk, eta, horregatik, kale bat eskaini zion Udalak. Bere izena jarri ordez senarrarena jarri zuten, alargunari eskainia dela adieraziz. "Onartezina" jo eta aldatzea erabaki zuen Udalak 2014an.

EUSKARALDIA

'Ahobizi' eta 'belarriprest' txapak astelehenean hasiko dira ematen

O.E. OÑATI

Dagoeneko 1.000 herritarrek eman dute izena Euskaraldian eta herriko 50 komertziok baino gehiagok bat egin dute ekimenarekin. Izena eman dutenek astelehenetik aurrera jaso ahal izango dituzte *ahobizi* edo *belarriprest* txapak. Txapen banake-

tak egun hauetan izango dira: azaroaren 12an, 14an, 20an eta 22an kultura etxean, 18:00etatik 20:00etara. Hilaren 17an Foruen plazan, 11:00etatik 13:00etara.

Datozen bi asteburuetan, gainera, informazio mahaia jarriko dute plazan, izena emateko eta materiala erosteko.

Dendetan eta tabernetan

Euskaraldiko Batzordeko kideak bisitak egiten ari dira denda eta tabernetara ekimenean parte hartzera animatzeko. Euskaraldiarekin bat egiten dutenek jendaurrean itsasteko identifikagarri bat jasoko dute, mezu honekin: *Hemen Belarriprest eta Ahobiziak aurki ditzakezu*. Parte hartu eta identifikagarria jasotzeko hona bidali behar dute mezua: onati@euskaraldia.eus.

Herritarren proiektu aukeratuak jakingo dira astelehenean

Partaidetzazko aurrekontuen barruan, astelehenean esango dute herritarrek proposatutako zein proiektu sartuko dituzten aurrekontuetan; 18:30ean izango da, udaletxean, eta herritarrek joan ahal dira. Bozka fasean, 38 proposamenen artean hamar aukeratu behar izan dituzte urrian; 1.100 boto-emaila inguruk parte hartu du bozketan.

San Martin egoitzan Nagusien Astea egingo dute bihartik

Nagusien Astea ospatuko dute datorren astean San Martin egoitzan eta aurten ere herriko hainbat talderen bisita eta emanaldi izango dituzte: bolo txapelketa, dantzak, musika, kantuak... Bihar egingo dute familia bazkariak emango dio hasiera asteari eta ostean Juan Carlos Irizarrek bere azken diskoko piezak joko ditu.

"Ikasgaia izan da alkatetza"

Bigarren agintaldia alkate moduan bukatzeaz du Mikel Biainek eta alkatetzarako bere etapa hor bukatuko dela adierazi du Goiena Telebistako 'Harira' saioan. Herritarrekin izan duen hartu-emanari esker orain herriaren beste ezagutza bat duela aitortu du

Oihana Elortza OÑATI

Datorren hauteskundeetako alkategaia ez dela izango adierazi zuen martitzenean Mikel Biainek Goiena telebistako *Harira* saioan: "Nire etapa bukatu da. Erabakita dut". Agintaldia bukatzen denean lehengo lanbidera bueltatzeko asmoa duela ere gaineratu zuen Biainek, finantzen alorrera.

Etapia "aberasgarria"

Horixe argituz hasi zuten martitzenean *Harira* saioa Eneko Azkarate kazetariak eta Oñatiko alkate Mikel Biainek. Eta Udalean alkate jardunean egin dituen zortzi urte hauetako balorazioa egin zuen segidan, kazetariak hala eskatuta. "Izandako esperientzia ikasgai bat izan da, oso aberasgarria. Pertsonen, eurekin izandako harremanekin, ere gelditzen naiz. Asko ikasi dugu taldean egon garen guztiok. Herria pertsonen egiten dute, bakoitzak bere jardunean. Elkarte eta herritar askorekin izan dugu hartu-eman eta horrek eman dit herriaren ezagutza bat". Momentu zailenei edo gogorrenei buruz galdetuta, berriz, kale garbiketako purifikazio prozesua aipatu zuen: "Kontu hartzaileak egindako txosten baten oinarritutako erabakia izan da eta agerian geratu da erabaki zuzena izan dela, nahiz eta arlo sozialetik gogorra iruditu, langile batzuek zeudelako hor jokoan. Arlo pertsonalean, desgaste handia eragin zidan prozesu horrek".

Duela aste batzuk, agintaldiaren balorazioa egin zuen Udal Gobernuak eta orduan esan zuten "gauzak beste modu batera" egin dituztela. Modu hori "herritarrei begira egindako gobernantza" izan dela definitu



Mikel Biain, Goiena telebistako platoon, martitzenean, *Harira* grabatu ostean. J. DOMINGO

zuen Biainek: "Duela zortzi urte, freskurarekin heldu ginen eta herritarrekin gauzak egiteko moduak ezberdinak izan ziren hasieratik, oso gertukoak. Horren aldeko apustua egin zen, eta Eltzia da adibidea; elkarteekin harremanetan egoteko orduan, euren autonomia errespetatzeko eta herritarrekin harreman zuzena izateko konpromisoa hartu genuen. Eta horrek arrastoa utzi du herrian, nabaria da eta herritarrek ikusi dutela kontu-

ratzen gara; Udala gertuago dagoela esan digute. Parte-hartzeko Departamentua, Berdintasunarena... propio sortu ziren, apustu konkretuak egin dira, erabaki konkretuak, politika zehatzak egon dira".

Eltziako taberna, abendurako

Azaroaren 16an eta 17an egingo da Eltzari Eragiten ospakizuna, eta Topagunea espazioari zein erabilera eman ikusteko beste toki batzuetako esperientziak

ezagutuko direla aipatu zuen. "2013an hasi zen prozesua errealitate fisiko batetik. Eraikina hor zegoen, hutsik. Bost urtean poliki, proiektu komunitarioa den neurrian, proiektuan eruren burua ikusten zuten eragile, erakunde eta herritarrekin osatzen joan gara. Hasieratik izan dugu garbi Udalaren presentzia beharrezkoa zela, baina eragileen esku utzi behar zela proiektuak bere pausoak ematea. Masa kritiko indartsua dago Eltzian egun. Taberna hartu duen taldea kooperatiba moduan eratu da, eta, asteburu horretan zabalik egongo den arren, espero dugu abendurako erabat irekita egotea".

Eusko Ikaskuntzak hilaren azken asteburuan Oñatin egingo duen mendeurrenako ospakizun ekitaldiari dagokionez, duela 100 urte egin zuten formatua errepikatu gura dela aurreratu zuen Biainek; soka dantza egingo da eta Arizkungo dantzariak dantzatzeko dute Oñatikoekin batera.

Azaroaren 25ari begira aurkeztuko duten indarkeria matxistaren aurkako protokoloak erakundeon jokatzeke modua jasoko duela aurreratu zuen: "Zerbait larria gertatzen denean erakunde bakoitzak nola jokatu behar duen jakitea garrantzitsua dela iruditzen zaigu. Markoa marraztu eta indarkeria matxistaz zer ulertzen dugun. Hori definituta dago; baita erakundeek zein baliabide jarriko dituen zehaztuta ere".

Tabernarien betebeharrak

Ostalaritzako establezimenduendako egindako ordenantza berriari dagokionez, berriz, alkateak aipatu zuen ez dela egia, EAJk dioen moduan, herritarren esku uzten dela salaketak jartzea: "Ordenantza irakurri duenak ikusiko du tabernarien betebeharrak berdin jarraitzen dutela eta legeak jasotzen dituenak bete beharko dituela, bai kontrol aldetik, bai neurketa aldetik. EAJ aparatua jartzearekin tematuta dago. Ordenantza hau beste herri batzuetako ereduak hartuta egindakoa da eta uste dugu emaitza onak emango dituela". EAJko bozeramaileak, Lourdes Idoiagak, *Harira*-n, herrian kanpoko igerilekuen eta atletismo pisten beharra zegoela adierazi zuen, baina horien beharrik ez du ikusten egungo

Udal Gobernuak: "Badago herrian sektore bat korrika egiten duena. Eurekin berba egin dugu eta diote ez dagoela justifikatuta pista propio bat egitea Oñatiko erabiltzaileendako. Kilometro gutxira dago Arrasatekoa, oso gutxi erabiltzen da, eta zentzuduna hura erabiltzea izango litzateke. Kanpoko igerilekuei dagokienez, datu hotzekin analizatu beharreko gaia da. Udalak egin du esfortzu bat udako aisialdigu-neak eskaintzeko: Usako, ur txorrotak...".

EAJren proposamenak, kontuan

Hurrengo aurrekontuez, Biainek adierazi zuen beti hartzen dituztela kontuan oposizioak egindako proposamenak, baina ez zaio "serioa" iruditzen EAJk ekarpenak jasotzeko bideak zabaldu izana. "Saiakera berezia egin da, bide adostuan, 500.000 euro herritarrek egindako proposamenetarako izateko. Beste bide batzuetatik datozen ekarpenak ere kontuan hartuko dira, duda barik, baina aurtengo apustua hori izan da. Asmoa da hilaren 19rako gure proposamenak EAJri aurkeztea. Euren ekarpenak jasoko ditugu gero, eta saiatuko gara onargarriak iruditzen zaizkigun programan txertatzen. Abenduaren 5ean ikusiko dugu bakoitzak zein jarrera hartzen duen". Aurrekontuaren zati handi bat kiroldegiaren proiektuak hartuko duela esan zuen.

"GAUZAK BESTE MODU BATEAN EGIN DITUGU ETA IKUSI DUGU KALEAN HORI NABARITU DELA"

"KORRIKALARIEKIN EGIN DUGU BERBA ETA GUK ERE EZ DUGU ATLETISMO PISTAREN BEHARRIK IKUSTEN"

"AURREKONTUEI BEGIRA, BETI HARTZEN DITUGU KONTUAN EAJ-REN EKARPENAK"



Auzoko proiektuko kideak, ikasturte berriaren aurkezpenean. AUZOKO

Auzoko egitasmoaren ikasturte berria abian da

2013an sortu zen egitasmo horrek astelehenean egin zuen ikasturte berriaren aurkezpena. Aurten, ordu eta erdi iraungo duten saio ludikoak egingo dituzte. Hala, astelehenero elkartuko dira, 19:00etatik 20:30era bitartean

Maialen Regueiro OÑATI

Astelehenean egin zuten Auzoko egitasmoaren ikasturte berriaren aurkezpena. 2013an sortu zen proiektua eta oraingoa, hain zuzen, bosgarren edizioa izango da.

Auzoko, Euskalzaleen Topaguneak eta Oñatiko Udalak elkar-lanean martxan jarritako doako proiektu bat da, herrian dauden kultura eta hizkuntza desberdinak aintzat hartzea eta elkar ezagutzea helburu dituen, euskara eta euskal kultura ardatz izanik. Hala, egitasmo honetan, *auzotarrek*—euskara menperatzen duten pertsonak— eta *auzokideek*—euskara ez dakiten edo menperatzen ez duten pertsonak—hartu dezakete parte. Guztion artean talde bat osatzen dute eta astean behin saio ludikoak egingo elkartzen dira.

Astelehenero hitzordua

Edizio honetan, astelehenetan elkartuko dira, Bidebarrietan—19:00etatik 20:30etara bitartean—proiektuko kideak eta ordu eta erdi iraungo duten saioak egingo dituzte. Saio horietan,

jolasak, tailerrak, herrian ekin-tza desberdinak eta afariak egingo dituzte, besteak beste. Hala, lagunarteko giroan ondo pasatzea nahi dute proiektuko dinamizatzaileek.

Kultur aniztasuna

Guztira, 30 kidek osatzen dute taldea, gutxi gorabehera, eta hainbat herrialdeetatik eratorritakoak dira. Horietako batzuk euskara ikasten ari dira, beste batzuek nahiko ondo menperatzen dute dagoeneko hizkuntza eta beste batzuek ez dute ez euskaraz ezta gaztelaniaz ulertzen. Hori dela eta, saioen hizkuntza gaztelania izango da, baina Auzoko proiektuaren dinamizatzaile Julen Korkostegik hau adierazi du: "Euskara ez jakiteagatik ez da inor talde-tik kanpo geratuko". Bide batez,

**URTETIK URTERA
PARTAIDE KOPURUA
AREAGOTU EGIN DA;
BALORAZIOA
POSITIBOA DA**

jakinarazi du saioetan parte hartu nahi duenak ateak irekiak izango dituela astelehenero.

Integrazioarako lagungarria

Astelehenero egingo dituzten saioak baliagarriak izaten dira taldekideentzat, horrek integrazioarako asko laguntzen die. Izan ere, partaideen artean kultura ezberdinetako jendea dago eta beraien artean gai asko elkarbanatzen dira, guztientzat erabilgarriak direnak. Hori da, azken batean, taldekideek eskertzen dutena. Are gehiago, aurreko edizioetan, partaideak oso gustura aritu dira eta batzuek urte batetik bestera errepikatu egingo dute.

Balorazio positiboa

Aurtengoa dagoeneko bosgarren edizioa da eta Korkostegik balorazio positiboa egin du. Urte-tik urtera partaide kopurua areagotu egin da, eta hori pozgarria da. Azken batean, integrazioarako eta kultura ezberdinak ezagutzeko eta herriko bizikidetzak sustatzeko balio duen proiektua da.



NIRE USTEZ

JOSUNE ODRIOZOLA

Bihar berandu, agian

Maiatzak 4. Hurrengo astean azterketa dut, baina arratsaldean nire pelikula gustukoena dago telebistan. Iragarkietan apunteak begiratuko ditut. Kasualitatea! Mugikorrean mezu asko dauzkat erantzuteko eta pelikula hasi da. Gurasoek afaltzera joateko deitu naute eta jada begiak ixten zaizkit, beraz, ohera joatea izango da onena. Bihar, lehen minututik topera hasiko naiz.

Ekainak 11. Nire logela nolakoa den ahaztua dut. Arropak, menditxoak osatuz, bertatik botata baititut. Ama maiatzetik ari da txukuntzeko esanez, baina ez dut denborarik. Bihar txukunduko dut guztia.

Uztailak 18. Ez dut amona aspaldian bisitatu. Lanpetuta nago, bihar joango naiz. Pentsatzen jarri eta, bihartik aurrera, egitekoak momentuan egiten hasi beharko naiz. Baina, bihar.

Abuztuak 25. Maiatzeko gutxiegiaren ondorioz, uda ikasten pasa dut. Logelak Aloñako mendilerroa dirudi eta eskumuturra hautsi dudanez, ezin dut bakarrik jaso. Amona ospitalean dago.

Bizi bakarra dugu. Ez dezagun utzi biharko gaur egin dezakeguna.



Txantxiku Txuriurdinak taldea asteazkeneko aurkezpenean. MARIAN GONZALEZ

Txantxiku Txuriurdinak taldeak Igor Zubeldia 'fitxatu' berri du

Azkoitiarrak gola sartzen duen bakoitzean produktu sorta bat jasoko du Txantxiku Txuriurdinak-en eskutik

M.R OÑATI

Oñatiko Txantxiku Txuriurdinak taldeak aita ponteko berria *fitxatu* du, Igor Zubeldia Realeko jokalaria, hain zuzen ere. Asteazkenean egin zuten aurkezpena, gaztelekuan, eta azkoitiarraren taldekide Hector Moreno jokalaria ere ekitaldian izan zen, besteak beste.

Babesa harmailetan

Realzale oñatiarrak aita ponteko gabe gelditu ziren duela urte batzuk, eta, taldeari jarraipena emateko asmoz, Realarekin harremanetan jarri eta Zubeldiak

lagunarterik ez zuela adierazi zien. Hala, jokalaria proposamena helarazi eta hark dudarik izan ez zuela adierazi zuen. Gainera, azpimarratu zuen Anoetako harmailetan horrelako babesa edukitzea positiboa dela.

Oñatirekin lotura

Jokalaria izatez Azkoitikoa bada ere, badu Oñatiko herriarekin lotura. Izan ere, familia du Oñatin eta horiek *peña*-ko kide egingo direla aitortu zuen. Gainera, Txantxiku Txuriurdinak taldeak sorreratik egin duen lana azpimarratu zuen.



Nerea Zubia zinegotzia eta Ganbarako kide Aitor Biain, Oihana Diaz eta Xabi Mugarza. IMANOL BELOKI

25 urteko bidea jasotzen duen erakusketa, zabalik

25 urte beteko ditu Ganbara abesbatzak 2019an; ospatzeko, 'Gure bidea' izeneko erakusketa zabaldu dute kultura etxean. Hilaren 17ra arte egongo da ikusgai. Horrez gain, domekan, Musikegunak zikloaren barruan kontzertua eskainiko dute, 19:00etan

Arantzazu Ezkibel Galdos OÑATI

1994an ekin zion bideari Ganbara abesbatzak. Musikarekiko eta abesbatzekiko zaletasuna zuten 12 lagun elkartu, eta Donostiara joan ziren elkarte modura erregistratzera. "Argi genuen zer gura genuen", azaldu du Ganbara abesbatzako kide Oihana Diazek.

Ordutik hona, makina bat istorio, estres, poztasun, lan eta sari jaso eta bizi izan dituzte. "Familia bat gara eta horrek ahalbideratu du 25 urte hauetan irautea; harreman hori musikarekin fusioatuta lortu dugu zailtasunei aurre egitea", gaineratu du. Orain dela 25 urte hartako Ganbara abesbatzak eta gaur egungoak ez dute zerikusirik: ez kopuruari dagokionez, ez erabiltzen duten arropetan, ezta egiten duten musikan ere. Hala ere, musikarekiko duten zaletasuna eta gustuko duten hori egiteak hor jarraitzen du. Hori da 25 urte hauetan iraun duena.

Ganbara Gazte abesbatza moduan sortu zuten; lehenengo zuzendaria Gorka Cueva izan zen, ondoren Esteban Urzelaik hartu zuen gidaritza eta 2009a ezker Aitor Biain da zuzendaria.

Erakusketa kultura etxean

Gure bidea erakusketa zabaldu dute kultura etxean. Lau txoko bereizi dituzte: lehenengo txokoa bazkideei eskainitakoa da; bigarren, abesbatzak izan dituen uniformeak ikus daitezke; hirugarren, argazkiak eta ikus-entzunezkoak daude; eta azkeneko txokoa, 25 urteotan jasotako sariak ageri dira. "2000. urtean, Avilesen, bigarren saria eskuratu genuenetik, esan daiteke urtero lortu dugula sariren

DOMEKAN KONTZERTUA ESKAINIKO DUTE ORKESTRAREKIN BATERA SANTA ANAN

bat", azaldu du Ganbarako zuzendari Aitor Biainek. Erakusketaren bitartez Ganbarak izan duen bilakaera ikus daitekeela gaineratu du Biainek.

Udaberrirako disko berria

25 urte 2019an beteko dituztela nabarmendu du Biainek; hala ere, ospakizunak ikasturte guttian egingo dituztela dio. Udaberrian, *Gure bidea* izeneko diskoa argitaratuko dute; martxoan, ama birjinari eskainitako kontzertua egingo dute, eta hor, Iker Gonzalezek idatzi duen *Stabat Mater*-a estreinatuko dute; eta azaroan, Ganbaratik pasa diren abeslariarekin emanaldi "historikoa" egin gura dute.

Domekan, Santa Anan

Etzi, domeka, Musikegunak zikloaren barruan, emanaldia eskainiko du Ganbarak Orkestrarekin batera Santa Anan, 19:00etan. Sarrerak 6 euroren truke daude salgai *Bibe.me* atarian eta Txokolateixan.



Imanol Uboda. DONINORREZ

"Osagarri interesgarriak izango ditu emanaldiak"

IMANOL UBEDA

MUSIKARIA

Gaztetxean joko du Don Inorrez taldeak domekan

A.E. OÑATI

Antixenean ikasturtea hasiko dute: gaur, Revolta Permanent eta The Rodeo Idiot Engine taldeek joko dute, 22:30ean. Domekan, aldiz, Imanol Uboda proiektu berriarekin izango da. Emanaldia 12:30ean izango da.

Domekan joko duzue, 12:30ean; ezohiko ordua da halakoetarako.

Bai, bitxia da. Hala ere, diskoa plazaratu ondoren, abisatu bako emanaldia eskaini genuen Igel-don, eguerdian, eta giro berezia sortu zen. Berezia izan arren, baditu beste osagarri interesgarri batzuk.

Cadizen grabatu duzue *Mugiro bila* diskoa. Soinu berezia du?

Kantuak prestatu genituenean pentsatu genuen Paco Loco ekoizlea zela pertsona egokia grabazioa egiteko; horregatik joan ginen hara. Diskoak duen sonoritatea zuzenekoek ere badute. **Antixeneko gaztetxean Bide Ertzean taldearekin topo egingo duela pentsatzen duenak zer aurkituko du?** Egia esan, jende askok esan dit ni neu naizela bai Bide Ertzean taldean abesten zuena eta baita oraingoan abesten duena ere. Hala ere, proiektu honetan ahalgin bat egin dugu bereizteko, baina ez dakit asmatu ote dugun. Diskoko 10 abestiez gain, beste bertsio batzuk ere joko ditugu.

Mendiko federatu txartelak bideratzeko aukera dago azaroan

Aloña Mendiko mendi sailak mendiko federatu txartelak tramitzatzeko aukera zabaldu du azaroan zehar. Federatu berriak egiteko edo ohiko federatuetan edozein aldaketa egiteko izango da zerbitzua. Aloña Mendiko egoitzan egongo dira, azaroaren 13an eta 15ean, 19:15etik 22:30era.

Horrez gain, Internet bitartez egiteko aukera ere egongo da: alonamendi.mendi@gmail.com helbidera idatzita, azaroaren 20a baino lehen. Txartelak tramitatu ahal izateko eskatuko dituzten datuak dira: izen-abizenak, jaiotza-data, helbidea, nortasun agiri zenbakia, kontu korronte zenbakia, telefonoa, posta elektronikoa, federatu nibela: Euskal, FEDME, eta gehigarriak: Frantziar Pirinioak, mundu osoa, BTT, pistako eskia, snowboard... Orain arte mendian federatuta egon diren bazkideei automatikoki berrituko zaie federatu txartela. Federatuta egotearen beharra nabarmendu du Aloñak.

Markelen Lagunartia bazkaria egingo du azaroaren 17an

Markel Irizar txirrindulariaren lagunarteak denboraldi amaierako bazkaria egingo du azaroaren 17an, Zotz tabernan, 14:30ean. Aurrez eman behar da izena, Bizipoz kafetegian 10 euroko bermea ordainduta. Jai giroan egingo dute bazkaria; gainera, datorren urtean ere oñatiarra errepidean, bizikletaren gainean, ikusteko aukera izango dute.

What A Band taldeak emanaldia egingo du Iturrin domekan

Bergarako taldeak kontzertua eskainiko du etzi, domeka, 19:30ean, Iturri tabernan. *Thousand tons of steel* disko berriaren aurkezpenean egingo dute: lan garbia eta landua. Country-rock doinuak dira nagusi diskoan, baina bestelako doinuak entzuteko aukera ere egongo da. Domeka iluntzea girotzeko asmoa izango dute bergararrak.



Agirreurreta, Altube, De la Torre eta Bengoa, erakusketako maillot batzuekin. IMANOL BELOKI

Euskal ziklismoaren bilakaera ezagutzeko

TXIRRINDULARITZA Kas taldeko masajista izandako Karmelo Uriak batutako materialaren zati bat ikusgai ipini du Dorletako Ama Txirrindulari taldeak, bereziki, euskal txirrindulariei eta bailarakoei egin diete aitortza, eta baita Sean Kelly irlandarrari ere

Mireia Bikuña LEINTZ GATZAGA

Kas taldeko masajista izandako Karmelo Uriak ganbaran zuen materialak argia ikusi du. Dorletako Ama Txirrindulari taldeak 133 koadroz osatutako erakusketa ipini du Dorleta santutegian. Koadroez gain, hainbat txirrindularik ama birjinari utzitako maillotak ere ikus daitezke. Etzi, domeka, zabalduko dute erakus-

keta, eta martxo bukaera arte egongo da ikusgai. "Eskaerapeko bisitak egingo ditugu. Gurekin sare sozialen bidez kontaktuan ipinita adostuko dugu eguna eta ordua. Santutegiaren atean ere egongo dira telefonoak gurekin harremanetan ipintzeko", esan du Dorletako Ama Txirrindulari taldeko kide Joserra Agirreurretak.

Euskaldunak eta bailarakoak

Euskal Herriko txirrindulariak izeneko erakusketan, "etxeko ziklistak" daude, bereziki. "Euskal zaleak munduko onenak garela esaten da beti. Bada, guk erakutsi gura dugu euskal ziklistak onenak izan direla une askotan. Uriak esan izan du Eddy Merckxen garaian zegoen talde onena Kas zela. Eta hori

bada zer bait", aipatu du Agirreurretak.

Eta, euskaldunen artean, leku berezia dute bailarakoek. Hamabik. Santutegian sartu eta segituan, Debagoienak emandako ziklisten errepasoa dago: Mikel Lizarralde, Enrique Alonso, Jon Odriozola... Eta Markel Irizar ere bai. Euren argazkiak eta maillotak ikus daitezke.

Santutegiaren erdian dauden argazkietan, euskal ziklistak dira nagusi. Askotariko egoerak erakusten dituzte erretratu horiek: helmugara heltzen, aldapak igotzen, gurasoen zorionak jasotzen, taldeko kideekin solasean... Argazki guztiak daude identifikatuta; askotan, egoera eta lekua ere zehazten dira.

Euskal ziklista horien artean, badago kanpotar bat: Sean Kelly. "Uriak eta Kellyk aita-semeek duten antzeko harremana zuten, eta Uriaren omenez ipini dugu Paris-Roubaix probako argazki bat", esan du Alberto Altubek.

Munduko txapeldunak

Santutegiaren aldare parean ipinita, ezkerretara, ziklista izarrak daude. Goren heldu diren txirrindulariak. Tartean, munduko txapeldun izandakoak. Eta gune horretan dago, hain justu ere, erakusketan dagoen emakume bakarra: Joane Somarriba. Hura ere, munduko txapeldun izatearren. Tourra eta Giroa ere irabazi izan zituen bizkaitarrak. "Izarren gune horretan leku berezia dauka Marino Lejarretak. Ez da munduko txapeldun izan, baina, guretako, oso inportantea da, oraindik ere".

Munduko azken txapeldun Alejandro Valverderen maillota ez dago erakusketan, oraingoz. Baina bidean da. "Eusebio Unzu-

esan digu ekarriko dutela. Bidalko digutela; eta zain gaude", kontatu dute.

Bildumaren laugarren gunean, 1960ko eta 1970eko hamarkade-tako argazkiak eta maillotak daude.

Istripu batzuk ere bai

Ziklistak oinarri dituzten erretratuak gain, euskal txirrindularitzak bizi izandako bi gertaera gogora ekarri gura izan dituzte antolatzaileek: batetik, Migel Mari Lasak 1968ko Frantziako Tourrean izandako istripua, sorbalda apurtu zueneko; beste alde batetik, Joseba Belokiren erorikoa 2003ko Tourrean.

Babesleei aitortza

Euskal txirrindularitzan eta, oro har talde guztietan, babesleek izan duten garrantzia azpimarratu dute. Bailarako harrobiko taldeak babestu dituzten maillotak ikus daitezke: Arrasate Kirolak, Jai, Eroski... "Erakusketaren sarreran, Fagor taldearen argazki erraldoi bat ipini dugu. Fagorri, txirrindularitzan izan duen indarra eta garrantzia aitortu gura izan diogu".

Beste ekintza batzuk

Erakusketa zabalik dagoen artean, beste hainbat ekintza egin gura dituzte; besteak beste, mahai-inguruak txirrindulari profesionalen eta amateurrekin, eta harrobiko taldeen aurkezpenak.

133 ERRETRATU ETA HAINBAT MAILLOT IPINI DITUZTE IKUSGAI DORLETAKO SANTUTEGIAN

HERRI KIROLAK Urrezko Aizkolari Kopako kanporaketak Elgetan

Zizurkilgo Joseba Otaegi, Arostegiko Oier Kañameres eta Zigako Joxean Etxeberria lehiatuko dira nor baino nor gehiago. Eusko Label Sariaren kanporaketa Elgetako pilotalekuan jokatu da, zapatuan, 18:00etan.

Hiru aizkolariek lan berbera egin beharko dute: hamabi enbor ebaki beharko dituzte, ahalik eta denbora gutxien erabilita.

Bi zatitan egingo dute lan hori, eta, atsedean hartzen duten bitartean, harri-jasotzaileen lana gertutik ezagutzeko aukera egongo da. Izan ere, jaialdia borobiltzeko, harri-jasotze txapelketako jardunaldia ere jokatu dute. Hain justu ere, Imanol Albizu *Goikoetxe* elgetarra etxean lehiatuko da Irantzuko Jon Irañetaren kontra.

Hiru harri erabiliko dituzte beraien lana egiteko: 100 kiloko zilindroa, 100 kiloko harri kubikoa eta 100 kiloko bola.

PILOTA Master Cup txapelketako kanporaketak, etzi

Promozio eta Lehenengo mailako kanporaketak jokatu dituzte Elgetako pilotalekuan etzi, domeka, 10:30ean hasita. Hain zuzen ere, A, B, D eta E taldeetako kanporaketak jokatu dituzte, lau t'erdiko koardoren barruan.

10:30ean, Olatz Arrieta (Gernika), Arrate Bergara (Bergara) eta Eneritz Arrieta (Azkoitia)

lehiatuko dira. Ostean, 11:30ean, Leire Etxaniz (Etxebarria), Olatz Ruiz de Larramendi (Eulate) eta Iera Agirre (Leitza). Bi kanporaketa horiek Lehenengo Mailakoak dira. Ondoren, Promozio Mailakoak lehiatuko dira. 12:30ean, Patri Espinar (Usansolo), Maite Ruiz de Larramendi (Eulate) eta Maddi Mendizabal (Zaldibia). Jaialdia bukatzeko, 13:30ean, Lehenengo Mailako, Maider Mendizabal (Anoeta), Leire Garai (Gasteiz) eta Miren Larrarte (Bidania).

LASTERKETAK Aloñako Igoera maiatzaren 5ean jokatu da

Horixe jakinarazi dute antolatzaileek: 2019ko maiatzaren 5ean. Oraingoz, ez dute beste ezer aurreratu, baina sare sozialen bidez zabaldu dute hainbat sorpresa egongo direla hurrengo urteko igoeran. Era berean, jakinarazi dute laster zabalduko dutela bertan izena emateko epea. Aloñako Igoerak 22,6 kilometro ditu.

Leintz Arizmendi da faborito, baina derbia da

FUTBOLA Azken urteotan kategoria ezberdinetan lehiatu ondoren, domekan zein baino zein gehiago izango dira ostera ere Leintz Arizmendi eta Bergara. Aurrekoen multzoan egon gura dute Leintzekoek; mahoneroen helburua, berriz, mailari eustea da

Xabier Urzelai ARRASATE
Sortu berri duten kategoria berrian –Ohorezko Erregionala– lehiatuko dira domekan Leintz Arizmendi eta Bergara (12:30, Mojategi), eta, derbi horri begira, Leintzekoak dira faborito: "Egia da jokalaria batzuek taldea utzi dutela, baina iazko blokearen %80ri eutsi diogu, eta aurreko lau talde indartsuenen multzoan egon beharko genuke", dio Andoni Ezkurra entrenatzaileak. Oraingoz, aurrekoen multzo horretan dago Leintz Arizmendi; izan ere, jokaturako sei partiduetatik lau irabazi ditu.

Reala, Eibar eta Añorga dira beste hiru talde horiek, eta, hain zuzen, horien guztien kontra dagoeneko jokatu du Bergarak: "Saikapenak ez du erakusten Bergararen benetako gaitasuna, talde gogorak izan dituzte sei jardunaldi hauetan, eta, derbia izanda, kontu handiarekin zelairatuko gara", gaineratu du Ezkurrak.

Mahoneroek talde gaztea dute
Bergarako taldeko entrenatzaile Manu Diazek garbi du domekako derbiari begira zein den faboritoa: "Leintz Arizmendi talde indartsua da, eta hainbat jokalaria bolada onean dabilta.



Arizmendik eta Bergarak duela bi urte Ibarren jokaturako derbiko une bat. I.S.

BERGARAK LIGAKO OILARRAK IZAN DITU AURREAN LIGA HASIERAN; LEINTZ DA HORIETAKO BAT

Esate baterako, Lore Etxeandia golak sartu eta sartu dabil. Baina egia da horrelako partiduetan edozer gerta daitekeela".

Bergarak ere hainbat jokalaria garrantzitsu galdu ditu iaztik hona, eta jokalaria gazte batzuk

igo dituzte lehenengo taldera: "Neska mordoa ditugu eta bi talde sortu ditugu, horrekin gaude pozik. Baina bai, Ohorezko Erregionala sortu berri duten kategoria da, eta mailari eustea da gura duguna, horretan saiatuko gara. Orain arteko partidu gehienak goiko taldeen kontra jokatu ditugu, baina hori ez da gure liga, horiek beste maila bateko taldeak dira. Ondoren etorriko dira gure mailako taldeen kontrako partiduak, eta hor batu beharko ditugu puntuak".

Mondrak eta Bergarak, etxean

Ligan bigarren dagoen Eibar eta laugarren dagoen Mondra aurrez aurre izango dira domekan Mojategin (17:00). Lau puntuko aldea dago bi talde horien artean. Bergarak ere etxean jokaturako du (domeka, 15:30), beste kontrario zuzen baten kontra, biak daude-eta sailkapenaren erdian. Aretxabaletak, berriz, Deban du partidua zapatuan (16:30).



Mondrako jokariak, Vasconiaren kontrako lehiak. I.S.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA	ARETO FUTBOLA	SASKIBALOIA
OHOREZKO ERREGIONA.	EUSKADIKO TXAPELK.	EBA
Mondra-Eibar Domeka. 17:00. Mojategi.	Eskoriatza-Mondrate Domeka. 18:00. Intxaurt.	MU-Goierri Domeka. 18:30. Iturripe.
Amaikak Bat-Aretxaba. Zapatua. 16:30. Errotazar.	Aretxabaleta-Sestao Zapatua. 17:30. Gernika.	GIPIZKOAKO TXAPELK.
Bergara-Zarautz Domeka. 15:30. Agorros.	OHOREZKO GAZTEAK	Mekalki Aloña-C.Aitona Zapatua. 16:00. Oñati.
ERREGIONAL PREFERE.	Otxartabe-Eskoriatza Zapatua. 18:15. Bilbo	GIP. BIGARREN MAILA
Soraluze-Mondra Zapatua. 15:30. Ezozia.	EMAKUMEZKOAK	Internaci.-Bergara So. Zapatua. 18:00. Donostia.
Idiazabal-Aloña Mendi Zapatua. 10:30. Idiazabal.	Eskoriatza (Atsedena).	GIP. HIRUGARREN MAILA
Antzuola-Ikasberri Zapatua. 16:00. Estala.	ESKUBALOIA	Getaria.-Mekalki Aloña Zapatua. 18:00. Zubikoa
Aretxabaleta-Lazkao Domeka. 16:30. Ibarra.	EUSKADIKO TXAPELK.	MU C - Chicano Bulls Domeka. 16:00. Iturripe.
EMAKUMEZKOEN ERRE.	Ford Mugarri-Basauri Zapatua. 17:30. Iturripe.	EMAKUMEZKOAK
L. Arizmendi-Bergara Domeka. 12:30. Mojategi.	Fagor Industr.-Urduliz Zapatua. 18:30. Zubikoa.	Ostadar-Eskoriatza Zapatua. 16:00. Lasarte.
LEHEN ERREGIONALA	GIPIZKOAKO TXAPELK.	PILOTA
Aloña Mendi-Arizmendi Domeka. 16:30. Azkoaga.	Soraluze BKE-Ormaizt. Zapatua. 17:45. Bergara.	EMAKUME MASTER CUP
Bergara (Atsedena)	GAZTEAK EMAKUMEZ.	Elgetan: Domekan, 10:30ean hasita.
	Ordizia-Athlon Aloña Zapatua. 17:30. Ordizia.	HERRI KIROLAK
	GAZTEAK GIZONEZKO.	URREZKO AIZKOLARI K.
	Egia-Arrasate Zapatua. 12:45. Donostia.	Elgetan: Zapatuan, 18:00etan hasita.

ESKUBALOIA Biak etxean eta kontrario interesgarriekin

Ford Mugarri Arrasatek eta Fagor Industrial Aloña Mendik etxean jokaturako dute oraingo asteburuan. Oñatiarrek, gainera, ez dute nolanahiko kontrarioa izango, lider dagoen Urduliz etorriko da-eta Zubikoara (zapatua, 18:30). Ford Mugarrik eta Basaurik, berriz, ligako oilar izateari utzi diote aurret. Aurrez aurre izango dira bihar (17:30).

ATLETISMOA Behobia Donostia probarekin 'Harmailatik' berezia

Domekan egingo dute Behobia-Donostia lasterketaren 54. edizioa, eta, urtero moduan, Deba-goieneko korrikalari mordoa batuko da irteera puntuan. Hala, Goiena telebistak *Harmailatik* berezia egingo du hitzordu horrekin, astelehenean (21:30). Domekan bertan, *Goiena.eus* atarian egingo dute ibarreko atleten gaineko jarraipena.

ARETO FUTBOLA Derbia Eskoriatzaren eta Mondrateren artean

Gipuzkoako txapelketan, derbia izango da domeka arratsaldean, bederatzigarren dagoen Eskoriatzak laugarren postuan dagoen Mondrate hartuko du-eta (18:00). Azpimarratzekoa da Aretxabaletak bost jardunaldi hauetan egin duen lana: kategoria galdu eta gero, ligako lehenengo postuan dago. Zapatuan, Sestaoren bisita izango dute Ibarren (17:30).

SASKIBALOIA MUK eta Goierri derbia jokaturako dute etzi

Domekan (18:30, Iturripe), Mondragon Unibertsitateak eta Goierri derbia jokaturako dute. Zuri-moreek dagoeneko zazpi puntu eskuratu dituzte, eta goiko postuei begira daude –bosgarren daude sailkapenean–, jokaturako lau partiduetatik hiru irabazi eta gero; goierritarrek, kontrara, partidu bakarra irabazi dute orain arte.



Izaskun Murgia Elkarte Lirikoko kideak *Luisa Fernanda* zarzuela entseatzen zapatuan. IMANOL SORIANO

Ikasitakoak berrikasita, estreinaldirako prest

'Luisa Fernanda' zarzuela eskainiko du, bigarrenenez, Arrasateko Izaskun Murgia Elkarte Lirikoak azaroaren 17an, 18an, 23an eta 24an; sarrerak 19 eurotan eros daitezke Amaia leihatilan eta, online, Arrasateko Udalaren 'Arrasate.eus' atarian

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE 2003an egin zuten Izaskun Murgia Elkarteko Lirikoko kideek *Luisa Fernanda* zarzuela (Federico Moreno Torroba, 1932), eta hemeretzigarrena eskaintzeko horixe aukeratu dute; edozelan ere, kideak buru-belarri ari dira datorren asteko estreinaldirako prestaketa lanetan, hastapenetako ilusio eta ardura berarekin.

Martxoan ekin zieten entseguetara eta bestelako prestaketei; aste honetan, astelehenean, egin zuen zuzendariak Arrasate Musikaleko orkestrarekin lehenengo; eta datorren astelehenean, Amaia Udal Antzokiko taularen gainean egingo dute entsegu orokorra.

Berria balitz bezala

Tere Gonzalez zuzendariak dio, "obra konplikatu eta luzea" dela –bi ordu eta erdiko iraupea du–, baina, aldi berean, "publikoarentzako dibertigarria" den komedia dela; eta gaineratu du abesbatzak kantatzeko une asko dituelako aukeratu duela berriz ere; ez daude ezaugarri hori duten obra asko.

Genero horretako istorioetan, amodio eta desamodio kontuak izaten dira nagusi, baina honako honek oinarri politikoa ere badu, Gonzalezen hitzetan: "Zarzuela honetan, bi jende mota dago: batetik, herritarrek daude; eta bestetik, aristokrazia. Luisa Fernanda herriko neska bat da

eta herriko Javier Morenorekin maiteminduta dago, baina Javierrek anbizio handia dauka eta, Luisa Fernandaren kalterako, Carolina dukesarekin elkartuko da. Extremadurako lur-jabe bat agertuko da halako batean, eta Luisa Fernandarekin maiteminduko da... Hortik aurrera korapilatzen joango da dena. 1868ko iraultzaren aurreko garaian kokatuta dago".

Bigarrenenez eskainiko duten arren, dekoratuak berreraiki egin dituztela gaineratu du Gonzalezek: "Madrilgo plazatxo batean abiatuko da istorioa, hango paseo baten ikusiko ditugu bigarren ekinaldian, eta hirugarrenean, berriz, Extremaduran".

Protagonista batzuk, berriak

Cristina Cubillo (Carolina Dukesa), Enrike Altuna (Javier Moreno) eta Mikel Izurrategi (Anibal) dira protagonista-papera errepikatzen dutenak; gai nontzeko pertsonailetan honako hauek izango dira: Ruth Osinaga (Luisa Fernanda), Igor Ganboa (Vidal Etxemadurako lur-jabea) eta Mari Karmen Gomez (ostalaria). "Abesbatzan ere denetik dago, badaude aurrekoan egon zirenak, baina badira lehenengo aldiz daudenak ere. Obra berri bat bezala planteatu behar dugu horregatik. Protagonisten kantu-zatiak, bereziki, konplikatuak dira, egia da, baina hemeretzigarrena izateak laguntzen duela. Mari Karmen Gomez lehenengo aldiz sartu da protagonistaren paperean; aurreko aldian Mertxe Salaberri antzeztu zuen ostalaria izango da. Salaberri, eszena-zuzendari lanetan ari da. Abesbatzak ere pisua du, publikoarentzako ezagunak diren kantuak abestuko dituzte: *Mazurca de las sombrillas*, horien artean, baina badituzte bi kantu oso iraultzaile ere...".

Autorearen semea, publikoan

Horrenbeste urteren ostean, behin baino gehiagotan uztekoan egon direla dio, baina publiko fidelak dutela ikusita jarraitu egiten dutela. Oraingoan, gainera, gonbidatu berezia izango dutela gaineratu du Gonzalezek: "Obraren egilearen semea –Federico Moreno Torroba– eta haren emaztea etorriko dira gu ikustera. Orain dela urtebete, Sasibill konpainiak bere aitaren *Sor Navarra* lana estreinatu zuen eta Donostiako bitartez harremanetan jarri eta pozarren onartu zuen gonbidapena".

Oñatiko film laburren rallya egingo dute bihar, zapatua

Santa Ana aretoan 21:30ean egingo duten ekitaldia streaming bidez eskainiko dute Youtuben

A. Aranburuzabala OÑATI

Bederatzigarrena izango da biharkoa, eta, orain arte moduan, harrera ona izan du lehiaketak –eguztenez Oñatiko hamazortzi taldek zuten izena emanda eta 20 talderen muga dute antolatzaileek jarrita–. Parte hartu gura dutenek lehenbailehen idatzi behar dute olr.antolakuntza@gmail.com helbidera.

Aurreko aldietan moduan, 08:00etan elkartuko dira gaztelekuan, eta han jasoko dute lehiakideek filmaren gaia, derri gorrez erabili beharreko objektua eta grabatu beharreko tokien zerrenda. "Hamaika ordu izango dute filma egiteko, 19:00etarako lan guztiak entregatuta izan behar dira eta. 20:00etan, lehiakideentzako luntxa egingo dugu; eta 21:30ean hasiko da sari-banaketa ekitaldia, Santa Ana aretoan. Lehiaketako film guztiak eskainiko ditugu. Sarrera doakoa da, baina aurrez gonbidapena hartu behar da, 16:00etan gaztelekuan banatuko ditugunak. Aretoa lepo betetzen denez, iaz moduan, OLR taldeak Youtuben duen kanalean eskainiko dugu streaming bidez, eta, hain justu, gaztelekuan izango da horretarako aukera", azaldu dute antolatzaileek.



HARIRA

GOIENA TELEBISTA, ELKARRIZKETA ETA EZTABAIDA

HARIRA EZTABAIDA,

AZAROAREN 9AN, EGUBAKOITZEAN, 23:00ETAN

HARIRA EZTABAIDA SAIOA GOIATZ ARANAK GIDATUTA

ELKARRIZKETA BASILI ORMAZABALI,

AZAROAREN 13AN, MARTITZENEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN

HARIRA ELKARRIZKETA SAIOA ENEKO AZKARATEK GIDATUTA

goiena
Zu hemen zaude.



Donostian eta Gasteizen ere, Goienaren Kantari

Bihar, zapatua, Tabakalerako Kutxa Kultur Kluba aretoan grabatuko dituzte bost saio, eta azaroko azken asteburuan, Gasteizko Vital Kutxa Fundazioaren aretoan; telebistaz gain, 'Gukantari.eus' eta 'Alea.eus' atarietan izango dira saioak eta argazkiak ikusgai

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE
Goienak ekoizten duen Kantari karaoke ikuskizuna Donostian egingo dute estreinakoz. Hiri-buruko Amara Berri eskola publikoko, Axular lizeoko eta Aitor ikastolako 7 eta 11 urte bitarteko 125 ikaslek jardungo dute euskal abestiekin kantuan eta dantzan. Bost saio grabatuko dituzte, Kutxa Fundazioaren diru laguntzari esker, bihar, zapatua, Tabakalerako Kutxa Kultur Kluba aretoan.

Kantari, eskolako ikasgaia

Artista gazteek ikasgeletan landu dituzten saioak Goienako kamaren aurrean grabatu aurretik, euren eskoletako beste ikasle batzuen aurrean eskaini dute asteon entsegu orokor moduan, eta, ekimenaren antolatzailerak adierazitakoaren arabera, "etxeko-lanak ondo eginda eraman zituzten entseguetara"; Axular Lizeokoek, esaterako, Kantari proiektu moduan bideratu dute ikasgeletan: "Guk geuk erronka moduan planteatu genuen, eta gure ikasleei ere haxe eskaini genien aukera. Aprobetxatu nahi izan dugu grabazioa, telebistan ateratze hori, eta horri begira landu ditugu talde lana, sormena eta euskal kantak kantatzeko eta



Donostiako Axular lizeoko ikasleak Kantari saioaren entseguan. AITOR AGIRIANO

bizitzeko beste aukera bat eskaini diegu. Ikasgai desberdinetan eskaini diogu denbora, gure jarraipena eta arreta, kantak ikasi, koreografiak sortu eta elkarrekin lanean arituz", azaldu du Donostiako Axular lizeoko Lehen Hezkuntzako koordinatzaile Itziar Redondok.

Gasteizen, hirugarrenez

Gasteizko Dendarabako Vital Kutxa fundazioaren aretoan ere Kantari saio berriak grabatuko dituzte, azaroren 24ko eta 25eko asteburuan; 400 neska-mutikok

parte hartuko dute eta hamalau saio jasoko dituzte. Orain arte moduan, Goienak bidelagun izango ditu Gasteizko Geu euskara elkartea, Arabako Alea aldizkaria, Vital Kutxa Fundazioa eta Gasteizko Udala.

Telebistan eta sarean ikusgai

Goiena telebistan eskaintzeaz gainera, Euskaltel bidez ere ikusi ahaliko dira Donostiako saioak, eta baita *Gukantari.eus* atari berrian ere. Gasteizko saioak eta argazkiak, berriz, *Alea.eus* atarian izango dira.

Sexu abusuak oinarri dituen antzezlan Amai antzokian

Ttanta konpainiaren 'Como un viento helado' thriller estreinatu berria eskainiko dute domekan, 19:30ean

A. A. ARRASATE

Soka eta *Giltzadun etxea* lanak egin ostean, *Izotzutako haizea bezala* lanaren gaztelerazko bertsiorekin *-Como un viento helado-* itxiko dute abusuari buruz egin duten trilogia. Amaia an-

tzokian eskainiko dute, etzi, domeka, 19:30ean. Sarrerak hamar eurotan eros daitezke, leihtailan eta *Arrasate.eus* atarian.

Labetik atera berria dute, urrian estreinatu zuten Donostian, formatu txikian, eta segidan

egin dituzte Gasteizen eta Bilbon; eta bihar, Barakaldon estreinatuko dute formatu handikoa, Arrasateko bera.

Nerea Elizalde, Tania Fornieles eta Koldo Olabarri aktore gazteak izango dira taularen gainean. Olabarriak aurreratu du hilketa bat dela abiapuntua. "Hiru bakarriketarekin hasten da, eta, halako batean, farmazia baten topo egingo dugu, tiro bat entzungo da... Segidan, hiltzailea nor den eta hilketaren arrazoiak argitzen joango gara".

Goiena Klubaren txokoa

Goiena Klubeko azaroko sariak!

Ebook reader
Parte hartzeko sariaren izena: Ebook

'Gerrateko ibilerak' liburua
'Gerrateko ibilerak'
Iñaki Alkain - Antonio Zabala
Parte hartzeko sariaren izena: Liburua

Sarrerak
Arrikutz kobak bisitatatzeko, sarrerak.
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz

Otarra
Bidezko merkataritzako produktuak.
Parte hartzeko sariaren izena: Otarra

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: *kluba@goiena.eus* **Whatsapp:** KLUBA "sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarren dagian LOPD 15/1363 legearen arabera, jakinarazten dugu gure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zentruaren itxarotagaitzat hartu ahaliko direla. Datu-bildetza horien helburua da indarren dagian sustapena gertatzea. Eskubidea inguridari datuaren zuzenkeri, hark zuzentzeko edo ezaritzeko, helbide honetara bidaltzea: *kluba@goiena.eus*

Irabazi bi lagunendako otordua

DUKIENA JATETXEARI ESKER

Beginatu Puntua aldizkari Otorduan atala eta hartu parte!

943 25 05 05 *kluba@goiena.eus*

KLUBA Joretzea
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...



Bazkidetu zaitez: 2018 (azarotik aurrera): 15€.
Deitu: 943 25 05 05. *kluba@goiena.eus*

goienakkluba
